

# EEP 2024 GURE EKONOMIA ERALDATUZ

Euskal ekintzaitzaren ibilbide-orria



Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Diputación Foral  
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA ORAIN  
Es futuro



## Edukia

<b>1. EEP 2024ren laburpen grafikoak</b>	<b>1</b>
<b>2. Euskadiko ekintzaitza-ekosistemak</b>	<b>2</b>
2.1. Zer da? Ekoizpen-jarduera berriak sortzeko sarea	2
2.2. Nortzuk gara? 100 eragile publiko eta pribatu baino gehiago, egitasmo ugari sortzen	3
2.3. Zer eskaintzen dugu? Ekintzaitzarako diziplina anitzeko gaitasunak	5
2.4. Zer emaitza lortzen ditugu? Jarduera, emaitzak eta inpaktu nabarmenak	6
2.5. Zergatik ekin Euskadin? Gure kontakizun partekatua	8
<b>3. Ekintzaitzaren etorkizuna Euskadin</b>	<b>9</b>
3.1. Zer erronka ditugu? Gure ekosistemaren gaineko 11 erronka 2030erako	9
3.2. Zer arlo ditugu hobetzeko? Lehentasunezko 35 erronka 2024rako	11
3.3. Zer aukera identifikatu dira? Ekiteko arloak eta sektoreak	13
3.4. Nola egokitzen gara aldaketara? Adibidea: COVID-19ari emandako erantzuna	14
<b>4. Erakundearteko konpromisoa: EEP 2021-2024</b>	<b>15</b>
4.1. Zer da EEP 2024? Gure balio-proposamena	15
4.2. Zer testuingurutan jarduten dugu? Planaren politika-araudi esparrua	16
4.3. Zer helburu ditugu? Ardatzak eta helburuak 2021-2024	16
4.4. Zer ekarpen egiten diogu 2030 Agendari eta GJHri? Planaren lerrokatzea	17
4.5. Nola gauzatuko da EEP 2024? Lan-lerro eta ekintza nabarmenak	18
4.6. Nola erantzuten die planak ekosistemaren erronkei?	19
4.7. Ardatz bakoitzeko ekintza nabarmenak	20
4.7.1. Ekintzaitzaren kultura eta balioak	20
4.7.2. Giza kapitala	21
4.7.3. Ekintzaitzarako iturriak eta ideiak	22
4.7.4. Finantzaketa eta inbertsioa eskuratzea	24
4.7.5. Merkaturako sarbidea	26
4.7.6. Laguntzarako prozesu, zerbitzu eta programak	27
4.7.7. Zerga-sistema eta araudi erraztaileak	28
4.7.8. Azpiegitura adimendunak	30
4.7.9. Ekosistema	32
4.8. Nola lan egiten dugu elkarrekin? Proiektuak lankidetzan	33
<b>5. Ekintza-plana eta gobernantza-eredua</b>	<b>36</b>
5.1. Ekintzak eta aurrekontua	36
5.2. Kudeaketa eta koordinazioa	37
5.3. Jarraipenerako eta ebaluaziorako sistema	38
<b>Eranskinak</b>	<b>40</b>
A1. Ekintzaitza-ekintzen katalogoa	40
A2. Ekintzaitzaren egoera Euskadin	82
A2.1. Ekintzaitza	82
A2.2. Ekintzailearen profila	87
A2.3. Erakundearteko Mahaiaren adierazleen taula	89
A3. Erakundeen eta araudiaren testuingurua	91
A3.1. Nazioarteko testuingurua	92
A3.2. Estatuko testuingurua	94
A3.3. Euskadiko testuingurua	98
A4. EEP 2020ren ebaluazioa	105
A5. "Babson Entrepreneurship Ecosystem Project" eredua egokitzea	107

# 1. EEP 2024ren laburpen grafikoa

GAUR

## Nork osatzen dugu ekosistema?

<p><b>Mikro enpresak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Erakunde publikoak</li> <li>Ekonomia, enpresa, etagizta... arloetako eragileak</li> </ul> <p><b>Finantzatza sarea</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Lurraldeko ikasitzaileen sarea: <b>Ikasitzaileen sarea</b></li> <li>Finantzatzaileen sarea: <b>Finantzatzaileen sarea</b></li> <li>Finantzatzaileen sarea: <b>Finantzatzaileen sarea</b></li> </ul> <p><b>Finantzatza sarea</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Finantzatzaileen sarea: <b>Finantzatzaileen sarea</b></li> <li>Finantzatzaileen sarea: <b>Finantzatzaileen sarea</b></li> <li>Finantzatzaileen sarea: <b>Finantzatzaileen sarea</b></li> </ul>	<p><b>Merkatutako sarbidea</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Eusko Jaurjartza - SPRI - <b>SPRI</b></li> <li>EIT Food</li> <li>Foru-aldundiak</li> <li>BICAK*</li> <li>Udalak</li> <li>CAF Ventures, Mondragon</li> <li>Sustapena eta beste enpresa batzuk</li> <li>BONK BEAZ - <b>Telefonia Open</b></li> <li>Finantzatzaileen sarea</li> <li>Saioan</li> <li>Tecnalia Ventures</li> <li>Nazioarteko eragileak eta enpresak (Google, Microsoft, Amazon, Siemens Play Station...)</li> </ul>	<p><b>Bizi-kalitatea</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Eusko Jaurjartza - Lanbide - <b>SPRI</b> - <b>BICAK</b> - Beste erakunde publikoak</li> <li>Gizarte, ekonomia, erakunde kultura, arloetako elbisa</li> <li>Foru-aldundiak</li> <li>BEAZ</li> <li>Udalak</li> <li>batzuk</li> </ul> <p><b>Erakundeen lidergoa eta/edo araudien eta zergen esparrua</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Eusko Jaurjartza - Lanbide - <b>SPRI</b> - <b>BICAK</b> - Beste erakunde publikoak</li> <li>Gizarte, ekonomia, erakunde kultura, arloetako elbisa</li> <li>Foru-aldundiak</li> <li>BEAZ</li> <li>Udalak</li> <li>batzuk</li> </ul>
--	--	---

## Zer emaitza lortzen ditugu?

**MIKROEKINTZAILTZETA**

2013-2019 aldian, **20.201** enpresa sortu dira. **19.339** lagunek jaso dute **oinarriko prestakuntza**, eta **29.819** proiektuk jaso dute **aholkularitza**

**OINARRI TEKNOLOGIKOKO ENPRESA BERRITZAILTE BERRIA (OTEBB)**

**779** OTEBB aktibo ditugu. **3.422** enplegu sortzen dituzte eta **528,7** milioi fakturazten dituzte.

2030

## Zer erronka ditugu 2030erako?

<p><b>1. Ekintzailetza herrialdearen lehenetsun gisa</b></p>	<p><b>2. Espezializazioa industria adimendunean</b></p>	<p><b>3. Helburu ekintzaile berriak</b></p>
<p><b>4. Ehun ekonomikoa eta enplegua berritzea</b></p>	<p><b>5. Talentu ekintzailearen "harrobia"</b></p>	<p><b>6. Potentzial altuko proiektuak "eraikitzea"</b></p>
<p><b>7. Koinbentsio publiko pribatua</b></p>	<p><b>8. Zerga-sistema, ekintzailetzaren zerbitzura</b></p>	<p><b>9. Ekintzailetza teknologiko-industrialerako interesgune gisa posizionatzea</b></p>
<p><b>10. Ekosistemaren sofistikazioa</b></p>	<p><b>11. Konplexutasunaren eta ziurgabetasunaren aurrean, egokitzapena</b></p>	

2021-2024

## Zein da 2121-2025 aldirako gure erakundearteko konpromisoa?

**Lehenetsuneko 35 ERRONKA 2024rako**

**9 ARDATZ**

<p>1 <b>KULTURA eta BALIOAK</b></p>	<p>2 <b>GIZA KAPITALA</b></p>	<p>3 <b>EKINTZAILTZARAKO IDEIEN ITURRIAK</b></p>
<p><i>"Ekintzailetzaren oinarriko hiru osagaiak: ideiak, pertsonak eta balioak"</i></p>		
<p>4 <b>FINANTZAKETA eta INBERTSIOA ESKURATZEA</b></p>	<p>5 <b>MERKATURAKO SARBIDEA</b></p>	<p>6 <b>LAGUNTZARAKO PROZESU, ZERBITZU eta PROGRAMAK</b></p>
<p><i>"Funtsezko hiru oinarriak dira, bezeroak eta aholkularitza"</i></p>		
<p>7 <b>ZERGA SISTEMA eta ARAUDI ERRAZTAILEAK</b></p>	<p>8 <b>AZPIEGITURA ADIMENDUNAK</b></p>	<p>9 <b>EKOSISTEMA</b></p>
<p><i>"Ekiteko testuinguru erakargarria"</i></p>		

**41 LAN-LERRO**

<p><b>% 87</b> lankidetzan</p>	<p><b>776</b> EKINTZA</p>	<p><b>2021erako</b> aurrekontua <b>70,23 M</b></p>
--------------------------------	---------------------------	--

% 50 OTBB  
 % 49 Mikroekintzailetza  
 % 1 Hezkuntza-sistema

## 2. Euskadiko ekintzaitza-ekosistemak

### 2.1. Zer da? Ekoizpen-jarduera berriak sortzeko sarea


Europako Batzordeak eta EBK Europako Berrikuntza Kontseiluak honela definitzen dituzte berrikuntzarako eta ekintzaitzarako ekosistemak: **“era guztietako eragileen arteko interakzio-sareak, non informazioa, ezagutza eta talentua balio iraunkorreko elkarsorkuntza-sistemen bidez mugitzen diren”**. Azken urteetan indartu egin da sare hauen aldeko apustua, eskualde bakoitzeko espezializazio adimenduna hobetzeko, enplegua sortzeko eta gizartearen ongizaterako tresna gisa. Era berean, gizartearen erronka garrantzitsuei aurre egiteko, honakoien bidez: talentuaren garapena, ekintzaitza, berrikuntza irekia eta eragileen arteko lankidetzak.

Orain dela gutxi Estatuko ekintzaitza-ekosistemaren kalitatearen eta inpaktuaren gainean egindako azterlan batek lehenengo postuan kokatu du Araba, hirugarrenean Gipuzkoa eta seigarrenean Bizkaia.

Dimentsio anitzeko analisia da, Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) erabiltzen ditu testuinguru gisa, eta honakoei jartzen die arreta: batetik, sare hauek indartzeko **politika publikoek duten garrantziari**; bestetik, **ekonomia erresilientziaren eta jasangarritasunaren ikuspegitik bultzatuko duen kalitatezko ingurune ekintzaile** bat izatearen beharrari. EAEko lurraldeetako ekosistema bakoitza baloratuta, ingurumenaren ardatzak jaso ditu baloraziorik baxuenak.

Gure sarearen **kalitatea** erakusten du azterlan honek. Eta sarearen bilakaera elkarlanean eta modu koordinatuan **sustatzen jarraitzeko** akuilua ere bada.

#### Inpaktuzko ekintzaitza-ekosistemaren azterketa Ebaluaziorako ardatzak eta dimentsioak



Iturria: Inpaktuzko ekintzaitza-ekosistemaren 2020ko indizea (Impact Hub).

COVID-19aren krisialditik irteten ari garen honetan, **indartu egin dira gure ekosistema sustatzeko apustuak**. Etapa berri hau baliatu egin behar dugu: eragile berriak txertatzeko, eta gure gaitasunak, zerbitzuak eta irismena are gehiago zabaltzeko; barneko konexioak eta lankidetzak ugaritzeko eta, hala, pertsona eta proiektu ekintzaileei balio handiagoa eskaintzeko; eta sarearen nazioartekotzeari eta erreferentziazko beste ekosistema eta nodo batzuekiko konexioari aurre egiteko, gure ingurunera ideia, proiektu, pertsona, ezagutza eta kapital berriak erakartzeko funtsezko estrategia gisa.

Bi faktore horiek, hau da, gure sarearen egungo kalitatea eta etengabe hobetzeko nahia, ezinbestekoak izango dira datozen urteetan. Izan ere, **ekintzaitzak funtsezko palanka izan behar du kalitatezko enplegua sortzeko duen suspertze ekonomikorako**, eta erantzuna eman behar dio gure gizartearen **trantsizio hirukoitzari** –teknologiko-digitala, energetiko-ingurumenekoa eta demografiko-soziala–.

## 2.2. Nortzuk gara? 100 eragile publiko eta pribatu baino gehiago, egitasmo ugari sortzen

Euskadin 100 eragile publiko eta pribatu baino gehiagok sustatzen eta bultzatzen ditugu ekintzaitza-proiektuak, haien ontze-etapa guztietan, eta erkidego, lurralde, eskualde eta udalerrri mailan. Egunetik egunera osoagoa eta dinamikoagoa da sare publiko-pribatua.

### Euskal ekintzaitza-ekosistemaren mapa 2021

#### Makro baldintzak

- Erakunde publikoak
- Ekonomia, enpresa, ezagutza... arloetako eragileak

#### Ekintzaitza-sareak

- Lurraldeko ekosistemaren sareak: **SAREKIN**
- Mentoring sareak: EJ, Foru-aldundiak, udalak, BICak\*
- Unibertsitateak (EHU, UD, MU eta Tecnun)
- Lanbide Heziketako ikastetxeen sarea- Tknika-Urratsbat
- Ekintzaileen sareak eta foroak: ADEGI, CEBEK, SEA, ASPEGI, AED, SECOT, AJEBASK, BCC, **SUA**, etab.
- Inbertitzaileen sareak: **Emprendiza, Berriup, MicroWave, Metxa**, Seed Capital Bizkaia...
- Business Angels (BBAA) sareak: Orkestra Crecer+ Keiretsu, **Coben**, **Nazioarteko hub-ekin lotura**

#### Hezkuntza/trebakuntza

- Eusko Jaurlaritza: Lanbide, TKNIKA Lanbide Heziketa, ikastetxe orokorrak, HAZI nekazaritza sektoreko prestakuntza gazteei...
- Foru-aldundiak
- BICak\*
- Udalak
- Unibertsitateak EHU, UD, MU, BCC eta Tecnun
- Merkataritza Ganberak
- Adeg, CEBEK, SEA
- **Azeleratzaileak: Berriup, Metxa**, BEAZ, etab.
- Europako Batzordea - **Erasmus**
- Nazioarteko eragileak: **SOSA, CIC...**

#### Azpiegiturak

- Eusko Jaurlaritza: PARKEA, SPRILUR Tknika/ LH zentroak...
- Foru-aldundiak
- BICak\*
- Udalak eta garapen-agentziak
- Industrialdeak
- ZTBES
- Unibertsitateak (EHU, UD, MU, BCC eta Tecnun)
- Mondragon Sustapen Zentroa, Saiolan
- Beste zentro, mintegi, inkubategi, azelerazio eta coworkingerako espazio publiko eta pribatuak
- Azpiegiturak: telekomunikazioak, garraioa eta logistika, energia eta lurzorua

#### Laguntza-zerbitzuak

- Ekintzaitzari laguntzeko prozesuak, programak eta zerbitzuak, eta Administrazio Publikoen lantalde teknikoak: Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak, udalak, garapen-agentziak eta BICak\*, beste batzuen artean.
- **Euskal Ekintzaitzaren Behatokia - EEB**
- Lege, jabetza intelektual, zerga, finantza, sektore/teknologia eta abarrei buruzko aholkularitza

#### Merkaturako sarbidea

- Eusko Jaurlaritza-SPRI: **-BIND 4.0, EIT Food**
- Foru-aldundiak
- BICak\*
- Udalak
- **CAF Ventures**, Mondragon Sustapena eta beste enpresa batzuk
- BIOC BEAZ - **Telefónica Open Future**
- Saiolan
- **Tecnalia Ventures**
- Nazioarteko eragileak eta enpresak (**Google, Microsoft, Amazon, Siemens Play Station...**)



#### Bizi-kalitatea

- Gizarte, ekonomia, erakunde kultura... arloetako ehuna

#### Erakundeen lidergoa eta/edo araudiaren eta zergen esparrua

- Eusko Jaurlaritza • Lanbide • SPRI • BICak\* • Beste erakunde
- Foru-aldundiak • BEAZ • Udalak • batzuk

#### Finantzaketa / inbertsioa

- Autoenplegurako laguntzak (EJ, Lanbide, Foru Aldundiak, udalak...)
- Eusko Jaurlaritza - SPRI - SGEIC (CR, Ekintzaile XXI, **Basque Fondo**, Luzaro, Sendotu...)
- Foru-aldundiak eta Mikro, Seed Gipuzkoa, Hazibide...)
- Udalak Europako eta estatuko eragileak (CDTI, ICO, **EIC Accelerator...**)
- Arrisku-kapitaleko abalak, kredituak eta funtsak (Elkargi, Geroa, Orza)
- Finantza-erakundeak (Kutxabank, Laboral Kutxa, Sabadell...)
- Kapital pribatuko sozietate eta funtsak (**Easo Ventures, All Iron Ventures, Kereon, Cardumen, ABE Capital Partners...**)
- Pledge Funds (**Emprendiza, MicroWave...**)
- Enpresa-industria arloko kapitala (**Mondragon, CAF, Iberdrola, Velatia...**)
- Kapital teknologikoa (**Tecnalia...**)
- Azeleratzaileak, inkubategiak eta venture builders (**Berriup, Metxa, INIT, Eywa, AIPower**, ekimen publikoak eta publiko-pribatuak...)
- Business angels, bigarren belaunaldiko ekintzaileak (Crecer+, **Coben**, Keiretsu)
- Mikromezenasgoa (**Bizkaia crowdfunding**), beka eta sariak eta abar

#### Arrakasta-kasuen hedapena

- Eusko Jaurlaritza
- Foru-aldundiak
- BICak\*
- Udalak eta garapen-agentziak
- ADEGI, CEBEK, SEA
- El Correo, Diario Vasco eta abar.
- Ekitaldien eta sarien beste antolatzaile batzuk
- Hedabide espezializatuak

#### Gobernuz kanpoko instituzioak

- Merkataritza Ganberak
- ADEGI, CEBEK, SEA
- Elkartek: ASPEGI, AED, AJEBASK, ASLE, etab.
- Innobasque etab.

#### Ekintzaitzaren balioak eta kultura



- Eusko Jaurlaritza
- Foru-aldundiak
- Udalak
- Unibertsitateak (EHU, UD, MU, BCC eta Tecnun)
- Innobasque
- **Nazioarteko eragileak**
- Fundación Kutxa, BBK, Vital eta beste finantza-erakunde batzuk
- Vocento taldea
- Hedabide espezializatuak
- **Enpresak eta fundazioak**

\* BIC Araba, BEAZ-BIC Bizkaia, BIC Bizkaia Ezkerraldea eta BIC Gipuzkoa. Aurrerantzean, BICak.

Enpresa eta pertsona ekintzaile berrientzako laguntza bideratu du **euskal sistema publikoak 80ko urteetatik**. Oinarrizko baldintzak sortu eta gero eta osoagoa eta segmentatuagoa den laguntza multzoa jarri du martxan, kolektibo ekintzaileen behar anitzen araberakoa. Laguntza horiek Estatuko eta nazioarteko erreferentziazko beste ekosistema batzuen parekoak dira.

Erakundearteko konpromisoak aurrera jarraitzen duela erakusten du **EEP 2021-2024 prestatu** izanak. Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiei Laguntzeko 16/2012 Legea onartu zenetik, ekintzaitzari laguntzeko egindako hirugarren erakundearteko plana da.

### Ekintzaitzari laguntzeko euskal ekosistemaren bilakaera historikoa

	Jatorria... (80ko urteak)	Mende-aldaketa	Azken hamarkada	2020-...
1. Herritarren ekintzaitzarako beharra / justifikazioa	<ul style="list-style-type: none"> <li>Langabezia &gt; % 25 = mikroekintzaitza, beharrak bultzatuta.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ekintzaitza, aukeraren ondorioz.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Krisi finantzarioa gaindituta, langabeziatik ateratzeko aukera izateari utzi zion ekintzaitzak.</li> <li>Ekintzaitzaren pertzepzio sozial eskasa.</li> </ul>	 Ekosistemaren bilakaera pandemiaren osteko agertokian? 
2. Ekintzaitza-sistemaren xedea	<ul style="list-style-type: none"> <li>Autoemplegua sustatzea eta enpresa txikiak sortzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Lurralde Historikoaren, eragilearen eta fasearen araberako beharretara egokitzea.</li> <li>Startupak sortzea eta ekintzaitzaren kultura sustatzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ekintzaitza mota guztiei laguntza segmentatua ematea.</li> <li>Enpresa berritzaileen, globalen eta ibilbide luzeen apustua indartzea.</li> </ul>	
3. Laguntza-sistema, jarduteko politikak eta garatutako tresnak	<ul style="list-style-type: none"> <li>Proiektua prestatzeko eta elkarte eratzeko laguntza.</li> <li>Laguntzarako programa eta zerbitzu berritzaileak.</li> <li>Azpiegitura eta tresna finantzarioak.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Eragileak eta programak areagotzea eta espezializatzea</li> <li>Fase guztietan jardutea.</li> <li>Hezkuntza-programa berriak.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Proiektu guztien bizi-zikloetako fase guztietara hedatutako sistema.</li> <li>Azpiegituren espezializazioa eta laguntza-zerbitzuen sofistikazioa.</li> <li>Hezkuntzari eta ekintzaitzasunaren kulturari buruzko programen hedapena.</li> <li>Sektore pribatuaren presentzia gorakorra.</li> </ul>	
4. Lortutako emaitzak	<ul style="list-style-type: none"> <li>Mikroekintzaitzaren bidez langabezia-tasa murriztea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Sortutako enpresen kopurua areagotzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Enpresa berrien kopuru txikia, tamaina eta hazkunde mugatukoak.</li> <li>Biziraupen-tasa altuak.</li> <li>Zerbitzuen sektorearen nagusitasuna.</li> </ul>	

Iturria: guk egina

Ekosistemaren hazkundearen eta dinamikotasunaren erakusle, azken hamarkadan **eragile pribatu eta parapubliko ugari batu dira, besteren artean, eremu hauetakoak: finantzak, enpresak, teknologia eta hezkuntza** (aurreko orrialdean koloreztatuta ageri dira adierazgarrienak). Eragile horiek osatu eta zabaldu egiten dute eragile publikoen lana, estali gabeko laguntza-beharrei erantzuna emanez.

**100 eragile eta pribatutik gorako** sarea osatzen dugu guztion artean, eta gure arteko lankidetzeta eta koordinazioa berriz ere funtsezkoa izango da COVID-19aren krisialdia gainditu eta egoera horretatik ateratzeko.

Aurreko orrialdean eragile bakoitzak garatzen dituen jardueren araberako sailkapena ageri da, nazioarteko **Babson College** erreferentziazko ereduari jarraituz. Ekintzaitza-ekosistema ororen arrakastarako 6 faktore kritiko bereizten ditu eredu horrek.


Eredua gure errealitatera moldatu dugu<sup>1</sup>, **bizi-kalitatea eta ekosistemaren baldintza ekonomikoak (makro mailan) bezalako aldagaiak** txertatzeko. Plan honetan zehar, 9 ardatzeko egitura batean antolatu da eredu. Ekosistemaren lehentasuneko erronkak eta erronka horiei erantzuteko eragile ezberdinek aurreikusitako ekintzak sailkatzea errazten du egitura horrek.

<sup>1</sup> Ekosistemaren mapa, Babson College ekosistema-ereduan oinarrituta eta Aspen Network of Development Entrepreneursek ekintzaitza-ekosistemak aztertzeo tresnen gainean egindako analisiari esker osatua. Babson College, Council on Competitiveness, George Mason University, Hwang, V.H., Koltai and Company, GSM Association, Organisation Economic Co-operation and Development, World Bank, World Economic Forum.

## 2.3. Zer eskaintzen dugu? Ekintzailetzarako diziplina anitzeko gaitasunak

Gure ekosistemak diziplina anitzeko gaitasunak agertzen ditu gaur egun, ekintzailetzaren zerbitzura. **Profesional, zerbitzu, finantzaketa, sare, azpiegitura, laguntzarako eta hedapenerako programa... multzoa, esparru normatibo, fiskal eta instituzional sendo eta fidagarrian oinarritua. Enpresen, industriaren eta teknologiararen ehunak** eta gizarteak prestakuntza eta kohesio maila altua izatea ere garrantzitsua da, egitasmu ekintzaile berrien jatorri eta helmuga gisa.

### Euskal ekintzailetza-ekosistemaren gaitasunen mapa 2021




Iturria: 2021ean eguneratua, informazio publikoan eta proiektu ekintzaile baten bizi-zikloaren eskema sinplifikatuan oinarritua.

## 2.4. Zer emaitza lortzen ditugu? Jarduera, emaitzak eta inpaktu nabarmenak

Ekosistemaren emaitzak neurtzeko orduan ikuspegi bikoitza erabiltzen dugu.

Batetik, **oinarri teknologikoko ekintzailtza berritzailea** (OTEBB). Apustu sendoa eta jarraitua da Euskadin 90eko urteetatik. Gure ekonomiako sektore ugaritan mamitzen da apustu hori, eta etorkizunerako potentzial handiko **aukerak** eskaintzen ditu, bereziki, RIS3 espezializazio-estrategiari lotuta: industria adimenduna, energia garbiak, osasun pertsonalizatua, elikadura osasuntsua, etab. Gainera, nazioartean aitortzen den bezala, gainerako jarduera baino **eraldaketa produktibo eta sozial handiagoa**<sup>2</sup> sortzen dute proiektu berritzaileek, bereziki, disruptiboenak.



<sup>2</sup>Euskadiko Lehiakortasunari buruzko Txostena, Orkestra (2013): "Kauffman Fundazioaren arabera, enpresarik disruptiboenak –gazela enpresak ere deituak– lanpostu berrien % 10 inguru sortzen dute Estatu Batuetan, herrialdeko enpresa-ehunaren % 1 baino izan ez arren (Stangler, 2010). Alemanian, Ramboll txostenaren arabera, enpresa berriek sortutako 6 lanpostutik bat gazela enpresei dagokie. Erresuma Batuan NESTA txostena egiten dute hamar langiletik gorako enpresetan, eta txosten horrek adierazten duenez, hazkunde handiko enpresak dira enpresa-ehunaren % 6-7, eta enpresa horiek sortzen dute enplegu berriaren ia % 54 (NESTA, 2009)."



Bestetik, **autoenplegua eta mikroekintzailtza**. Horiek dira duela ia 40 urte jaiotako laguntzarako euskal ekosistemaren jatorriko osagaiak, baita enplegua eta aberastasun ekonomikoa eta soziala sortzeko zutabeetako bat ere. Ez da ahaztu behar desberdintasunak murrizteko, kohesio sozialerako, lurraldearen orekarako eta gure herri eta hirietako biziaren dinamizaziorako duten funtsezko papera. Datozen urteetan gizarte bezala aurre egin behar diegun funtsezko erronkak dira horiek.



Iturriak: Ekintzaitzaren Erakundearteko Mahaiko eragile instituzionalak, EUDELek eta GARAPENek emandako informazioa

Bi orrialde hauetan gure ekintzailtza-ekosistemaren emaitza nagusietako batzuk laburtzen ditugu. Eta ez da ahaztu behar nabarmentzeko jardura eta egitasmoak ditugula honako alorretan ere:

- **Ekintzailtza eta gizarte-ekonomia.** Azken 25 urteetan 1.300 establezimendu berri ireki dituzte, eta 19.500 enplegu berri sortu.
- **Enpresen barne-ekintzailtza.** Arlo honetako programa publiko nagusiek 280 proiektu berri baino gehiagori eman die laguntza 2015az gozotik<sup>3</sup>. Enpresa-ehuna eraldatzeko eta gaztetzeko eta haien langileen artean dagoen giza kapital ekintzailea aprobeztatzeko formularik egokiena izan da, eta hala izaten jarraitu behar du.

Euskadiko ekintzaitzaren jarduerari eta ekintzaileen profilari buruzko xehetasun gehiago izateko, ekintzaitzaren egoeraren gaineko diagnostikoa gehitu dugu [A2 eranskinean](#). Etorkezunera begira, euskal ekintzailtza **neurtzeko eta ebaluatzeko sistemen hainbat hobekuntza** proposatzen dira, hauekin lotuta: datu publikoen eta pribatuen integrazioa; inpaktu hirukoitzaren neurketa - jasangarritasuna; NBEn ekarpena GJHri; hartutako arrisku mailaren adierazleen erabilpena (adb., inbertitutako kapital pribatua), genero-adierazleak indartzea eta abar. [4.8.](#) atalean zehazten dira.

<sup>3</sup> Finkatutako enpresek sustatutako negozio berrien bideragarritasunari laguntzeko Barneekintzaile programa 2015-2020 (4,9 M euroko dirulaguntza metatuak), eta aldi horretan foru-aldundiek barne-ekintzaitzari emandako beste laguntzak batzuk.

## 2.5. Zergatik ekin Euskadin? Gure kontakizun partekatua

Ekosistema gisa ditugun gaitasunak, erronkak eta aukera aztertuta, galdera hauek egin behar dizkiogu geure buruari: Gaur egun Euskadi leku ona al da ekiteko? EEP 2024ak hainbat ohar ematen ditu euskal ekintzaitzaren gaineko kontakizun komuna eraikitzeko. **Narratiba partekatua, ekosistemako eragile publiko eta pribatu guztioi EAEn ekiteak zergatik merezi duen azaltzea ahalbidetuko diguna.** Proposamen irekia da, eragile bakoitzak aren errealitatean eta lan eremuan osatu eta zehaztuko duena:

### *Historia eta balioak*

- Jarrera ekintzailea balio indibidual eta kolektibo moduan, ingurunearen erronketara egokitu eta haiei erantzuteko. Pandemiaren aurrean sustatutako proiektu ekintzaileen adibidea dugu.
- EAEn historia ekonomiko eta soziala, ekintzaitza eta berrasmatze etengabearen adibide gisa. Industria protagonista izan da historia horretan.
- Hiru hamarkada ekintzaitza babesten, instituzioen eta sektore pribatuaren arteko elkarlanari esker.
- Laguntza publikoa, honakoetan oinarrituz eraikia: zorrotasuna, pertsonen eta proiektuen beharretara egokitzea, eta instituzioen arteko lankidetzak. Autokritikoa eta etengabeko bilakaera-prozesuan.

### *Gaitasunen oinarri sendoa*

- Lehenengo eta bigarren belaunaldiko pertsona eta enpresa ekintzaileak.
- Industria-ehun lehiakorra eta erresilientea, enpresa-mentalitatea eta pandemiak eragin duena bezalako krisialdien ondoren suspertzen esperientzia.
- Azken 8 urteetan 779 OTEBB baino gehiago sortu dira (3.422 enplegu) industriaren, IKTen, biozientziak-osasunaren eta energiaren sektoreetan.
- Erreferentziazko ekosistema enpresarial-industrial-berritzaile-teknologikoa, industria-enpresa, kluster eta ZTBESen sare oso batean oinarritua. Sare horrek ekintzaitzari laguntzeko balio du, ideia berriak, proiektuak, ekintzaileak, bezeroak, inbertsioak eta aholkularitza eskainiz.
- Laguntzarako programa, zerbitzu, azpiegitura eta profesionalen eskaintza zabala eta espezializatua (publikoak eta pribatuak), Euskadiko geografia osoan zehar. Estatuko eta nazioarteko beste errealitate batzuen parekoa.
- EEP 2024, lankidetzarako esparru estrategiko gisa: 400 eragile eta 776 baterako ekintza baino gehiago.

### *Euskal ekintzaitza-eredua*

- Pertsona ekintzaileen eta haien gaitasunen eta balioen paper protagonista. Ekintzaileak daude proiektu ekintzaileen "bihotzean".
- Euskadin eta bertako ekonomian, industrian eta gizartean errotutako proiektu sendoak, berritzaileak eta konprometituak. Jasangarritasun eta eraldaketa hirukoitzaren (digitala, berdea...) bokazioa areagotzeko erronkarekin.
- Jarduera ekonomiko berria sortzea, iturri edo "kala" ugaritan banatuta: ehun industrial- enpresariala, ekintzaitzan esperientzia duten pertsonak, hiritarrak orokorrean, zientziaren eta teknologiaren sarea, hezkuntza-sistema (Lanbide Heziketa eta Unibertsitateak) eta osasun-sistema, eragile laguntzaileak eta ehun asoziatiboa.
- Publiko-publiko eta publiko-pribatu lankidetzak eta hurbiltasuna indartzea, krisialditik irteteko.

### *Etorkizuneko ambizioa*

- Ekintzaitza sendotzea, kalitatezko enplegua sortuko duen suspertze ekonomikorako palanka gisa, bereziki, aukera-sektoreetan, eta eredu jasangarri eta kolaboratiboagoetan oinarrituta.
- Eraldaketa digitala, energetikoa eta soziosanitarioa aukera izugarri baten gisa hartzea, pandemiaren eraginak leuntzeko eta egitura produktiboa berritzeko.
- Gero eta dinamikoagoa, erakargarriagoa eta kohesionatuagoa izango den laguntzarako ekosistema publiko-pribatu bat sustatzea, pandemiatik irteteko agertokiari lagunduko dion sare gisa jardungo duena.
- Euskadi "ekiteko leku on" gisa kokatzea, eta ekintzaitza industrial-teknologikorako erreferentziazko lurralde gisa ere bai, gure gaitasunetan eta ezaugarri bereizgarrietan oinarrituta.


### 3. Ekintzaitzaren etorkizuna Euskadin

#### 3.1. Zer erronka ditugu? Gure ekosistemaren gaineko 11 erronka 2030erako

- 1. EKINTZAILTZA, HERRIALDEAREN LEHENTASUN GISA:** egungo krisialdia gainditzeko eta aberastasunaren eta kohesio sozialaren maila mantentzeko ezinbestekoa den jauzia emateko estrategia berriaren lehentasunezko jardute-ardatzetako bat ekintzaitza izatea. Honakoetan oinarritutako apustua: helburu komunak ezartzea, publiko-publiko eta publiko-pribatu lankidetzatik abiatuta proiektu estrategiko berriak martxan jartzea, eta hezkuntza sisteman eta gizartean ekintzaitzaren kultura eta balioak etengabe sustatzea.
- 2. ESPEZIALIZAZIOA INDUSTRIA ADIMENDUNEAN:** Ekintzaitzaren espezializazioan eta industria adimendunaren inguruan ekosistemak dituen gaitasunetan sakontzea, gaitasun esanguratsuak dauden beste eremu batzuetako apustu osagarriekin batera, hala nola energia garbiak, osasun pertsonalizatua, elikadura osasuntsua, etab.
- 3. HELBURU EKINTZAILE BERRIAK:** egiteko dauden trantsizio handiei heltzea, hala nola trantsizio teknologiko-digitala, energetikoa-ingurumenekoa, soziala eta osasungintzakoa. Ekintzaitzarako (banakakoa, korporatiboa eta zientifiko-teknologikoa) aukeren iturri izugarriak dira trantsizio horiek. Era berean, trantsizio horiek eredu ekonomiko berriak eskatzen dituzte, baita lanerako eta lankidetzarako formula berriak ere, eragile anitzekoak eta zeharkakoak
- 4. EHUN EKONOMIKOA ETA ENPLEGUA BERRITZEA:** banakako ekintzaitza eta ekintzaitza korporatiboa bultzatzea, formula eta mota guztietakoak, baina lehentasuna emanez kolaboratiboei eta malgueli. Izan ere, potentziala dute jarduera berria eta kalitatezko enplegua sortzeko, eta pixkanaka ekonomiaren eta sektorearen ehuna berritzeko. ETE-en sarea kontzientziatu behar da ekitearen garrantziaz, berritzerako eta jasangarritasunerako mekanismo gisa. Aldi berean, ahalik eta gehien aprobeztatu behar dira barruko gaitasunak ("zer dakigu ongi egiten?") eta balioa duten kanpoko aukerak eta lankidetzak arakatu behar dira (teknologia, merkatua, talentua...).

2008an baino **7.100 enpresa gutxiago ditugu egun** EAEn; 2008an iritsi ginen gehieneko kopurura<sup>4</sup>. 2020an zehar 1.348 pertsonako murrizketa izan zuen autonomoen kopuruak (guztira 169.618 pertsona). Guztira, **ia 23.000 enplegu galdu dira**, eta langabezia-tasa (2020ko IV. Hiruhilekoa) % 12,06koa da (% 10,6 gizonena eta % 13,6 emakumeena).

Enpleguaren sorrera garbia enpresaren antzinasunagatik



Iturria: Arnobio Morelix, Kauffman Foundation calculations from the U.S. Census Business Dynamics Statistics

<sup>4</sup>"EAEko enpresa-ehunaren bilakaeraren txostena" (2021eko urtarrila, Confebask). Gizarte Segurantzaren inskribatutako enpresen datuak (Lan eta Gizarte Ekonomia Ministerioa)

5. **TALENTU EKINTZAILEAREN “HARROBIA”:** “talentua duen tokiko harrobia” sortzea, erakartzea, gaitzea eta bultzatzea, hurrengo hamarkadako proiektu berriak zuzenduko dituen hurrengo belaunaldi ekintzaile-sustatzaile talentuduna garatzeko. Proiektu horiek behar dituzten beste profil osagarri eta espezializatu batzuk ahaztu gabe: talentu digitala, komertziala, kudeaketa, etab.
6. **POTENZIAL ALTUKO PROIEKTUAK “ERAIKITZEA”:** potentziala duten proiektu berrien sorrera eragitea, alderdi guztien konpromisotik eta parte-hartzetik abiatuta eta honakoak uztartuta: batetik, talentu ekintzailea, enpresen esperientzia eta eskura dauden finantzaketa eta kapitala; eta, bestetik, egungo teknologiaren eta ezagutzaren, sektore berrien eta aurre egin beharreko trantsizioen... balorizaziotik sortu behar diren ideiak eta ekintzailetzarako aukerak.
7. **KO-INBERTSIO PUBLIKO PRIVATUA:** ko-inbertsio publiko-privatuaren filosofia eta arriskuen eta emaitza positibo posibleen gizarteratzea hedatzea, bereziki, arrisku-kapitalaren arloan. Eta espezializatutako finantzaketa- eta inbertsio-tresnak bultzatzea (publikoak, pribatuak edo mistoak).
8. **ZERGA SISTEMA EKINTZAILETZAREN ZERBITZURA:** jarduera ekintzailea sustatzeko gaitasun fiskal eta finantzario propioa garatzen jarraitzea, gure gizartearen garapen ekonomikorako, enplegurako eta ongizaterako funtsezko pieza moduan. Eta, horretarako, Kontzertu Ekonomikoaren defentsa iraunkorrean oinarritzea, arauen garapenaren eta zerga-bilketaren oinarrizko esparru gisa.
9. **EKINTZAILETZA TEKNOLOGIKO-INDUSTRIALERAKO INTERESGUNE GISA POSIZIONATZEA:** mundu mailan industria adimendunean ekiteko interesgune gisa posizionatzea, eragile guztiek partekatutako kontakizun estrategikoan oinarrituta. Kontakizun horrek “ekosistemaren sentimendua” indartu behar du, eta lor daitezkeen eskala, gaitasunak, espezializazioa eta posizio lehiakorra bere gain hartu behar ditu. Zein da gure lekua munduan?
10. **EKOSISTEMAREN SOFISTIKAZIOA:** ekosistemaren sofistikazioaren eta irekieraren alde egitea, eta, horretarako, eragile, zerbitzu, egitasmo eta eskaintzen diren sostengu-azpiegituren bilakaera bultzatzea, ekintzailetza-eredu berrietara egokitzeko. Hori guztia, eragile publiko eta pribatuen arteko etengabeko lankidetzaren eta talde-lanaren filosofia jarraituta.
11. **KONPLEXUTASUNAREN ETA ZIURGABETASUNAREN AURREAN, EGOKITZAPENA:** testuinguru sozioekonomikoaren aldaketei aurre hartzeko, haietara egokitzeko eta azkar erantzuteko gaitasuna erakustea, bereziki, COVID-19aren pandemia bezalako arazo handi eta konplexuen aurrean. Halako arazoak daudenean, faktore ugariaren artean elkarrekiko mendekotasun konplexuak izaten dira, ziurtasun gutxi eta ikaragarritzko ziurgabetasuna. Euskal ekosistemak egungo krisialdiari emandako erantzunaren adibide bat ageri da [3.4 atalean](#).

## 3.2. Zer arlo ditugu hobetzeko? Lehenetsuneko 35 erronka 2024rako

2030erako erronken testuinguruan, jarraian, **euskal ekosistemaren 35 hobekuntza arlo eta lehenetsuneko erronka zerrendatzen dira 2021-2024 aldirako**. Erresilientzia areagotzera, laguntzeko prozesuak eta dinamikak eraginkortasun handiagoz antolatuz eta ekintzaileak datozen urteetan suspertzeko palanka gisa duen potentziala ahalik eta gehien aprobetxatzera daude bideratuta erronka horiek.

Plan honen prestaketa-prozesuan zehar **eragile publikoek eta pribatuek** egindako ekarpenei esker osatu dugu zerrenda hau, baita ekosistemaren gaineko aurreko txostenetan jasotako hobekuntza eremuiei esker ere. Esaterako, Euskadiko ekintzailetzaren etorkizunari buruzko 2030 txostena, aurreko Erakundearteko Plana EEP 2020 eta haren balantzearen urteko txostenak (2017, 2018 eta 2019koak). Hori dela eta, plan honen edukia egituratzen duten **bederatzi ekintza-ardatzetan** ordenatuta daude erronkak ([16. orrialdean](#) eta ondorengoetan azaltzen den moduan), eta jarraipena ematen die aipatutako txostenetan erabilitako analisirako eskemari.

🌀 sinboloa duten erronken garrantzia areagotu egin da COVID-19aren pandemiaren ondorioz.

### 1. Ekintzailetzaren kultura eta balioak

1. Ekintzailetzaren **kultura eta balioak** hezkuntza-sisteman eta gizartean hedatzea, aberastasunaren banaketa hobea, **kalitatezko enplegua** eta **desberdintasunen murrizketa** sustatuz.
- 🌀 2. **Inkonformismoa, proaktibotasuna, sormena...** eta gisa horretako balioak sustatzea, ehun ekonomiko eta soziala berreskuratzeko eta mantentzeko mekanismo gisa.
3. Desio diren jokabideen eta balioen adibide gisa balio duten **ekintzailetzaren-ereduak** ezagutzera ematea, adibide positiboen hedapenari, porroten normalizazioari eta desinformazioaren aurkako borrokari laguntzeko
- 🌀 4. Ekintzaileak eta enpresariak aintzatezea, **sozialki legitimatzea eta baloratzea**.

### 2. Giza kapitala

- 🌀 1. Kualifikazio baxuko pertsonak **profesionalizatzeko prestakuntza** indartzea, **ekintzailetzarekin lotutako gaitasunak** eta “soft skills” berriak barne.
2. **Ikasleak sentsibilizatzea** ekintzailetzari bizi-aukera eta lan-aukera gisa ikus dezaten (idealizatu gabe)
3. Enpresek, startupek, ZTB eragileek eta eragile publikoek eskatzen dituzten **profil profesional berrien eskaria eta eskaintza** lotzea, profesionalen **erakarpena** barne, bereziki, RIS3 eremuetan.
- 🌀 4. **Belaunaldien arteko erreleboari** laguntzea, ekintzailetzari eta ehun ekonomikoaren gaztetzea bultzatzeko palanka gisa.

### 3. Ekintzailetzarako iturriak eta ideiak

- 🌀 1. Kolektibo eta proiektu mota guztiei arreta eskaintzea, bereziki, **sarbiderako zailtasun handiagoak dituzten kolektiboak** (langabetuak, gazteak...) eta herritarren **ongizaterako funtsezko sektoreei** (“sortze-ekonomia”: osasuna, elikadura, hezkuntza edo zaintza)
- 🌀 2. **OTEBBei laguntzeko** apustuari jarraipena ematea, bereziki, RIS3 sektoreetan, eta enpresa, produktu eta zerbitzu berriak sortzeko, EAEn egiteko dagoen **trantsizio hirukoitza** bultzatzea maila teknologiko-digitalean, energetiko-ingurumenekoan eta demografiko-sozialean.
- 🌀 3. **Barneko ekintzailetzari irekia** bultzatzea enpresa-ehuna eraldatzeko eta gaztetzeko, eta **ZTBESren, osasun-sistemaren** (pandemian zehar frogatu den bezala) eta **hezkuntza-sistemaren** potentziala aprobetxatzea.
- 🌀 4. **Ekintzailetzari berdinezalearen eta homogeneoaren** aldeko apustua, arreta berezia eskainiz **emakumezkoen ekintzailetzari** eta sektore hauetako ekintzailetzaren **estrategia eta programei**: nekazaritzako elikagaiak, IKT, merkataritza eta turismoa, kultura eta sormen industriak, etab.

### 4. Finantzaketa eta inbertsioa

- 🌀 1. Dagoeneko eskura dauden finantzaketarako eta inbertsiorako iturri eta mekanismo guztiak **ezagutzera ematea**, eta ekintzaileentzako **bermeak edo abalak** sustatzea, finantzaketa lortzea errazteko.
2. **Koinbertsio publiko-pribatua**, bereziki, potentzial eta inpaktu handiko proiektuetan, **“funtsen funtsak”-en** aldeko apustua, eta RIS3 eremuetan **espezializatutako funts eta kapital pribatuak** erakartzea.
- 🌀 3. Proiektuen finantzaketan eta inbertsioan **enpresa-ehunaren** parte-hartzea bultzatzea.
4. Euskadin inbertsioaren eta finantzaketaren **sektorea profesionalizatzea eta egituratzea**.

### 5. Merkatura sarbidea

1. Merkatura sartzeko eta **“lehenengo bezeroak” bilatzea** errazten duten mekanismoak finkatzea eta perfektionatzea, bereziki, RIS3 sektoreetan, eta **enpresa-ehunaren beharrak** ezagutzeko, ekintzailetzarako aukeren iturri gisa, edo bezeroen eta hornitzaileen arteko harreman-ereduak zabaltzea.
- 🌀 2. **Ekintzailetzari kolaboratiboa** sustatzea (langileen, ekintzaileen, enpresa berrien, enpresa sendoen... artean), merkatura sartzeko eta bertan mantentzea errazteko.
3. **RIS3 espezializazio adimenduneko** estrategiak babestea, enpresa berrientzako eskaria sortzeko dutelako.
- 🌀 4. **Ekintzaileen eta enpresari/zuzendari erretiratuen edo aurretik erretiratuen** inplikazioa, ekintzailetzari proiektuei merkatura sartzeko laguntzeko.

6. Laguntzarako prozesu,  
zerbitzu eta programak

1. **Instituzioen arteko koordinazioa** lurraldeko eta sektoreko maila guzietan, eta eragin hirukoitzaren eta lagundutako proiektuen trazabilitatearen ebaluazioak eta neurketak orokortzea.
2. Honakoak kudeatzea: **proiektu ekintzaileen txandatzea/heriotza**, herritar ekintzaileak berriro kokatzea eta aprobetxa daitezkeen gaitasunak.
3. **Startupe** "eskalatze" fasean laguntzea, merkatuan balidatutako soluzioen bidez, eta **"kultura industrialetik" urrun dauden proiektuei** ad hoc laguntzak ematea (adb., nekazaritzako elikagaien arloko berrikuntza, I+G arloko teknologia disruptiboak, marketplace edo e-commerce ereduak...)
4. **Programen eta laguntzen baldintzak malgutzera** (bereziki, hasierako faseetan) eta horiek ekintzailetzaren bilakaerari egokitzea (adb., startup kontzeptuaren bilakaera), eta ekintzailetzari **laguntzeko finantzaketa-testuinguruaren** egonkortasuna areagotzea.

7. Zerga-sistema eta  
araudi erraztaileak

1. Ekintzailetzarako beharrezkoak diren **berdintasuna, kohesioa eta segurtasuna izango dituen testuinguru** baten berme iraunkorra.
2. Ekintzailetzarako **zerga-sistemaren tresnak eguneratzea**, honakoak errazteko: proiektu berriak martxan jartzea, kapitala eta profesionalak erakartzea, talentu ekintzailea erakarri eta fidelizatzea (adb., *stock options, ESOPs, phantom shares*), hasierako faseak (adb., BEZa itzultzeko epeak) eta ontze geldoko proiektu/sektore motak laguntzea, etab.
3. **Ekintzailetzaren gaineko kompetentziei eta politikei** buruzko araudia bateratzea (Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legea, Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuaren Legearen aurreproiektua...), esaterako, hauei dagokienez: aholkularitza-puntuen (PAIT) koordinazio eraginkorra eta finantzaketa-eredua, eta jarduera hasteko tasa.
4. Pixkanaka **administrazioaren trabak** desagertzea: izapidetze telematikoa, prozesuak sinplifikatzea, epeak murriztea, BEZa itzultzea, etab.

8. Azpiegitura  
adimendunak

1. **Gutxiegia erabiltzen diren azpiegiturak aprobetxatzea**, haien arteko konexioa (eta haien proiektuak) sustatzea, eta azpiegitura publikoen **onarpen- erabilera- eta txandakatze-irizpideak** berrikustea.
2. Datozen urteetan ekosisteman **azpiegitura espezializatu berriak** txertatzea, modu harmonikoan (Europako funtsen bidez)
3. Hedadura handiko proiektuentzat eskuragarri eta irisgarri dagoen **lurzorua** handitzea eta honakoak sustatzea: **banda zabala eta abiadura handiko konektagarritasuna** -zentzuzko kostuarekin-, bulegoetako eta lurzoruko espazio eskuragarria, energiaren kostua eta kalitatea, edo logistikarako eta garraiorako kalitatezko azpiegiturak.

## 9. Ekosistema

1. **Ekosistemaren gobernantza-eredu** bat diseinatzea, koordinazioa, baliabideak ahalik eta gehien aprobetxatzea eta ereduaren beraren bilakaera ordenatua bermatuko dituen.
2. **Posizionamendua indartzea ekintzailetzarako lurralde erakargarri gisa**, eta "ekintzailetzarako ekosistema industrial-teknologiko erakargarri" gisa.
3. Euskal ekosistema **nazioartekotzea eta kanpoan ezagutzera ematea** (eragileak, jarduera...)
4. **Ekosistemari buruzko informazioaren kudeaketa aurreratua**: ekosistemaren egoera, eragileak, fluxuak eta jarduera, emaitzak eta inpaktuak, konexioak eta kolaborazioak... denbora errealean neurtzea eta horien mapak egitea.

### 3.3. Zer aukera identifikatu dira? Ekiteko arloak eta sektoreak

Gure gizarteak eta ekonomiak behar duten suspertzeari aurre egiteko, eragile guztiek bat egin behar dugu krisi orotan sortzen diren **aukera berriak** aprobetxatzeko, bereziki, EAEn egiteko ditugun **trantsizio berdeari, digitalari eta demografiko-sozialari** buruzko aukerak.

Euskadiko Lehiakortasunari buruzko 2020ko Txostenaren arabera, trantsizio hauen aurrean: *“EAE ez da hutsetik hasten, industriari, teknologian, berrikuntzan eta publiko-pribatu lankidetzan oinarritutako lurralde-estrategia eraiki baitu azken hamarkadetan; kluster politikan eta espezializazio adimendunaren estrategian (RIS3) islatu da apustu hori azken urteetan”*. Hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritzak otsailaren 23an onartutako EAEko RIS3 berriaren (ZTBP2030) oinarri teknologikoak **etorkizuneko lehentasunezko alor eta sektoreetara** hurbiltzen dira. Egungo ibilbidean, gaitasunetan eta eragileetan oinarrituta, datozen urteetan **EAEko ekintzailtza-aukeren “kala” nagusiak** izan behar dute alor eta sektore horiek.

#### Euskadin ekiteko lehentasunezko aukera-eremuak

LEHENTASUN ESTRATEGIKOAK									
INDUSTRIA ADIMENDUNA			ENERGIAGARBIAK		OSASUN PERTSONALIZATUA				
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Informazioaren eta prozesuen digitalizazioa</li> <li>- Produktu eta soluzio berriak</li> <li>- Negozio-eredu berriak</li> <li>- Estrategia eta antolaketa egokituak</li> </ul>			<b>Lehentasunezko kateak:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Olatuen energia</li> <li>- Eolikoa</li> <li>- Eguzkiaren energia termoelektrikoa</li> <li>- Eguzkiaren energia fotovoltaikoa</li> <li>- Oil&amp;Gas</li> <li>- Sare elektrikoak</li> <li>- Eraginkortasun energetikoa</li> <li>- Mugikortasun elektrikoak</li> </ul>		<b>Teknologia erraztaileak:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Biltegitratzea</li> <li>- Potentzia-elektronika</li> <li>- Materialak</li> <li>- Ekonomia zirkularra</li> <li>- Digitalizazioa</li> </ul>		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Diagnostiko eta tratamendu pertsonalizatua</li> <li>- Big data – datuen analisi aurreratua</li> <li>- Onkologia</li> <li>- Leheneratzeko medikuntza eta terapia aurreratua</li> <li>- Kardiometabolikoa</li> </ul>		
AUKERA NITXOAK				EGITASMO TRAKTOREAK					
ELIKADURA OSASUNTUA	EKOBERRIKUNTZA	HIRI JASANGARRIAK	INDUSTRIA SORTZAILEAK ETA KULTURALAK	ZAHARTZE OSASUNTUA	MUGIKORTASUN ELEKTRIKOA	EKONOMIA ZIRKULARRA			
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Dieta pertsonalizatua</li> <li>- Ekoizpen-sistema berriak</li> <li>- Garapen gastronomikoak (haurren eta seniorren kolektiboa)</li> <li>- Elikadura segurua eta kalitatezkoa</li> <li>- Prozesuen digitalizazioa</li> <li>- Kontsumo-joeretara egokitzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Produktuaren politika integratua</li> <li>- Erabilgarri dauden teknika onenak</li> <li>- Industriaren deskarbonizazioa</li> <li>- Egokitzapen klimatikorako irizpideak hiri-egituraren eta azpiegitura kritikoetan txertatzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Hirien biziberritzea</li> <li>- Integrazioa eta kohesio soziala, mendekotasuna eta zaintza.</li> <li>- Tokikoak lehentasuna</li> <li>- Eraikuntza jasangarria</li> <li>- Smart cities</li> <li>- Azpiegitura berdeak</li> <li>- Mugikortasuna</li> <li>- Ingurune naturalaren antolaketa</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Arte eszenikoak</li> <li>- Musika</li> <li>- Kultur-ondarea</li> <li>- Hizkuntzaren industriak</li> <li>- Artisautza</li> <li>- Bideo-jokoak</li> <li>- Ikus-entzunezkoak</li> <li>- Eduki digitalak</li> <li>- Diseinua</li> <li>- Arkitektura</li> <li>- Moda</li> <li>- Goi mailako gastronomia</li> <li>- Publizitatea eta marketina</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Osasun fisikoa, mentala eta soziala</li> <li>- RIS3 espezializazio eremuekin lotutako aukera, hala nola Osasun Pertsonalizatua, Elikadura Osasuntsua edo Zaintza Jasangarria.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ibilgailu elektrikoak txertatzea</li> <li>- Eraginkortasun energetikoa garraioan</li> <li>- Karga-puntuaren sarea</li> <li>- Ekipamendu elektrikoak eta elektronikoa</li> <li>- Osagaien garapena</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ekodiseinua</li> <li>- Birmanufaktura eta konponketa aurreratua</li> <li>- Iraunkortasun erako serbituzioa</li> <li>- Metal gakoaren xahutzearen murrizketa</li> <li>- Plastikoen kautxuak eta konpositeak</li> </ul>			
TEKNOLOGIA DIGITALAK edo BIRTUALAK				TEKNOLOGIA FISIKOAK, BIOLOGIKOAK, KIMIKOAK edo MATERIALENAK					
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Adimen Artifiziala eta Big Data/Datuen Zientzia platforms, Cloud computing.</li> <li>- Erabakiak hartzeko aurreikuspen-algoritmoak,</li> <li>- Machine learning, Data Analytics, Ikusmen artifiziala, Digital Twin</li> <li>- Gauzen Internet eta 5G Teknologiak</li> </ul>				<ul style="list-style-type: none"> <li>- IoT konektagarritasuna, Digital platforms, Cloud computing.</li> <li>- Zibersegurtasuna</li> <li>- BlockChain, Produktuen Zibersegurtasuna, Sareko Zibersegurtasuna.</li> <li>- Sistema Ziberfisikoak</li> <li>- Kontrolerako algoritmoak, Eragingailuak, Elektronika txertatua, Sentsorikoa eta Biosentsorikoa.</li> </ul>			<ul style="list-style-type: none"> <li>- Materialak eta Prozesuak</li> <li>- Material Aurreratuak eta Funtzionalak, 3D Inprimaketa, Fabrikazio Prozesuak, Robotika, Mikroelektronika.</li> <li>- Energia biltegitratzea</li> <li>- Teknologia berriak, Litio-ioia, hidrogenoaren biltegitratzea, power to gas eta sistema hibridoak harago.</li> <li>- Potentzia-elektronika</li> <li>- Bioteknologiak eta Genetika</li> <li>- Sistemen biologia, Kimika biologikoa, Teranostika, Zelula-terapiak</li> <li>- Nanoteknologiak</li> <li>- Nanoelektronika, Nanofotonika, Spintronika, Nanobioteknologia.</li> <li>- Teknologia kuantikoak eta Neutronika</li> <li>- Metrologia optiko-kuantikoa</li> </ul>		

Iturria: ZTBP 2030 eta Euskadiko Lehiakortasunari buruzko 2020ko Txostena

### 3.4. Nola egokitzen gara aldaketara? Adibidea: COVID-19ari emandako erantzuna

Azken hilabeteetan zehar **pandemiak indartu egin du ekosistemaren balioa**, eta agertoki konplexu eta ezeguzun batera **egokitzeko dugun gaitasuna** erakutsi du.

Instituzioak, enpresak, ekintzaileak eta eragile pribatuak elkarren artean koordinatu dira, denbora errekorrean, martxan zeuden proiektuen gaineko **krisiaren eraginak arintzeko**<sup>5</sup>, eta, aldi berean, garapen, produktu, zerbitzu eta pandemiak sortutako arazoentzako soluzio berrietan oinarritutako **proiektu berriei ekiteko**.

**Gure gizartearen erronkei aurre egiteko adimen kolektiboak duen boterea erakusten du horrek**, baita instituzioek oinarrizko baldintzak babesteko duten borondatea ere, ekintzaitza babesteko eta jarduera horretan dabilen pertsonen eta kolektiboekin bizirik irauten laguntzeko. Era berean, ekintzaitzaren txinpartak gure gizartearen piztuta jarraitzen duela erakusten du, eta momenturik zailenetan ere aktiba daitekeela.

#### Eukal enpresa, startup eta ezagutza-eragileak COVID-19aren aurrean

Azken hilabeteetan (batez ere, martxotik ekainera) COVID-19aren aurka borroka egiteko negozio-ildo, soluzio, produktu eta zerbitzu berriak diseinatu eta martxan jarri dituzten, eta, hala, egokitzeko eta ekiteko gaitasuna dutela erakutsi duten finkatutako enpresen, startupen eta ezagutza-eragileen lagina.

#### Enpresak eta startupak:



#### Ezagutza-eragileak



Iturria: EEP 2020ren 2019ko balantze-txostenean jasotako laburpena. 2020ko ekaineko datuak, SPRI, BRTA eta Basque Health Clusterren informaziotik abiatuta.

Datozen urteetan **adibide hauek ugaritzen laguntzeko** baldintzak jartzen jarraitzea da gure zeregina, ekosistema gisa.

Eta honakoak elkartzea: arintzeko neurriak eta bizirauteko laguntza (pandemiak irauten duen artean); arrakasta dutela erakutsi duten programen jarraipena eta eguneratzea; eta suspertzeari laguntzen dioten, **etorkizuneko alorretan sortzen diren aukerak** aprobetxatzen dituzten (ikus hurrengo orrialdea) eta krisi berri posibleei aurre hartzeko eta haietara egokitzeko gaitasuna dutela bermatzen duten plan, programa, prozesu eta proiektu berri ekintzaileen aldeko apustua.

<sup>5</sup> Pandemia hasi zenetik, EAEko instituzioek malgutu egin dituzte ekintzaitzari laguntzeko programa irekien baldintzak, eta, aldi berean, programa eta egitasmo berriak abiatu dituzte, martxan zeuden proiektuen iraunkortasuna sostengatzeko eta mota eta etapa orotako ekintzaitza sustatzen jarraitzeko. Adibide gisa, Eusko Jaurlaritzak 725,5 milioi euro eman dizkie 2020an zehar enpresei eta autonomoei, maileguz abal gisa (8.313 eskaera onartuta, Elkargiren bidez), COVID-19aren ondorioak arintzeko. Horietatik 3,4 milioi OTEBB enpresei zuzenduta. Iturria: Eusko Jaurlaritzak, SPRI eta Gantzia.



## 4. Erakundearteko konpromisoa: EEP 2021-2024

### 4.1. Zer da EEP 2024? Gure balio-proposamena

Izapide azkarak	<i>Ekintzailetzarekin lotutako administrazio-prozesuak azkartzea, oztopo posibleak kenduz eta honakoak bultzatuz: izapidetze telematikoa, prozesuak eta hizkuntza sinplifikatzea eta malgutzea, edo epeak hobetzea, besteren artean.</i>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Aholkularitza Emateko eta Izapideak Hasteko Puntuak (PAIT), Leihatila Bakarra eta Ekintzaileentzako Arreta Puntuak (PAE)</b></li> </ul>	<i>Ekintzaileentzako sarbide-puntuen sarea, informazioa eta hasierako laguntza (orientabidea, prestakuntza, aholkularitza, laguntza).</i>	<i>Foru-aldundiak, hauen bidez: BICak, udalak, merkataritza-ganberak, autoenplegurako sarbide-puntuen sarea eta Lanbide Heziketako Tknika sarea. Eta Industria, Energia eta Turismo Ministerioarekin lankidetzan</i>
		<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Izapidetze elektronikoa</b></li> </ul>		<i>Enpresa bat eratzeko izapidetze elektronikoa</i>

### Ekintzailetzari laguntzeko EAEko programa eta zerbitzu publikoen mapa sintetikoa (zehatzago, 1. eranskinen)



4.7.7. Zerga-sistema eta araudi erraztaileak

**Helburua:** Zerga-sistemaren eta araudiaren tresnak eguneratzea, ekintzailetzaren aldeko zerga-sistemaren eta araudiaren garapenean Euskadi erreferentea izan dadin, Kontzertu Ekonomikoa izanik araudia garatzeko eta zergak biltzeko oinarritzko testuingurua.

Lerroa	Lerroaren helburua	Ekintza nabarmenak	Deskribapena	Eragile sustatzaileak eta laguntzaileak
Zerga-sistema, ekintzailetzaren zerbitzura	Aukerak arakatzen eta ekintzailetzari laguntzeko zerga-sistemaren tresnak etengabe eguneratzen laguntzea, ekintzailetzaren oztopoak ezabatu eta arriskuak gutxitzeko; eta euskal ekintzailetzaren ekosistemaren filosofiarekin eta kulturarekin koherenteak diren jokoerak saritzea, erakundeen arteko lankidetzaren eta koordinazioaren bidez	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Ekintzailetzari laguntzeko neurri fiskalak</b></li> </ul>	<i>Ekintzailetzari laguntzeko indarrean dauden zerga-neurrien zaintza (ikus hurrengo orrialdea), eta egitasmo berriak diseinu-prozesuan foru-aldundietan.</i>	Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailarekin lankidetzan, Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoaren baitan
		<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Indarrean dauden neurri fiskalen konparaziozko ikerketa</b></li> </ul>	<i>Ekintzailetzari laguntzeko Euskadiko Ogasunetara indarrean dituzten neurri fiskalen konparaziozko ikerketa, Lurralde Historikoen arteko konparazioa eginez eta beste errealitate batzuekin alderatuz (Nafarroa eta Estatuak), eta neurri horien eraginez Euskadiko Ogasunetara izandako inpaktu ekonomikoaren kalkulua.</i>	
		<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Aukera fiskal berrien azterketa</b></li> </ul>	<i>Fiskalitatearen gaineko aukera berriak arakatzea etengabe, bai enpresa berriei dagokienez, bai start-upen inbertsioei dagokienez ere, helburu hauekin: jarduera honen erakargarritasuna areagotzeko, alde ezberdinek izan ditzaketen oztopoak ezabatzeko eta Euskadi eta bertako lurralde historikoak fiskalitate gaitan erreferenteak izan daitezen.</i>	
		<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Txosten fiskalak egitea</b></li> </ul>	<i>Txosten fiskalak egitea, I+G+b eta 64 BIS kenkariarentzat</i>	
Araudia eguneratzea	Legedia aurreratua sustatzea, ekintzailetzarako oztopoak ezabatuko dituen eta aukera-nitxo berriak agertzea erraztuko duena etorkizuneko sektoreetan, hala nola fabrikazio aurreratuan, energia berriztagarrietan, garraioan eta mugikortasun jasangarrian, beste batzuen artean.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Ekintzailetzaren Foru Araua</b></li> </ul>	<i>Ekintzailetza sustatzeko foru-arau berria</i>	Gipuzkoako Foru Aldundia
		<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Euskal Enplegu Zerbitzuaren Legea (izapidetze-prozesuan)</b></li> </ul>	<i>Euskal Enplegu Sistema arautzea eta ordenatzea helburu duen legea. Lanbidek, eredu berriaren ardatza izanik, lan-merkaturako orientazioa indartuko du, eta gehiago zentratuko da enpresa eta pertsonengan, enplegarritasuna hobetzeko eta enplegua sortzeko egiten duen ekarpena handitzeko helburuz.</i>	Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Saila
		<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Euskadiko Lanbide Heziketako Legea</b></li> </ul>	<i>Ekintzailetzaren gaineko prestakuntza-eskaintza egonkorraren alde egiten duen legea, hezkuntzako etapa guztietan sakontzen duena eta enpresariak ekintzailetza-programetan txertatzen dituena.</i>	Lanbide Heziketa Sailburuordetza - Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila
		<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Kooperatiben Euskal Legea</b></li> </ul>	<i>Kooperatiben bidez EAEko botere publikoak jardura ekonomikoak garatzea sustatuko duten ingurune sozialen eta ekonomikoen alde egingo duela adierazten duen legea.</i>	Gizarte Ekonomia Zuzendaritza - Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Saila
		<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>I+G+b emaitzak ustiatzeko araudia</b></li> </ul>	<i>Osasun-sisteman I+G+b emaitzak ustiatzeko araudi orokorra.</i>	Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila



## Ekintzaitzari laguntzeko neurri fiskalak, EUSKADIn aplikagarriak (2020)

Zerga	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
<b>PFEZ</b>	<p><b>Azaroaren 27ko 33/2013 FORU ARAUA</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>9.13. artikulua. Langabezia-prestazioaren salbuespena ordainketa bakarraren modalitatean.</li> </ul> <p>III. KAPITULUA. JARDUERA EKONOMIKOEN ETEKINAK</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>25.5. artikulua. Etekin garbia kalkulatzeko arau orokorrak Jarduera ekonomikoaren etekin garbi positiboaren % 10eko murrizketa jarduera hasteko.</li> </ul> <p>ERREGIMEN BEREZIAK</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>56 ter artikulua Ekintzaitzarekin, berrikuntzarekin eta jarduera ekonomikoa garatzarekin lotutako funtsak kudeatzearen ondorioz lortutako lan-etekinenzako zerga-ordainketarako erregimen berezia.</li> </ul> <p>V. KAPITULUA. JARDUERA EKONOMIKOAK SUSTATZEKO KENKARIAK</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>89 bis artikulua Langileek entitateak eratzegatiko kenkaria.</li> <li>90. artikulua. Mikroenpresetan, sortu berri diren enpresa txiki edo ertainetan edo enpresa berritzaileetan inbertitzeagatiko kenkaria.</li> <li>90 bis artikulua Jarduera ekonomikoa hasteagatiko kenkaria.</li> <li>90 ter artikulua Berrikuntza bultzatzeko Europako funtsetan inbertitzeagatiko kenkaria.</li> <li>90 quater artikulua Langileek entitateak eratzegatiko kenkaria.</li> </ul> <p><b>Abuztuaren 1eko 40/2014 FORU DEKRETUA</b> JARDUERA EKONOMIKOEN ETEKINAK</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>92. artikulua. Jarduera hasten duten jarduera ekonomikoaren etekin gaineke atxikipenen zenbatekoa murriztea.</li> </ul>	<p><b>Abenduaren 5eko 13/2013 FORU ARAUA</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>9.13. artikulua. Langabezia-prestazioaren salbuespena ordainketa bakarraren modalitatean.</li> </ul> <p>III. KAPITULUA. JARDUERA EKONOMIKOEN ETEKINAK</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>25.5. artikulua. Etekin garbia kalkulatzeko arau orokorrak Jarduera ekonomikoaren etekin garbi positiboaren % 10eko murrizketa jarduera hasteko.</li> </ul> <p>ERREGIMEN BEREZIAK</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>56 ter artikulua Ekintzaitzarekin, berrikuntzarekin eta jarduera ekonomikoa garatzarekin lotutako funtsak kudeatzearen ondorioz lortutako lan-etekinenzako zerga-ordainketarako erregimen berezia.</li> </ul> <p>V. KAPITULUA. JARDUERA EKONOMIKOAK SUSTATZEKO KENKARIAK</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>90. artikulua. Mikroenpresetan, sortu berri diren enpresa txiki edo ertainetan edo enpresa berritzaileetan inbertitzeagatiko kenkaria.</li> <li>90 bis artikulua Berrikuntza bultzatzeko Europako funtsetan inbertitzeagatiko kenkaria.</li> </ul> <p><b>Apirilaren 8ko 47/2014 FORU DEKRETUA</b> JARDUERA EKONOMIKOEN ETEKINAK</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>94. artikulua. Jarduera hasten duten jarduera ekonomikoaren etekin gaineke atxikipenen zenbatekoa murriztea.</li> </ul>	<p><b>Urtarrilaren 17ko 3/2014 FORU ARAUA</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>9.13. artikulua. Langabezia-prestazioaren salbuespena ordainketa bakarrean.</li> </ul> <p>III. KAPITULUA. JARDUERA EKONOMIKOEN ETEKINAK</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>25.5. artikulua. Etekin garbia kalkulatzeko arau orokorrak. Jarduera ekonomikoaren etekin garbi positiboaren % 10eko murrizketa jarduera hasteko.</li> </ul> <p>3. SEKZIOA. KAPITAL HIGIGARRIAREN ETEKINAK</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>34.f) artikulua. Eskubide ekonomiko bereziak gauzatzeko jasotako zenbatekoak. Sozietateen Gaineke Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren VI. tituluko IV. kapituluan ezarritako erregimen berezia aplikatu dakiekeen sozietateetatik eta arrisku-kapitaleko funtsetatik zuzenean edo zeharka datozenak.</li> </ul> <p>V. KAPITULUA. JARDUERA EKONOMIKOAK SUSTATZEKO KENKARIAK</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>89 bis artikulua Enpresa berrietan edo duela gutxi sortutako enpresetan inbertitzeagatiko kenkaria.</li> <li>89 ter artikulua Hazteko potentzial handia duten erakundeak finantzatzegatiko kenkaria.</li> <li>89 quater artikulua Langileek entitateak eratzegatiko kenkaria.</li> </ul> <p><b>Urriaren 14ko 33/2014 FORU DEKRETUA</b> JARDUERA EKONOMIKOEN ETEKINAK</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>108. artikulua. Jarduera hasten duten jarduera ekonomikoaren etekin gaineke atxikipenen zenbatekoa murriztea.</li> </ul>
<b>Sozietateen Gaineke Zerga</b>	<p><b>Abenduaren 13ko 37/2013 FORU ARAUA</b> III. KAPITULUA. ZUZENKETAK GASTUETAN</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>32.4 artikulua. Zerga-konpentsazioa mikroenpresetan.</li> </ul> <p>V. KAPITULUA. EMAITZAREN APLIKAZIOAREN ZUZENKETAK</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>53. artikulua. Erreserba berezia ekintzaitza sustatzeko eta ekoizpen-jarduera indartzeko.</li> </ul>	<p><b>Abenduaren 5eko 11/2013 FORU ARAUA</b> III. KAPITULUA. ZUZENKETAK GASTUETAN</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>32.4 artikulua. Zerga-konpentsazioa mikroenpresetan.</li> </ul> <p>V. KAPITULUA. EMAITZAREN APLIKAZIOAREN ZUZENKETAK</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>53. artikulua. Erreserba berezia ekintzaitza sustatzeko eta ekoizpen-jarduera indartzeko.</li> </ul>	<p><b>Urtarrilaren 17ko 2/2014 FORU ARAUA</b> III. KAPITULUA. ZUZENKETAK GASTUETAN</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>32.4 artikulua. Zerga-konpentsazioa mikroenpresetan.</li> </ul> <p>V. KAPITULUA. EMAITZAREN APLIKAZIOAREN ZUZENKETAK</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>53. artikulua. Erreserba berezia ekintzaitza sustatzeko eta ekoizpen-jarduera indartzeko.</li> </ul>
<b>PFEZ / Sozietateen Gaineke Zerga</b>	<p><b>Azaroaren 27ko 33/2013 FORU ARAUA</b> <b>Abenduaren 13ko 37/2013 FORU ARAUA</b> III KAPITULUA. BESTE KENKARI BATZUK</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>64 bis artikulua Ikerketa eta garapeneko edo berrikuntza teknologikoko proiektuetan parte hartzea</li> </ul>	<p><b>Abenduaren 5eko 13/2013 FORU ARAUA</b> <b>Abenduaren 5eko 11/2013 FORU ARAUA</b> III KAPITULUA. BESTE KENKARI BATZUK</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>64 bis artikulua Ikerketa eta garapeneko edo berrikuntza teknologikoko proiektuetan parte hartzea.</li> </ul>	<p><b>Urtarrilaren 17ko 3/2014 FORU ARAUA</b> <b>Urtarrilaren 17ko 2/2014 FORU ARAUA</b> III KAPITULUA. BESTE KENKARI BATZUK</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>64 bis artikulua Ikerketa eta garapeneko edo berrikuntza teknologikoko proiektuetan parte hartzea.</li> </ul>
<b>IP</b>	<p><b>Matxoaren 11ko 9/2013 FORU ARAUA</b> II. KAPITULUA. ZERGA EGITATEA</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>5. artikulua Hamar. Salbuetsitako ondasunak eta eskubideak. Mikroenpresetako, sortu berri diren enpresa txiki edo ertainetako edo enpresa berritzaileetako akzioen eta partaidetzen salbuespena.</li> <li>5. artikulua Hamahiru eta Hamalau. Salbuetsitako ondasunak eta eskubideak. Berrikuntza bultzatzeko, jarduera ekonomikoa finantzatzeko eta ekoizpenaren kapitalizaziorako Europako Funtsetako partaidetzak.</li> </ul>	<p><b>Otsailaren 27ko 2/2013 FORU ARAUA</b> II. KAPITULUA. ZERGA EGITATEA</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>5. artikulua Hamar. Salbuetsitako ondasunak eta eskubideak. Mikroenpresetako, sortu berri diren enpresa txiki edo ertainetako edo enpresa berritzaileetako akzioen eta partaidetzen salbuespena.</li> <li>5. artikulua Hamabi eta Hamahiru. Salbuetsitako ondasunak eta eskubideak. Berrikuntza bultzatzeko, jarduera ekonomikoa finantzatzeko eta ekoizpenaren kapitalizaziorako Europako Funtsetako partaidetzak.</li> </ul>	<p><b>Ekainaren 11ko 2/2018 FORU ARAUA.</b> II. KAPITULUA. ZERGA EGITATEA</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>5. artikulua Hamar. Salbuetsitako ondasunak eta eskubideak. Mikroenpresetako, sortu berri diren enpresa txiki edo ertainetako edo enpresa berritzaileetako akzioen eta partaidetzen salbuespena.</li> </ul>
<b>EJZ</b>	<p><b>UZTAILAREN 19KO 43/1989 FORU ARAUA, JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGARI BURUZKOA</b> IV. KAPITULUA. ZERGA KUOTA</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>11.1b) artikulua. Dagokion kuotaren % 50 arteko hobaria, edozein jarduera ekonomiko hasten dutenentzat.</li> </ul>	<p><b>Martxoaren 17ko 2/1992 Foru Dekretu Arauemaile, ekainaren 30eko 6/1989 Foru Arauaren testu bategina onartzen duena</b> IV. KAPITULUA. ZERGA KUOTA</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>11.1b) artikulua. Dagokion kuotaren % 50 arteko hobaria, edozein jarduera ekonomiko hasten dutenentzat.</li> </ul>	<p><b>Apirilaren 20ko 1/1993 FORU DEKRETU ARAUEMAILEA, jarduera ekonomikoaren gaineke zergaren testu bategina onartzen duena</b> IV. KAPITULUA. ZERGA KUOTA</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>11.1b) artikulua. Dagokion kuotaren % 50 arteko hobaria, edozein jarduera ekonomiko hasten dutenentzat.</li> </ul>

4.7.8. Azpiegitura adimendunak

**Helburua:** Proiektu berriak jaiotzen, ontzen, hazten eta finkatzen lagunduko duten azpiegitura espezializatuak eta konektatuak izatea.

Lerroa	Lerroaren helburua	Ekintza nabarmenak	Deskribapena	Eragile sustatzaileak eta laguntzaileak
Egungo parkearen kudeaketa aktiboa	<i>Eskura dauden azpiegituren parkearen kudeaketa aktiboa egitea, ahalik eta gehien aprobetxatzea eta hauen arteko konexioa erraztuz: azpiegiturak, kudeatzaileak eta "egoiliarak"</i>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Azpiegituren mapa eta bistaratzea</b></li> </ul>	<i>Udalerrian, eskualdean, lurraldean eta EAEn eskuragarri dauden ekintzaitzari laguntzeko azpiegituren parkearen mapa egitea eta bistaratzea (inkubategi espezializatuak, herri mailako eta eskualdeko haztegiak, zientzia eta teknologia parkeak eta industrialdeak, besteak beste).</i>	<i>SPRI, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila, foru-aldundiak, udalak eta garapen-agentziak, eta laguntzarako azpiegituren jabeak edo finantzatzaileak diren beste eragile batzuk</i>
Proiektu berrientzako azpiegitura adimendunak	<i>Proiektu ekintzaileen inkubazioa, ontzea eta azelerazioa erraztuko duten azpiegitura espezializatuen sare bat izatea, emandako balio erantsiaren, lankidetzaren eta eraginkortasunaren irizpideekin bat eginez.</i>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Mikroekintzaitzari laguntzeko sarea</b></li> </ul>	<i>Mikroekintzaitzari proiektuei laguntza eta aholkularitza emateko azpiegituren sarea</i>	<i>Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak, udalak eta garapen-agentziak</i>
		<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>OTEBB espezializatutako inkubategien sarea</b></li> </ul>	<i>RIS3 sektoreetan OTEBBei laguntza ematen espezializatutako inkubategien sarea: BEAZ-BIZ Bizkaia eta BIC Bizkaia Ezkerraldea, BIC Gipuzkoa eta BIC Araba.</i>	<i>Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila eta SPRI</i>
		<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Unibertsitateko Inkubategien sarea, ZTB eragileekin</b></li> </ul>	<i>OTEBBei laguntzeko inkubategi espezializatuen sarea, unibertsitateen programen bidez eta ZTB erakundeekin lankidetzan.</i>	<i>Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak, EHU, Deustu, Mondragon, Parkea eta ZTBES</i>
		<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Lab eta zentro espezializatuen udalerrri mailako sarea</b></li> </ul>	<i>Espazio, lab eta zentro espezializatuak, hala nola Fintech Open Innovation Lab, Innolab Bilbao, Auzofactory zentroen sarea, As Fabrik (Startup), Enertic y Pia, Talent House, Irun Factory, etab.</i>	<i>BEAZ, Bilboko Udala (Bilbao Ekintza), Donostiako Sustapena, Goieki, Bidasoa Bizirik, eta abar, eta egitasmo bakoitzaren bazkide estrategikoak (publikoak eta pribatuak)</i>
		<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Inkubategiak, azeleratzaileak eta beste espazio pribatu batzuk</b></li> </ul>	<i>Inkubategiak, azeleratzaileak, venture builders eta potentziala duten proiektu berritzaileak eta teknologikoak babesteko beste espazio pribatu batzuk, inbertitzaileen eta esperientziadun mentoreen kolektiboek bultzatuak.</i>	<i>Metxa, Berriup, Innovae, INIT, Izertis, Senda 15, Conteneo, Dotakon Impact, beste batzuen artean</i>
Azpiegitura espezializatu berriak	<i>Aparteko azpiegitura espezializatu berrien alde egitea eta hedadura handiko proiektu berriek lurzoru eskuragarria eta irisgarria lortzeko dituzten gabeziak arintzea.</i>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Ekintzaitzarako nazioarteko zentroa</b></li> </ul>	<i>Startup berritzaile berriak kokatzeko, giza kapitala prestatzeko, kokatutako enpresen azelerazioa bultzatzeko eta ekintzaitzaren kultura sustatzeko espazioa</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia, BEAZ eta Bilboko Udala</i>
		<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Espazio berriak</b></li> </ul>	<i>Udalerrri mailako espazio, zentro, haztegi... berri espezializatuak eta/edo sektorekoak, publiko-pribatu izaera dutenak, hala nola Garaia-Lan, NBF, Hub Deporte Getxo...</i>	<i>Udalak eta garapen-agentziak, foru-aldundiak, Eusko Jaurlaritza eta eragile pribatuak, adibidez, Mondragon</i>
Oinarritzako azpiegitura fisikoa	<i>Azpiegitura fisikoen parke osoa sustatzea, zentuzko kostuan (banda zabal, bulegoak eta lurzorua, energia, azpiegitura logistikoak eta garraio-azpiegiturak).</i>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Banda zabal ultraazkarra</b></li> </ul>	<i>Enpresa-poligonoetan banda zabal ultraazkarra hedatzea.</i>	<i>Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila eta SPRI</i>

## 4.7.9. Ekosistema

**Helburua:** Euskadiko herritarren artean eta nazioartean ekintzailtzaren zerbitzura dagoen ekosistema erakargarri eta dinamiko gisa posizionatzea, ekosistema osatzen duten eragile publikoen eta pribatuen arteko lankidetzari eta talde-lanari esker.

Lerroa	Lerroaren helburua	Ekintza nabarmenak	Deskribapena	Eragile sustatzailea eta laguntzaileak
Ekosistema sustatzea eta bistaratzea	EAE ekiteko ekosistema industria-teknologiko erakargarri gisa sustatzea, euskal ekintzailtza-eredua definitzen duten ezaugarriak eta lehiakortasun-abantailak ezagutzera emanez, bai EAEn, bai kanpoan.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Basque Industry 4.0</b></li> </ul>	<i>Ekintzailtzari buruzko kongresuak eta nazioarteko programak indartzea, ekintzailtzaren euskal ekosistema sustatzeko bitarteko gisa.</i>	SPRI, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila
		<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>BIND 4.0</b></li> </ul>		
		<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Ekintzailtzarako nazioarteko zentroa</b></li> </ul>	<i>Gure ekosistemari nazioartean posizionatzen lagunduko dion ekintzailtza-zentroa</i>	Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Saila, BEAZ eta Bilboko Udala
		<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Ekosistema ekintzailea</b></li> </ul>	<i>Ekintzailtzaren ekosistema, haren barneko harremanak eta haren ikusgarritasuna eta balio soziala indartzeko helburua duten egitasmoei laguntzea</i>	Gipuzkoako Foru Aldundia, Amurrio Bidean, Debegesa, Lea Artibai Garapen Agentzia
		<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Startupen nazioarteko sustapena</b></li> </ul>	<i>Donostiako startupak ezagutzera emateko eta sustatzeko ekintzak (misioak, azokak, EB proiektuak...)</i>	Donostiako Sustapena
Nazioarteko konexioa	Euskadiko ekosistema nazioarteko erreferentziatzeko beste ingurune, eragile eta ekintzailtza-zentro batzuekin konektatzea, irekiera, jardueren konparaketa eta etengabeko ikaskuntza sustatzeko, eta dinamika endogamiko posibleak arintzeko.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Lankidetzaren beste ekosistema batzuekin</b></li> </ul>	<i>OTEBB ekintzailtzaren eremuan erreferenteak diren nazioarteko ekosistema eta eragileekin lankidetzaren sustapena.</i>	Bizkaiko Foru Aldundia
		<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Lankidetzaren SOSA eta CICekin</b></li> </ul>		Bizkaiko Foru Aldundia, BEAZ eta Bilboko Udala
		<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Ekintzailtzarako nazioarteko zentroa</b></li> </ul>		Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila eta SPRI
		<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>BIND 4.0</b></li> </ul>		
Ekosistemaren gobernantza	Ekintzailtzaren euskal ekosistemaren, haren errealitatearen eta haren bilakaeraren gobernu onaren, informazio-gardentasunaren eta kudeaketa aurreratuaren (hausnarketa, plangintza, ebaluazioa...) eta azkarraren printzipioak sendotzea	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Ekintzailtzaren bilakaeraren azterketa - GEM Euskadi</b></li> </ul>	<i>Lankidetzaren ekintzailtzaren azterketa.</i>	Eusko Jaurlaritzaren eta foru-aldundiaren eta Euskal Ekintzailtzaren Behatokia, EEB
		<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Euskal ekosistemaren aholkularitza-kontseilua</b></li> </ul>	<i>Ekintzailtzaren euskal ekosistemaren aholkularitza-kontseilu publiko-privatu bat instituzionalizatzea, ekintzailtza-ekosistemaren egoeraren eta etorkizunaren gaineko interakzioarako eta hausnarketarako foro gisa</i>	2024ko EEPren Ekintzailtzaren Erakundearteko Mahaia
		<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Euskadiko startupen ekosistemaren mapa</b></li> </ul>	<i>Startupen ekosistemaren une bakoitzeko errealitatearen eta bilakaeraren gaineko informazioa aztertzea, mapa egitea eta aktiboki kudeatzea</i>	Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila eta SPRI

## 4.8. Nola lan egiten dugu elkarrekin? Proiektuak lankidetzan

Ekintzailtzaren zeharkakotasuna, EAEko konpetentzien banaketa eta plan honen izaera propioa kontuan izanda, sustatzen dugun eragileon arteko **lankidetzan oinarritutako plana** da EEP 2024, eta, orokorrean, ekintzailtzaren euskal ekosistema osatzen dugunon arteko lankidetzan oinarritua.

Azpiko koadroan ageri den bezala, instituzio publikoek **776 ekintza** dituzte ekintzailtzari laguntzeko, eta horietatik % **87** bi sailen, instituzioren edo eragileren edo gehiagoren arteko akordioen bidez egiten dira, ekintzak diseinatzeko, finantzatzeko, gauzatzeko eta/edo ebaluatzeko. Hortaz, plan hau **publiko-publiko eta publiko-pribatu lankidetzaren esparru erreala** dela uste dugu, ekintzaileen beharrei erantzutera bideratua.

### EEP 2024ren lankidetzak-ekintzak

Lankidetzak mota	EEP 2024ren ARDATZAK									
	Ekintzailtzaren kultura eta balioak	Giza kapitala	Ekintzailtzarako iturrak eta ideak	Finantzaketa eta inbertsioa eskuratzea	Merkaturako sarbidea	Laguntzarako prozesu, zerbitzu eta programak	Zerga-sistema eta araudi erraztaileak	Azpiegitura adimendunak	Ekosistema	GUZTIRA*
Sailartekoa	1	0	2	5	4	5	0	0	1	18
Erakundeartekoa	36	29	27	11	8	23	3	9	26	172
Publiko-Pribatua	15	13	20	12	4	10	0	2	17	93
Nazioartekoa	2	5	2	1	0	1	0	0	5	16
Lankidetzarik gabe	15	23	19	13	7	14	4	0	9	62
<b>EKINTZAK GUZTIRA</b>	<b>69</b>	<b>70</b>	<b>70</b>	<b>42</b>	<b>23</b>	<b>53</b>	<b>7</b>	<b>11</b>	<b>58</b>	<b>470</b>
<b>LANKIDETZAN EGINDAKO EKINTZEN % / TOTALA</b>	<b>% 78</b>	<b>% 67</b>	<b>% 73</b>	<b>% 69</b>	<b>% 70</b>	<b>% 74</b>	<b>% 43</b>	<b>% 100</b>	<b>% 84</b>	<b>% 87</b>

\* Ekintza bat lankidetzak mota batean edo gehiagotan kokatu daiteke.

Oharra: udalei eta garapen-agentziei dagozkien ekintzak ez daude zenbatuta taula honetan. Gehienak lankidetzan garatutako ekintzak dira, baina ez dugu ekintza bakoitzaren gaineko informazio xeherik.

Gainera, lankidetzak-dinamika hau ahalik eta gehien aprobetxatzeko eta hedatzeko, EEP 2024ren eragile sustatzaileok konpromisoa hartzen dugu **baterako proiektu posible berri gehiago** martxan jartzeko; plan hau egiteko prozesuan zehar jasotako hausnarketetan eta ekarpenetan oinarrituta sortuko dira proiektu horiek. Honakoak dira proiektu horiek:

- Euskal ekosistemaren aholkularitza-kontseilua:

Plan honen testuinguruan, ekintzailtzaren euskal ekosistemaren aholkularitza-kontseilu publiko-pribatu bat instituzionalizatzea proposatzen da. Ekintzailtzaren ekosistemaren egoerari eta etorkizunari buruzko interakziorako eta hausnarketarako foro azkar eta egonkor bat izango litzateke.

Ejk gidatuko luke, eta instituzioen, eragile pribatuen eta gizarte zibilaren partaidetza izango luke, ekintzailtzaren euskal ekosistemaren ordezkari gisa. Eragile parte-hartzaileen ordezkari bermatuko duten formulak bilatuko dira, gutxiengoak diren eragileen ekarpenen freskotasuna eta balioa ahaztu gabe.

- Euskal ekosistemaren mapa:

Euskal instituzioak bereziki aktiboak dira ekintzailtzaren alorrean. Hala ere, ekintza publikoak askotan ez du izaten ekosistemaren eta haren bilakaeraren ikuspegi globala izatea errazten duen tresnarik, ezta martxan jarritako politiken inpaktu erreala bistaratzeko tresnarik ere.

Inplikaturako eragileak hainbeste izanik, eta oso sektore berria eta dinamikoa izanik, ez dago apenaz datu historikorik eta datu horiek ez dira aplikagarriak izaten testuinguru ezberdinetan. Ekintzailtzaren euskal ekosistemaren egoeraren eta bilakaeraren ikuspegi kuantitatiboa eta kualitatiboa eskainiko luke proiektu honek, hauen ikuspegi xehearen bidez: startupak, ekintzaileak, eragilerik aktiboenak, inbertsio-erronda nagusienak, jarduera handieneko sektoreak, protagonisten pertzepzioa, etab. Balioa eman nahi die ekosistema osatzen duten eragile ezberdinei, eta Euskadiren posizionamendurako estrategia bateratu bat bultzatu nahi du, ekintzailtza teknologiko aurreratuaren hub gisa posizionatzeko.

- Euskal ekosistemaren bilakaeraren adierazlea:

Kasu honetan, urtero ekintzailtzaren euskal ekosistemaren bilakaera ebaluatuko duen adierazle sintetiko bat diseinatzeko aukera proposatzen du EEP 2024ek, planeko eragile guztientzat erreferentzia gisa balioko duena. EAeko ekintzailtzaren jardueraren, emaitzen eta inpaktuaren adierazle nagusiak jasoko dituen aginte-koadro integral eta berri batean oinarrituta eraikiko dute adierazle berria.

Lan-taldeek baitan azken urteetan Erakundearteko Mahaiak bultzatutako lan tekniko eta kolaboratiboari jarraipena eman nahi dio proiektu berri honek, ekintzailtza-planarekin lotutako adierazleen aginte-koadroa periodikoki eguneratzeko.

Adierazle sintetikoa bera sortzeaz gain, hainbat hobekuntza izango ditu berrikuspen eta eguneraketa berri honek: eragile publikoen eta pribatuen datuak integratzea; sektore edo jarduera alor ezberdinetako datuak integratzea (osasungintza, gizartea, nekazaritzako elikagaiak, etab.); inpaktuaren neurketa hedatzea eta gizarte- eta ingurumen-ikuspegia txertatzea (jasangarritasun hirukoitza); Nazio Batuen Erakundearen GJHei egindako ekarpenaren neurketa txertatzea; hartutako arrisku mailaren (adb., inbertitutako kapital pribatua), talde sustatzailearen edo proiektu berri baten disruptzio-gaitasunaren gaineko adierazleak txertatzea; politiken eta lotura duten programa publikoen ebaluazioa hedatzea, etab.

## 5. Ekintza-plana eta gobernantza-eredua

### 5.1. Ekintzak eta aurrekontua

#### a) Ekintzak


Ekintzaitzari laguntzeko 776 ekintza jasotzen ditu EEP 2024ek, eta ekintza horiek 2021-2024 aldian garatzeko asmoa dugu EAeko eragile publiko eta pribatuok. A1 eranskinean xehetasunez jasota dago.

#### b) Aurrekontua

Planaren 2021eko aurrekontua 70,23 M€-koa da (2020koa baino % 22 handiagoa). Planaren sustatzaileak diren eragile publikoek ekintzaitzari laguntzeko bideratutako aurrekontu arrunten baturatik lortzen da zifra hori.

#### Ekintzaitzari laguntzeko aurrekontua

2017-2020 bilakaera\*, 2021erako onartutako aurrekontua ardatzen eta ekintzaitza motaren arabera xehatuta (M €)



Oharrak: 2021eko aurrekontuaren zutabeek ez dituzte barne hartzen ekintzaitzari laguntzeko udal-aurrekontuaren 3,33 M €-ak. EEP 2020ren aurrekontua berriro kalkulatu dugu, enpresen lehiakortasunari laguntzeko programa jakin batzuk deskontatuta.

Gainera, EAEk 33 milioi €-ko gastu fiskala izan zuen 2018an. Euskadiko Foru Ogasunek, Lurralde Historikoen erakunde eskudunekin adostuta, PFEZen eta Sozietateen Gaineko Zergan aplikatzen dituzten ekintzaitzarekin lotutako kenkariei, salbuespenei eta ekintzaitzaren pizgarriekin lotutako gainerako zerga-neurriei dagokie gastu hori<sup>6</sup>.

2024 EEP-ren aurrekontua, euskal administrazio publikoen aurrekontu esparruarengatik baldintzatutako aurrekontua da. Etorkizunera begira, pareko garapena aurreikusten da, eta hipotesi hauek kontuan hartuta, Planaren estrapolazioa XII. Agintaldi osorako, 281 milioi euro inguruko aurrekontua suposatuko luke. Honeri, 130 milioi € inguruko gastu fiskala gehituko litzaioke.

<sup>6</sup> Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoak balioetsitako gastu fiskala.

## 5.2. Kudeaketa eta koordinazioa

### a) Planaren lidergoa

**Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak** bultzatzen eta zuzentzen du EEP 2024, eta Eusko Jaurlaritzako Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasun Sailburuordetzako Ekintzaitzaren, Berrikuntzaren eta Informazio Gizartearen Zuzendaritzak kudeatzen eta koordinatzen du. Gainera, biek dinamizatzen, gauzatzen, komunikatzen eta jarraipena egiten dituzte Planean aurreikusitako proiektu eta ekintza nagusietako batzuk.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren lidergoaren helburu nagusiak honakoak izango dira: Planari lotutako administrazio-jarduera bideratzeko jarraibideak ezartzea, eta Plan hau beste estrategia, plan, programa eta ekintza propioetara zein beste administrazio batzuenetara egokitzeko testuinguru egokia sortzea.

Era berean, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailburuak EEP 2024ri azken onarpena emandakoan, Gobernu Kontseilura igorriko du. Gobernu Kontseiluak planaren berri duenean legebiltzarrerara bidaliko du komunikazio gisa, informatzeko, 2021eko lehenengo lauhilekoan zehar. Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailarekin batera, paper nabarmena dute **Ekonomia eta Ogasun Sailak eta Finantzen Euskal Institutuak** ere, haiek arduratzen baitira finantzaketarako funts eta tresna ugari martxan jartzeaz (EBSekin lotutako abal-lerroak, Luzarorekin eta Basque Fondorekin lotutako kreditu-tresnak, besteren artean).

### b) Sailarteko eta erakundearteko harremana eta koordinazioa (Erakundearteko Mahaia)

Martxan dagoen lan-dinamikari jarraipena emanez, EEP 2024ren sailarteko eta erakundearteko harremana eta koordinazioa antolatuko ditu Erakundearteko Mahaiak.

- **Hura da EEP 2024 diseinatu, prestatu, kontrastatu eta berriz onartzeko** ardura duen organoa. Era berean, Planaren urteroko jarraipenaz ere arduratuko da, Plana indarrean dagoen artean. Azkenik, ekintzaitzaren gaineko **informazioa partekatzeko eta koordinatzeko**, eragile/proiektuen artean sinergia eta lankidetzak posibleak identifikatzeko eta proiektu partekatu berriak proposatzeko espazioa ere izango da Mahaia.
- Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren zuzendaritzapean, **hauek hartuko dute parte**: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila; Lan eta Enplegu Saila; Osasun Saila; Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila; Kultura eta Hizkuntza Politika Saila; Ekonomia eta Ogasun Saila; Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Saila; Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapena, Turismoa eta Landa Ingurunearen Departamentua; Arabako Foru Aldundiko Ekonomia Garapena, Berrikuntza eta Demografia Erronka Saila; eta EUDEL.
- Sei hiletik behin bilduko da Mahaia. Urteko jarraipenaren inguruko bilera bat egingo da lehengo sei hilekoan (aurreko urteko jardueraren eta emaitzen gainean), eta beste bilera bat azken lauhilekoan egingo da, hurrengo urteko proiektuak aurreikusteko. Aipatutako instituzio bakoitzean ekintzaitzari gaitan ardura politikoa eta/edo teknikoa duten pertsonak hartuko dute parte bileretan. Hala komeni dela irizten denean, beste eragile publiko edo pribatu batzuen presentzia ere adostu daiteke.

### c) Koordinazio eraginkorra (BICak, lan-taldeak eta idazkaritza teknikoak)

Hainbat eragilek parte hartuko dute EEP 2024 gauzatzen eta koordinatzen, planean aurreikusitako ardatz, proiektu eta ekintzen bidez:

- **BICak**: Eusko Jaurlaritzak eta foru-aldundiak sustatzen dituzte Euskadiko Business Innovation Centreak (BICak). Oinarri teknogikoko ekintzaitza aurreratu eta berritzaileari laguntzeko politikak eta programak gauzatzen dituzte BICek hiru Lurralde Historikoetan. BICen bidez gauzatutako programa, zerbitzu eta ekintzen koordinazio eraginkorra ahalbidetzeko (batez ere, ekintzaitza aurreratuaren eta barne-ekintzaitzaren eremuetan), jarraipena emango zaio duela urte batzuetatik existitzen diren **koordinazio eraginkorreko batzordeari**. Bertan parte hartuko dute Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak, SPRIK eta Euskadiko BICek, hau da, BIC Arabak, BEAZ-BIC Bizkaiak, BIC Bizkaia Ezkerraldeak eta BIC Gipuzkoak.

- **Lan-taldeak:** Erakundearteko Mahaiak proposatuko ditu ad hoc, gai eta behar konkretuen arabera. Eusko Jaurlaritzako lan-talde teknikoak, foru-aldundien eta ekosistemako gainerako eragileen ordezkariak osatuko dituzte lan-taldeak, kasu bakoitzaren arabera. Helburu eta emaitza konkretu bat lortzera egongo dira bideratuak, eta Erakundearteko Mahaiaren interesekoa den gai espezifiko bati aurre egiteko proposamenak aztertzeaz eta proposatzeaz arduratuko dira. Aldi baterako taldeak izango dira, eta kasu bakoitzean egin beharreko zereginen araberrako iraupena izango dute.
- **Idazkaritza teknikoak:** idazkaritza tekniko bat osatuko da EEP 2024ren jarraipena, koordinazioa eta aurrerapen mailaren ebaluazioa egiten laguntzeko.

### 5.3. Jarraipenerako eta ebaluaziorako sistema

EEP 2024ek jarraitasuna ematen dio urteroko jarraipen, kontu-emate publiko eta lehentasunen berrikuspen sistemari, erraztasun- eta praktikotasun-irizpideei jarraituz:

#### Planaren aurrerapenaren jarraipena

- Aurreko urtean martxan jarritako ekintzen betetze maila, jarduera eta inpaktuaren jarraipenak egingo dira urteko lehenengo lauhilekoan.
- Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak eta SPRIk egingo dute jarraipen hori, Planean parte hartzen duten instituzio guztiekin lankidetzan. Erakundearteko Mahaiak ariketa hori balioztatuko du.
- Jarraipena bi tresnatan oinarrituko da: planeko adierazleen aginte-koadroa, eta adierazle horien urteko neurketa jasoko eta aztertuko duen urteko Balantze Txostena.

#### Kontrastea eta kontu-emate publikoa

- Gardentasunaren eta kontu-ematearen konpromisoaren baitan, urteko Balantze Txostena Legebiltzarrerara bidaliko da, Planaren aurrerapenaren jarraipena egiteko bitarteko gisa.
- Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak erantzungo die jasotako kontsultei eta zuzenketei, Mahaiarekin koordinazioan.

#### Lehentasunak berrikustea

- Erakundearteko Mahaiaren urteko azken bileran EEP 2024ren hurrengo urterako lehentasunak berrikusiko dira eta doiketa posibleak adostuko dira. Bilera hori bat etorriko da denboran instituzio partaide bakoitzaren aurrekontuaren prestaketarekin.

#### a) Aginte-koadroa

**Jarraipenerako eta ebaluaziorako** sistema hau aurrera eramateko, adierazleen aginte-koadro bat du Planak, printzipio hauetan oinarrituz egingo da: zehaztasuna, erraztasuna eta adierazgarritasuna. Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak eta SPRIk kudeatuko dituzte adierazle horiek, Planaren sustatzaileak diren instituzioek neurtuko dituzte, urteko Balantze Txostenean aztertuko dira, eta Erakundearteko Mahaiaren bileretan baloratuko dira.

**2. Eranskinean** aginte-koadroa ageri da, azken urteetako neurketekin. **Hiru maila** ditu:

1. **Gauzatze mailaren eta ahaleginaren adierazleak (2).** Planaren betetze-maila orokorra eta erabilitako baliabide ekonomikoak ezagutzeko aukera ematen du.
2. **Jardueraren adierazleak (20).** Ekintzek zuzenean sortutako jarduera ezagutzera bideratuak. Ziurrenik, adierazle eskuragarri esanguratsuenak ditu maila honek.
3. **Inpaktuaren adierazleak (17)** Planak eragin nahi duen ekintzaitzaren eremuen bilakaera ezagutzen laguntzen dute. Azterketa interesgarria da, nahiz eta ekintza publiko-pribatuak inpaktu mugatua duen bere horretan. Adierazle esanguratsuak aukeratu dira, Euskadin aitortuta dauden erakundeek neurtuak (Eustat, EIN eta GEM).

**4.8 atalean** jasotzen den moduan, adierazle sintetiko bat diseinatzeko lankidetzaren proiektu bat proposatzen du EEP 2024ek, urtero ekosistemaren bilakaera ebaluatuko duena eta aginte-koadro integral berri batean oinarrituko dena. Aginte-koadro berri horrek plan honen eranskinetan jasota dagoena eguneratuko du.



## b) Urteko Balantze Txostena

EEP 2024ren jarraipenerako bigarren tresna da txosten hau, aginte-koadroaren osagarria. Planean jasotako helburuen, ardatzen, proiektuen eta ekintzen aurrerapen maila urtero **jarraipenerako ariketa partekatua** da, eragile parte-hartzaileek egiten eta egiaztatzen dutena. Txostenak aurrerapen maila zehazten du, hauei dagokienez:

1. **Planaren ekarpenak:** Planaren ekintza-ardatzak garatzeak ekarritako lorpenak edo onurak.
2. **Planaren analisi kualitatiboa eta kuantitatiboa:** Planak jasotzen dituen proiektuen eta ekintzen emaitza kualitatibo eta kuantitatibo nagusien analisia:
  - a. Analisi kuantitatiboa, aipatutako adierazleen aginte-koadroan oinarrituta.
  - b. Analisi kualitatiboa, eragileek egindako lanaren gaineko informazioa nabarmentzen duena: proiektu eta ekintza nabarmenak, jarduera berriak eta kendutako jarduerak, etab.

Halaber, Euskal Autonomia Eekidegora Europar Batasunetik helduko diren funtsen balioa eta instrumentalizazioa jakitean, finantza tresna nagusien aurreikusitako garapenaren inguruko informazioa eskeiniko da txostenean.

# Eranskinak

## A1. Ekintzailetza-ekintzen katalogoa

Ekintzailetzari laguntzeko ekintzen zerrenda ageri da jarraian, martxan edo diseinu-prozesuan daudenak, euskal ekosistemako eragile nagusiek emanak.

### Eusko Jaurlaritza

Eragile arduraduna	Ekintza	Deskribapena	Hartzailea	Lankidetzan aritzen dira	Ardatza / bizi-zikloaren etapa
Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila - SPRI	UP Euskadi ataria	Euskal ekosistema ekintzaileko prozesuen, programen, zerbitzuen, finantza-tresnen, azpiegituren eta eragileen gaineko beharrezko informazio guztia batuko duen atari berria, eta interesa izan lezaketen pertsona, tokiko eragile edo kanpoko eragileen eskura jarriko dutenak, modu erakargarrian.	Ekintzailetzan interesa duten kolektibo guztiak	SPRI Ekosistemako eragileak	1. Ekintzailetzaren kultura eta balioak
	Basque Industry 4.0 kongresua - Ekintzailetza	Basque Industry 4.0 kongresua indartzea, ekintzailetzaren gaineko hainbat eduki txertatzeko.	OTEBBak Enpresa ekintzaileak	Eusko Jaurlaritza SPRI	1. Ekintzailetzaren kultura eta balioak 3. Ekintzailetzarako iturriak eta ideiak
	Ekintzaile	Oinarri teknologikoko enpresa-proiektu berritzaile industrial berriei laguntzeko eta haiek finantzatzeko programa, Euskadiko BICen eta ekintzailetzako beste eragile batzuen bidez. Barnekintzaile programa du bere baitan, finkatutako enpresa industrialetan barne-ekintzailetza proiektu berri bat aztertzeko, definitzeko eta martxan jartzeko laguntza ematen duena.	OTEBBak	SPRI foru-aldundiak BICak	3. Ekintzailetzarako iturriak eta ideiak
	Lehiabide	Finkatutako enpresa industrialetan barne-ekintzailetzaren gaineko hausnarketa estrategikoa egiteko eta antolaketa-eredu bat definitzeko laguntza-programa.	Enpresa ekintzaileak		1. Ekintzailetzaren kultura eta balioak 3. Ekintzailetzarako iturriak eta ideiak
	BIND 4.0	Industria 4.0 arloan startupen azeleraziorako nazioarteko programa, startup irabazle bakoitzak industria-enpresa batekin kontratu bat izatea bermatzen duena, mentoring programa pertsonalizatu batez eta azelerazioaz gain.		Eusko Jaurlaritza SPRI Foru-aldundiak Enpresa parte-hartzaileak	4. Finantzaketa eta inbertsioa eskuratzea
	Berrikertu	Enpresetan eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragileetan giza kapital ikerlaria txertatzeko laguntzak, ikerlariak kontratatuzko dirulaguntzen bidez; dirulaguntza horiek ezin dira itzuli.	OTEBBak Enpresa ekintzaileak (industriako ETEak)	ZTBES	5. Merkaturako sarbidea 6. Laguntzarako prozesu, zerbitzu eta programak
	Hazitek	Ikerketa Industrialeko edo Garapen Esperimentaleko Proiektuak egiten laguntzeko programa, izaera lehiakorra zein estrategikoa dutenak, EAEko enpresa-sektorean, eta Euskadi 2020 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren barneko espezializazio-eremuetan.			
	Industria digitala	Enpresa berriak eta finkatutako enpresak garatzen laguntzeko egitasmoa, manufaktura-sektoreko ETE industrialetan EIKTak txertatzearen bidez.	OTEBBak eta enpresa ekintzaileak (industriako ETEak)	SPRI	4. Finantzaketa eta inbertsioa eskuratzea
	Global Lehiari	ETE indibidualak nazioartekotzeko laguntzak, EAErekin lankidetzan.	OTEBBak eta enpresa ekintzaileak (industriako ETEak)	Eusko Jaurlaritza	5. Merkaturako sarbidea 6. Laguntzarako prozesu, zerbitzu eta programak
	Gauzatu	Oinarri teknologikoko ETE industrial edo lotutako zerbitzu berritzaileak sortzeko eta garatzeko laguntzak.	OTEBBak eta enpresa ekintzaileak (industriako ETEak)	Eusko Jaurlaritza SPRI	

Eragile arduraduna	Ekintza	Deskribapena	Hartzailea	Lankidetzan aritzen dira	Ardatza / bizi-zikloaren etapa
Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila - SPRI	<b>Barne-ekintzailetzari laguntzeko egitasmoa</b>	Barne-ekintzailetzari laguntzeko egitasmoa, produktu, zerbitzu eta/edo negozio berriak garatu eta ekintzaileak izateko apustua egin duten enpresa industrialei (>50 langile) sentsibilizazioa, prestakuntza, konexioa eta laguntza eskainiz.	Enpresa ekintzaileak	SPRI Foru-aldundiak BICak	1. Ekintzailetzaren kultura eta balioak 6. Laguntzarako prozesu, zerbitzu eta programak
	<b>BICen laguntza jaso duten Ekintzaile programako startupak Cita emrenden aurkezteko jardunaldia</b>	Ekitaldi birtuala eta, bertan, haien ikuspegia eta arrakastarako gakoak azaltzen dituzte haien alorretan nabarmenak diren startupek, batez ere, digitalizazioan errendimendu handia izateagatik nabarmenak direnek. ETE-en eta beste startup batzuen zuzendaritzek osatutako foro bati egiten diete aurkezpena.	ETE ekintzaileak, startupak eta inbertitzaileak	Eusko Jaurlaritza, SPRI, Adegri eta Diario Vasco	4. Finantzaketa eta inbertsioa eskuratzea 5. Merkaturako sarbidea 6. Laguntzarako prozesu, zerbitzu eta programak
	<b>Luzaro (Ekintzaile II)</b>	Oinarri teknologikoko enpresa industrial berritzaileak sortzen eta garatzen laguntzeko maileguak, aktibo produktiboak eskuratuta.	OTEBBak	SPRI BICak	4. Finantzaketa eta inbertsioa eskuratzea
	<b>Basque fondo I eta II Ekintzaile XXI</b>	Inbertsiorako tresna publikoa, BICek babestutako euskal enpresa berritzaile berrien garapen- eta finkatze-faseak errazteko. Funtsa bi zatitan banatzen da. I. zatiak finantzaketa eskaintzen du, enpresa sortzea erabaki eta enpresari "heriotzaren bailara" izen desegokia duen aldia igarotzen lagundu ondoren. II. zatiak hazkunde-potenziala duten enpresen finantzetaren baldintzei heltzen die, aurreragoko faseetan.	Enpresa berriak	Foru-aldundiak IKEKS SA Eusko Jaurlaritza SPRI BICak	
	<b>AURRERA</b>	Epe luzerako finantzaketa-lerroa, ELKARGI EBSren abalarekin, sortu berri diren ETE ekintzaileen inbertsio beharrei edo zirkulatzailearen beharrei erantzuteko.	Pertsona ekintzaileak eta sortu berri diren ETEak	SPRI, Finantzen Euskal Institutua eta ELKARGI	
	<b>CEIS. BICak / Inkubategi espezializatuen sarea</b>	RIS3 sektoreetan OTEBBei laguntza ematen espezializatutako inkubategien sarea: BEAZ-BIZ Bizkaia eta BIC Bizkaia Ezkerraldea, BIC Gipuzkoa eta BIC Araba.	Enpresa berriak	Foru-aldundiak BICak	8. Azpiegitura adimendunak
	<b>Ekintzailetzaren bilakaeraren azterketa- GEM</b>	Lankidetzaren ekintzailetzaren azterketan.	Ekintzailetzan interesa duten eragile guztiak	Eusko Jaurlaritza SPRI Foru-aldundiak	9. Ekosistema
IKEKS, SA - Euskal Herriko Arrisku Kapitalaren Kudeaketa (Eusko Jaurlaritza)	<b>Arrisku Kapitala</b>	Egoera hauetan dauden enpresetan inbertitzea: hazkunde, hedapena, nazioartekotzea, langileen partaidetza, enpresa berria eskuratzea.	Enpresa berriak	SPRI	4. Finantzaketa eta inbertsioa eskuratzea
Euskadiko Teknologia Parkeen Sarea (ETPS)	<b>Ekintzailetzari bultzada - Lankidetzaren eta sinergiaren parkeetan</b>	Oinarri teknologikoko enpresa berritzaile berrien garapenari bultzada, BICaren programetan eta zerbitzuekin batera lan eginda. Gainera, networkinga sustatzeko laguntza eskaintzen du, parkeak ZTBESreko harremanean dituen gaitasunen bidez; parke bereko enpresen arteko lankidetzaren ere sustatzen du, baita parkeen nazioarteko sarearekin duten lankidetzaren ere.	Enpresa berriak	Foru-aldundiak eta Parke bakoitzeko beste eragile batzuk	3. Ekintzailetzarako iturriak eta ideiak 6. Laguntzarako prozesu, zerbitzu eta programak
	<b>Ekintzailetzari bultzada - Balio erantsiko zerbitzuak</b>	BIC bat teknologia-parke batean txertatzeak, komunikazioan, hedapenean, prestakuntzan eta informazioan balio erantsia duten zenbait zerbitzu ematen dizkie oinarri teknologikoa duten enpresa berritzaileei.			
	<b>Softlanding</b>	ETPS sareak aukera eta laguntza ematen du inkubategitik, BICetik ateratzea eskatzen denean, inkubazio osteko beste espazio batzuetara modu egokian igarotzeko, ezarpenerako eta garapenerako laguntzak eskainita.	Enpresak BICetatik ateratzen	6. Prozesuak, laguntza-zerbitzuak 8. Azpiegitura adimendunak	

Eragile arduraduna	Ekintza	Deskribapena	Hartzailea	Lankidetzan aritzen dira	Ardatza / bizi-zikloaren etapa
Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politika Sailburuordetza - HAZI	<b>Landa-ingurunean ekiteko plana</b>	Landa-ingurunearen ekintzailetza-estrategia, ekintzailetzaren sustapena helburu duena.	Beste segmentu espezifiko batzuk	HAZI	2. Giza Kapitala 9. Ekosistema
	<b>ONEKIN</b>	Euskadiko elikaduraren, egurraren eta lurralde-garapenaren balio-kateko ekintzailetzaren eta berrikuntzaren ataria.	Guztiak	HAZI	6. Laguntzarako prozesu, zerbitzu eta programak
	<b>Erein</b>	Landa-eremuei zuzendutako laguntza-lerroak, enpresa berriak sortzea sustatzeko. Zehazki, inbertsio-ekintzetara, lanpostu berriak sortzera eta autoenplegurako egitasmoetara zuzenduta daude laguntzak.	Nekazariak edo esku-hartzearen eremuko nekazaritza-ustiategi bateko kideak. Enpresa berriak Esku-hartzearen eremuetan bizi diren pertsonak	HAZI	4. Finantzaketa eta inbertsioa eskuratzea
	<b>Leader</b>	Landa-inguruneari zuzendutako laguntza-lerroak, landa-ekonomia dibertsifikatzea sustatzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremuetako bizi-kalitatea hobetzeko. Zehazki, inbertsio-ekintzetara, enplegua sortzera eta startupak sortzera zuzenduta daude laguntzak.	Nekazariak edo LEADER eremuko ustiategi bateko (nekazaritzakoa ez dena) kideak. Enpresa berriak LEADER eremuan bizi diren pertsonak	Mendinet	
	<b>Gaztenek</b>	EAEko lehenengo sektorean ekiteko laguntza-programa integrala eta banakakoa.		Foru-aldundiak, HAZI, Kudeaketa Zentroak	2. Giza kapitala
	<b>Geroa</b>	EAEko landa-ingurunean eta kostan ekiteko laguntza-programa integrala eta banakakoa.	Beste segmentu espezifiko batzuk		4. Finantzaketa eta inbertsioa eskuratzea
	<b>Sendotu</b>	Bermeak emanez, inbertsio-proiektuen bultzada sektore hauetan: nekazaritza, basogintza, arrantza, elikadura eta landa-garapena.			
	<b>Nekazaritzako elikagaien sektorea eta enpresak hurbiltzeko bekak</b>	Lehenengo sektorean, elikagaien industrian eta landa-ingurunean pertsonak txertatzea dinamizatzeke programa. Prestakuntza praktikoa. Tutoretzapeko nekazaritza-enpresaren edo nekazaritzako elikagaien enpresaren jarduera propioak egitea, enpresaren kudeaketari, funtzionamenduari eta errealitateari buruz ikasteko	Nekazaritzaren sektoreko ekintzaileak	HAZI	2. Giza kapitala
	<b>Ekintzailetzarako osteguna</b>	Diziplina anitzeko prestakuntza-ibilbidea, pilulen formatuan. Ekintzailetza-kultura sortzea da helburua, elikaduraren balio-katean, landa-ingurunean eta kostan jarduera ekonomikoa eta enplegua sustatuz, eta ekintzaileen arteko eta ekintzaileentzako sareak eta kontaktuak sortuz.			
<b>Prestakuntza trinkoa</b>	Gazteak lehenengo sektorean eta landa-ingurunean txertatzea erraztea, prestakuntza jaso eta profesionalizatzeko aukera eskainiz. Iraupen luzeko ikastaroak (>100 ordu), sektorearen intereseko gai zehatzei buruz. Hauek lantzen dira: kompetentzia pertsonalak, kompetentzia teknikoak eta enpresa arloko kompetentziak, profesionalki osoa den prestakuntza lortzeko helburuz.	Beste segmentu espezifiko batzuk		2. Giza kapitala	
	<b>Finantzaketa publikoa</b>	Tokiko eta estatuko erakundeen programetan sartzen laguntzeko ekimena.	Enpresa berriak		
	<b>Crecer+</b>	Bere inbertitzaileen sarearen bidez startupentzako beharrezko finantzaketa lortzea helburu duen egitasmoa. Tokiko eta beste lurralde batzuetako ekintzaileekin lan egiten duen Euskadiko sare-inbertitzaile ireki eta orokor bakarra da.	Ekintzailea Gizarteko segmentu espezifikoak Enpresa berria	Deustuko Unibertsitatea	
Kutxabank	<b>Hazibide SA</b>	Ekintzaileei laguntzeko eta haiek finantzatzeko jarduerak (hazi-kapitaleko sozietatea).	Enpresa berriak	Arabako Foru Aldundia Gasteizko Udala, ERKIDE, TALDE	4. Finantzaketa eta inbertsioa eskuratzea
	<b>INNOLABen berrikuntza irekia eta teknologiararen prototipatzea</b>	INNOLABen berrikuntza irekiko eta teknologiararen prototipoak egiteko programa.	Eragileak eta interesdunak	Bilboko Udala, Iberdrola, Gondor Solutions, IBM, Deustuko Unibertsitatea	3. Ekintzailetzarako iturriak eta ideiak 8. Azpiegitura adimendunak
	<b>Berrikuntza irekirako programak</b>	Berrikuntza irekirako programen garapena, estrategikotzat jotzen diren ardatzetako startupak, erakundeak, adituak eta inbertitzaileak konektatzeko. Konpetentzia gakoak garatuko dituzten ekintzailetza-taldeak sortzea da helburua.	Profesionalak, startupak eta enpresak	Laboral Kutxa, Kutxabank, korporazioak, startupak eta administrazio publikoa	1. Kultura eta balioak 2. Giza Kapitala 3. Ideiak eta egitasmo berriak
Kutxa	<b>Seed Gipuzkoa SCR</b>	Enpresen kapitalean aldi batez parte hartuta finantza-baliabideak eskaintzea.	Enpresa berriak	SPRI, Eusko Jaurlaritza, DFG eta Laboral Kutxa	4. Finantzaketa eta inbertsioa eskuratzea
	<b>Biozientziak Gipuzkoa fundazioa</b>	Gipuzkoan biozientzien alorreko garapenera laguntzea, proiektuen finantzaketa babestuz.		Gipuzkoako Foru Aldundia BIC Berrilan	
Rural Kutxa	<b>Enpresa-idea industrialen "Tkgune Fabrikazioa"</b>	Gazteen artean industria izaera duten enpresa-proiektuen garapena bultzatzea.	Gazteak	Eusko Jaurlaritza, GFA, Tkgune Sarea, Elgoibarko Udala eta Debegesa	1. Ekintzailetzaren kultura eta balioak
Laboral Kutxa	<b>Gaztenpresa Fundazioa</b>	enplegua sustatzea eta enpresei sortzen laguntzea, aholkularitza eta lagun egite pertsonalizatua eskainiz.	Langabetuak	Lanbide	3. Ekintzailetzarako iturriak eta ideiak
	<b>Gaztenpresarekin lankidetzan</b>	Gaztenpresa programa, Laboral Kutxaren eta Tolosaldea Garatzenen arteko lankidetzaren bidez.	Gazteak	Tolosaldea Garatzen	2. Giza kapitala 3. Ekintzailetzarako iturriak eta ideiak
	<b>Berrikuntza irekirako programak</b>	Berrikuntza irekirako programen garapena, estrategikotzat jotzen diren ardatzetako startupak, erakundeak, adituak eta inbertitzaileak konektatzeko. Konpetentzia gakoak garatuko dituzten ekintzailetza-taldeak sortzea da helburua.	Profesionalak, startupak eta enpresak	MU, Kutxabank, Korporazioak, startupak eta administrazio publikoak	1. Kultura eta balioak 2. Giza Kapitala 3. Ideiak eta egitasmo berriak

Eragile arduraduna	Ekintza	Deskribapena	Hartzailea	Lankidetzan aritzen dira	Ardatza / bizi-zikloaren etapa
Banco Santander	<b>Explorer programa</b>	Prestakuntza-programa honek (lehen YUZZ) 12 asteko prestakuntza eta aholkularitza eskaintzen ditu GJHeikin lerrokatutako negozio-ideietarako.	18-31 urteko gazteak	Donostiako Sustapena eta CISE	2. Giza kapitala 6. Laguntzarako prozesu, zerbitzu eta programak
	<b>Creaction!</b>	Deustuko Unibertsitatearen prestakuntza erdi-presentziala, gradu eta fakultate guztietako lehenengo ikasturteko pertsonen artean ekintzailetza-espirtua entrenatzeko.	Unibertsitatea	Deustuko Unibertsitatea	1. Ekintzailetzaren kultura eta balioak 2. Giza kapitala
	<b>Deusto Practicum Emprende</b>	Graduko ikasketa-praktikak Startupetan egiteko laguntza-programa.	Gizartea Unibertsitatea Enpresa berria Finkatutako enpresa		2. Giza kapitala 6. Laguntzarako prozesu, zerbitzu eta programak
	<b>Explorer</b>	Garapen Jasangarrirako Helburuetako bati aurre egiteko ideia berritzaile bat garatu nahi duten gazteei aholkularitza eta prestakuntza eskaintzen dizkien mundu mailako programa.	18-31 urteko gazteak		2. Giza kapitala 6. Laguntzarako prozesu, zerbitzu eta programak
Banco Sabadell	<b>BStartup Euskadi</b>	Banco Sabadell-ek enpresa gazte berritzaileei eta teknologikoei haien proiektuak ahalik eta arrakastarako berme handienarekin garatzen laguntzen die ekimen honek.	Enpresa berriak		Seed Rocket eta BStartup del Banco Sabadell
	<b>Venture on the Road</b>	Inbertitzaileei eta networkingari zenbait hiritan sarbidea eskaintzeko ekitaldia.	Inbertsio bila dabilen startupak	4. Finantzaketa eta inbertsioa eskuratzea	
BBVA	<b>Ekintzailetzari babesa</b>	Ekintzailetza babesten duten askotariko programak eta ekintzak (kredituak, ekitaldiak, irakaskuntza...)	Ekintzaileak		4. Finantzaketa eta inbertsioa eskuratzea 6. Laguntzarako prozesu, zerbitzu eta programak
Ports 4.0	<b>Portuen funtsa 4.0</b>	Estatuko portuek talentua eta ekintzailetza logistika-portua sektorerara aplikatzea erakartzeko, laguntzeko eta bideratzeko erabiltzen duten berrikuntza ireki korporatiboko eredu.	Portuen sektoreko enpresak eta ekintzaileak		2. Giza kapitala 4. Finantzaketa eta inbertsioa eskuratzea
SECOT	<b>Ekintzaileentzako laguntza</b>	Seniorrek (borondatez laguntzen duten pertsonak) lagun egiten dute prozesu osoan.	Ekintzaileak		6. Laguntzarako prozesu eta programak
Everis	<b>Everis-Fitalent</b>	Everis taldeak ekintzailetzaren aldeko apustua egiteko erabiltzen duen inbertsio-funtsa			4. Finantzaketa eta inbertsioa eskuratzea
Coben Club	<b>Coben Club</b>	Hazi-aurre fasean dauden Euskadiko startupetako inbertsio-klub pribatua.			4. Finantzaketa eta inbertsioa eskuratzea
Keiretsu Forum	<b>Keiretsu Forum Euskadi</b>	Keiretsu Forumei elkarrekin harremanak izateko eta inbertitzeko aukera berriak aurkitzeko plataforma bat eskaintzen die bere kide inbertitzaileei.	Inbertitzaileak		4. Finantzaketa eta inbertsioa eskuratzea
Fellow Funders	<b>Fellow Funders</b>	Fellow Funders inbertsio kolektiborako plataforma bat da eta bi xede nagusi ditu: Espainiako enpresei finantzaketa alternatiborako iturri bat eskaintzea, eta inbertitzaileei hazteko potentzial handiko proiektuak eskaintzea.	Inbertitzaileak eta enpresak		
Efialia	<b>Efialia</b>	Euskadin arrisku-kapitala kudeatzen duen entitatea			
Inveready	<b>Inveready</b>	Euskadin arrisku-kapitala kudeatzen duen entitatea	Enpresa berriak		
Microwave	<b>Pledge Fund Microwave</b>	Softwarea negozio-elementu funtsezkoa duten startupetan sustapena eta inbertsioa egiteko funtsa. Zehazki, hazi-fasean eta azelerazio-fasean egiten dira inbertsioak.			
Emprendiza	<b>Pledge Fund Emprendiza</b>	Finantzaketa haragi, lagun egite osoa eskaintzen du inbertsio-funts honek	Enpresa berriak		
Finnova	<b>Finnova</b>	Berrikuntzaren finantzaketa laguntzen du, enpresa, eskualde eta udalerrietan.	EBko eta beste eremu geografiko batzuetako erakundeak		
Kereon Partners	<b>Kereon Partners</b>	Kapitalean inbertituta, enpresa-proiektuak sustatzen ditu.	Hazi nahi duten enpresa berriak		



Eragile arduraduna	Ekintza	Deskribapena	Hartzailea	Lankidetzan aritzen dira	Ardatza / bizi-zikloaren etapa
All Iron Ventures	<b>All Iron Ventures</b>	Teknologiak bezeroaren esperientzia edo eraginkortasunik gabeko prozesuak hobe ditzakeen egoeretan aukerak bilatzen dituzten inbertitzaileak.	Eraginkortasunik gabeko enpresak		
Ysios Capital	<b>Ysios Capital</b>	Finantzaketako lehen errondetako inbertitzaileak.	Negoio berritzaileak Europar eta AEBn.		
Easo Ventures	<b>Aholkularitza</b>	Negoioa hazi nahi duten ekintzaileei eta ETE-ek aholkularitza.			4. Finantzaketa eta inbertsioa eskuratzea
	<b>Easo Ventures I eta II</b>	Enpresa berritzaileen garapena sustatzea sozietatearen esperientzia eta enpresa-ikuspegia inbertsioa egin zaien enpresei eskainiz. Horretarako bi funts izan dituzte: Easo Ventures I (18,4 M) eta Easo Ventures II (30 M)	Ekintzaileak eta ETEak		
Cardumen Capital	<b>Cardumen Capital</b>	Venture Capital eta Private Equity funtsen kudeatzailea	Enpresak		
Newfund NAEH	<b>Newfund NAEH</b>	Startup berritzaileekin aritzen den inbertsio-funtsa	Akitania Berriko eta EAEko ekintzaileak		
Mercurius early investments	<b>Mercurius early investments</b>	Business Angel Follower Fund, marketplace-negoioetan (D2C, Classifieds...) aritzen dena	Enpresak		
EIT Food	<b>TeamUp</b>	Ekimen honek inpaktu handiko startupak sor ditzaketen pertsona bikainak biltzen ditu.			3. Iturriak eta ideiak
	<b>Seedbed Incubator</b>	6 hilabeteko programa honen helburua ideia berritzaileak eta aurkikuntza akademikoak merkaturako baliozkoak diren enpresa bihurtzea da.	Ekintzaileak		5. Merkaturako sarbidea
	<b>Challenge Labs</b>	Elikadura eta nekazaritzaren arloan gaur egungo eta etorkizuneko arazoei irtenbideak aurkitzeko diseinatutako mintegiak.			3. Iturriak eta ideiak
	<b>Laguntza eskaeretan</b>	Ekimen honen bidez, laguntza eskaini eta lagun egiten da EIT Food programetarako eskaerak egiteko prozesuan.	Europa hegoaldeko eta ekialdeko startupak		6. Laguntzarako prozesu, zerbitzu eta programak
	<b>MPowerBio</b>	Bio arloan oinarritutako industriari ETE-entzako finantzaketa eta inbertsioa eskuratzen laguntzeko ekimena.	ETE berriak	90 kluster	4. Finantzaketa eta inbertsioa eskuratzea
	<b>EIT Food Accelerator Network</b>	Ekimen honek sektoreko lider diren enprekin eta research partners direlakoekin konektatzen ditu startupak.	Startupak	Lider diren enpresak	5. Merkaturako sarbidea
	<b>MAKEit</b>	Europar elikadura-kate sinpleak eta adimendunak sortzea.	Ekintzaileak		8. Azpiegitura adimendunak
	<b>Change Makers</b>	Askotariko komunitateak ahalduntzea, elikadura-sistema eralda dezaten.	Askotariko komunitateak		1. Ekintzailetzaren kultura eta balioak
	<b>EWA</b>	EWA (Empowering Women in Agrifood). Nekazaritzaren sektoreko emakumeentzako hezkuntza, mentoretza, coachinga eta networkinga.	Nekazaritza-sektoreko emakume ekintzaileak		
Bilbao Berrikuntza Faktoria	<b>Inkubazioa eta azelerazioa</b>	Inkubatze- eta azelerazio-zerbitzu integrala. "Pertsonak zabaltzea negozioak azeleratzeko"			6. Laguntzarako prozesu, zerbitzu eta programak
	<b>Coworking</b>	Zenbait arlotako profesionalentzako lanerako espazioa, elkarlana eta networkinga sustatzen dituena.			8. Azpiegitura adimendunak
	<b>Executives in Residence</b>	Hiriko proiektu berritzaileekin networkingean aritzeko aukera, enpresa-kultura ireki eta dinamikoarekin.			
	<b>Bullets</b>	(Mentoretza) Produktuak eta zerbitzuak kontzeptualizatzeko pentsamendu kolektibo eta horizontalerako metodologiak, startupetan prozesua arinak eratzeko.	Ekintzaileak		
	<b>Take up</b>	Enpresa kolaboratzaile batek posizionatutako negozio-erronka bati erantzuteko, unibertsitateko komunitatea barne-ekintzailetzako prozesuetan txertatzen duen metodologia.			
	<b>Erasmus Young Entrepreneur</b>	Truke-programa honek aukera ematen die enpresa bat sortu nahi dutenei, beste herrialde batzuetan enpresa txikiak zuzentzen dituzten enpresaburu eskarmentudunengandik ikasteko.			6. Laguntzarako prozesu, zerbitzu eta programak
Innolab	<b>Startupen azelerazioa</b>	Berrikuntza-plataforma honek aukera ematen du enpresa-proposamen baten prototipoa egiteko, balio-proposamen bat eratzeko, negozio-eredu bat zehazteko eta gutxieneko bideragarritasun bat duen produktu bat garatzeko			

Eragile arduraduna	Ekintza	Deskribapena	Hartzailea	Lankidetzan aritzen dira	Ardatza / bizi-zikloaren etapa
Berriup	<b>Azelerazio-programa</b>	Inbertsio pribatua erabiltzen duen Euskadiko lehen startup-azeleratzailea. Ekintzaileekin, bezero izan litezkeenekin eta inbertitzaileekin konektatzeko, eta oraindik garatzeko dauden ideia berritzaileak merkaturatzeko ekimena. 50.000 €-ko inbertsioa Azelerazio-programan parte hartzen duten proiektu guztietan, proiektuaren akzioen % 10aren truke.	Ekintzaileak		3. Ekintzailetzarako iturriak eta ideiak 4. Finantzaketa eta inbertsioa eskuratzea 5. Merkaturako sarbidea 6. Laguntzarako prozesu, zerbitzu eta programak
	<b>Coworking</b>	Beste profesional batzuekin konektatzeko, eta hitzaldi zein tailerretan parte hartzeko coworking-espazioa.			8. Azpiegitura adimendunak
	<b>Mentoring</b>	35 mentore baino gehiago ekintzaileen eskura.			6. Laguntzarako prozesu, zerbitzu eta programak
	<b>Networking</b>	Tailerak eta hitzaldiak.	Ekosistemako eragileak		1. Kultura eta balioak 9. Ekosistema
Dreamers Ventures	<b>The Dreamers Factory</b>	Ekosistema honek konexioa (beste ekosistema berritzaile batzuekin), inspirazio-transpirazioa (arrakasta-kasuen bidez), murgiltzea eta azelerazioa (gure ekosisteman proiektuak kanpora aterata) eskaintzen die enpresei.	Ideen sortzaileak		
Metxa	<b>Azelerazio-programa</b>	Startupak hautatzeko eta azeleratzeko programa Hautatutako proiektuek laguntza jasotzen dute, besteak beste, arlo hauetan: finantzaketa eskuratzea, mentoretza, networkinga, azeleraziorako azpiegiturak, prestakuntza eta ekintzaileen hitzaldiak.	Enpresa berriak		
	<b>Metxa Bootcamp</b>	Ekintzaileei zuzendutako programa, % 100 online. Erronka batekin sartu, eta irtenbide batekin aterako zara.	Ekintzaileak		
	<b>Bootcamp neurri</b>	Enpresaren aukera eta erronka guztietara, behar den epean, egokitzen den programa.	Ekintzaileak		
	<b>Bootcamp Tknika</b>	Online azelerazio-programa trinkoa.	Euskadiko LHko ikasleak eta ikasle ohiak		
	<b>Metxa Tour</b>	Metxaren azelerazio-programaren deialdia ekintzaileei gerturatzeko ekitaldia.	Ekintzaileak Enpresa berriak		3. Ekintzailetzarako iturriak eta ideiak 5. Merkaturako sarbidea 6. Laguntzarako prozesu, zerbitzu eta programak
Init	<b>Init</b>	Enpresa-ekimen berriak abian jartzea eta garatzea, ekimen horiei etorkizuna izateko eta aberastasuna sortzeko aukera emango dieten baldintza eta egitura korporatiboak sortuz.	Ekintzaileak		
Senda 15 Incubator	<b>Senda 15 Incubator</b>	Inkubategi honek ekintzailetza-ingurune batean, 6 hilabetez, lana eta bilerak egiteko espazio bat eskaintzen du; baita proiektuaren neurriko mentoretza eta neurri prestaturako taldeko prestakuntza ere.			
Conteneo	<b>Conteneo</b>	Sorkuntza, azelerazioa, inbertsioa eta lagun egitea	Ekintzaileak		4. Finantzaketa eta inbertsioa 6. Laguntzarako prozesu eta programak
Eywa VB	<b>Eywa VB</b>	Lagun egiten dute negozio-ideiak enpresa arrakastatsu bihurtzeko, startupeari AR/VR arloko laguntza teknologikoa osoa eskainiz, bai irtenbide berriak garatzeko, bai lehendik dauden aktiboak eskualdatzeko.	Ekintzaileak		
Aipower VB	<b>Aipower</b>	Startup-fabrika problemei, adimen artifiziala aplikatuta, irtenbide disruptiboak ematen dizkieten talentudun ekintzaileentzat.	Ekintzaileak		5. Merkaturako sarbidea 6. Laguntzarako prozesu, zerbitzu eta programak
Nexus VB	<b>Xtartup studio</b>	Sortzen direnetik, ekonomikoki jasangarriak, bideragarriak diren startupen fabrikazioa; lehiatzeko abantaila argi bat dutenak, eskalagarriak eta inbertigarriak direnak.	Enpresa berriak		

Eragile arduraduna	Ekintza	Deskribapena	Hartzailea	Lankidetzan aritzen dira	Ardatza / bizi-zikloaren etapa
Dotakon VB	<b>Dotakon</b>	Potenziala duten enpresak aztertu, diseinatu, sortu eta abian jartzen ditu			
Lawesome	<b>Lawesome</b>	Lege-zerbitzuen enpresa, enpresa handiei, inbertsio-funtsei, startupeiei eta ekintzaileei, teknologia-zentroei eta zuzendariei haien enpresa-proiektuaren erronka guztietan lagun egitean espezializatua	Erakundeak		4. Finantzaketa eta inbertsioa 6. Laguntzarako prozesu eta programak
BIME	<b>BIME</b>	Musikaren sektorean ekintzailetza sustatzeko ekitaldia	Ekintzaileak Enpresa berriak		1. Ekintzailetzaren kultura eta balioak
Vocento taldea	<b>B-Venture</b>	<i>El Correo</i> egunkariak sustatutako ekimen honen helburua proiektu berritzaileak, finantzaketa behar dutenak, azeleratzea da, eta lagun egiten zaie heltze-prozesuan eta abian jartzean.	Enpresa berriak OTEBBak	Bizkaiko Foru Aldundia eta eragile kolaboratzaileak	1. Ekintzailetzaren kultura eta balioak 4. Finantzaketa eta inbertsioa eskuratzea
	<b>StartInnova</b>	<i>Diario Vasco</i> ren ekimen honek 16-20 urteko ikasle gazteek egiten dituzten prestakuntza-zikloetan jokabide ekintzaileak sustatzen ditu.	Irakaskuntza orokorra	ADEGIren Ekintzaileen Foroa	1. Kultura eta balioak 3. Ideiak eta egitasmo berriak
	<b>Cita emprende</b>	<i>Diario Vasco</i> egunkariak sustatutako ekimena. Ekitaldi birtuala da eta, bertan, haien alorretan nabarmentzen diren startupek haien ikuspegia eta arrakastarako gakoak azaltzen dizkie ETE-en eta beste startup batzuen zuzendaritzek osatutako foro bati.	ETE ekintzaileak, startupak eta inbertitzaileak	DDESMA-SPRI eta ADEGI	1. Kultura eta balioak 3. Ideiak eta egitasmo berriak 5. Merkaturako sarbidea
	<b>Innolab Bilbao</b>	Berrikuntza irekiko eta teknologiaren prototipoak egiteko plataforma.	Eragileak eta interesdunak	Eragile sustatzaileak eta laguntzaileak	3. Iturriak eta ideiak 8. Azpiegitura adimendunak
Spaces Abando	<b>Spaces Abando</b>	Produktibitatea sustatu, eta laguntza eskaintzen da bulego hauetan.	Ekintzaileak		8. Azpiegitura adimendunak
Bilbao Lab Coworking	<b>Bilbao Lab Coworking</b>	Coworkingerako espazioak	Gizartea orokorrean		
Koop SF34	<b>Koop SF34</b>	San Francisco auzoko mintegi hau Saharaz hegoaldeko pertsonak sortutako mikroenpresa sozialez dago osatuta. Proiektu aitzindari horren helburua ikaskuntzarako eta garapen sozialerako eredu izatea da.	Migratzaileak		
Biworking	<b>Biworking</b>	Coworkingerako espazio honetan, zenbait ekitaldi eta hitzalditarako sarbidea eskaintzen da.			
Sortoki	<b>Sortoki</b>	Lanerako, startupak garatzeko, eskolak emateko edo ekitaldiak sortzeko coworking-espazioa.	Gizartea orokorrean		
Impact Hub Donosti	<b>Impact Hub Donosti</b>	Coworking, ekitaldi, bilera, networking, lan eta abarrerako espazio funtzionala.			

## A2. Ekintzaitzaren egoera Euskadin

Euskadiko ekintzaitzaren egoeraren diagnostikoa aurkezten da jarraian, Plan honetan jasotako politikak eta ekintzak planifikatzeko oinarri gisa. Ekintzaitzaren errealitatearen gaineko ahalik eta argazkirik osatuena eskaintze alera, diagnostikoa honako edukien arabera antolatu dugu.

Ekintzaitzak aurpegi anitzak dituenenez, **ikuspuntu, aldagai kuantitatibo eta kualitatibo eta informazio-iturri ezberdinak konbinatzen dituen diagnostiko bat** proposatzen dugu:

- Lehenik eta behin, Ekintzaitzari Laguntzeko aurreko Erakundearteko Planen (2013-2016 eta 2017-2020) gainean Erakundearteko Mahaiak egindako hausnarketak, azterketak eta ebaluazioak hartu ditugu abiapuntu gisa, bakoitzaren urteko balantze-txostena oinarri hartuta.
- Euskadin ekintzaitza bultzatzen duten eragile publiko eta pribatu nagusiek eta ekintzaileen ordezkari batzuek ere eman dute haien iritzia.
- Bestetik, GEM EAE 19-20 txosteneko adierazleen neurketa eta ondorioak ere erabili ditugu, ekintzaitzaren gaineko nazioarteko estandar gisa.
- Ekintzaitzaren egoeraren gaineko ahalik eta "argazki" osatuena eskaintze aldera, txostena osatzeko beste iturri batzuetako informazioa ere erabili dugu: Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak, BICak, Eustat, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa, EIN, Confebask, Innobasque edo Orkestra, besteren artean.
- Azkenik, erabili dugun kanpoko informazioa Europako Batzordekoa eta WEF eta OECD gisako erakunde aldeaniztunetako da. Berrikuntzaren eta ekintzaitzaren arloko erreferentziatzko erakundeen ikerketak ere erabili ditugu, hala nola hauenak: Babson College, Kauffman Foundation, Masschallenge edo NESTA, beste batzuen artean.

Ekintzaitzari laguntzeko **plangintza egiteko eta eguneroko jarduerak aurrera eramateko, funtsezkoa da eguneratutako informazioa izatea, eragile guztientzat eskuragarria izango dena, ahal bezain osatuena eta kalitatezkoa.**

Plan honek eta bertako ekintzek honakoen gaineko ezagutza hobetu eta hedatu nahi dute: EAEn zer ekintzaitza-jarduera dagoen, nolakoak diren ekintzaileak eta zerk bultzatzen dituen ekitera, nor den nor euskal laguntza-ekosisteman, eta zer programa eta laguntza dauden.

### A2.1. Ekintzaitza

Ekonomia bateko ekintzaitza-jarduera prozesu globalizat har daiteke, honakoak barne hartzen dituena: ideiarekin sorrera edo ekiteko asmoa, enpresa sortzea eta azeleratzea, sendotzea eta enpresa-proiektua uztea edo eskualdatzea.

Orokorrean, **EAEn alta emandako enpresen eta autonomoen kopuruaren joera positiboa eta egonkorra izan zen 2013-2019 aldirian.**

Ekintzaitza-proiektu berriek sendoak zirela erakutsi zuten, **biziraupenari eta ez-uzteari zegozkion tasak nabarmentzekoak** baitziren, batez ere, oinarri teknologikoko enpresa berritzaile berrien kolektiboan (OTEBBak<sup>7</sup>). Datu horretan, zalantzarik gabe, eragina dute ekintzaileen **prestakuntzak**, laguntza-sistemaren eraginkortasunak eta Euskadiko enpresa- eta teknologia-testuinguruak. Aurrerago aztertuko ditugu alderdi horiek.

Aitzitik, azken urteetan proiektu berrien masa kritikoa ez da gerturatu 2008ko krisialdiaren aurreko mailara, eta **hobetzeko eremuak** ikusi dira hauei dagokienez: **proiektuen tamaina, hazteko anbizioa eta nazioarteko orientazioa**, beste batzuen artean.

2020ko lehengo datuek ekintzaitzarekin lotutako adierazle nagusiek gora egingo zutela aurreikusten bazuten ere, **osasan-larrialdiak** eragin nabarmena izan zuen martxotik aurrera, adierazle nagusiek erakusten duten moduan.

<sup>7</sup> Oinarri Teknologikoko Enpresa Berritzaile Berria

a) Autonomo berriak


2020an behera egin du **autonomoen alta-kopuruak**, eta 2009ko datuetara itzuli gara.

Behin krisi finantzarioa gaindituta, 2013tik aurrera progresiboki berpiztu zen ekonomia, autoenpleguaren bidez. Autonomoen 26.000-30.000 alta berri izaten ziren urtean.

Joera hori gelditu egin da 2020an, pandemiaren eraginez. **% 22,2ko beherakada** izan da, azken urteetako batezbestekoarekin alderatuta.

**Euskadin altan emandako autonomoak**

Autonomoen alta-kopurua Gizarte Segurantzari; 2006-2020 aldia




\*UHTK: urtez urteko hazkunde-tasa konposatua.  
Iturria: EIN

**2020ko hilabetekako alten** azterketak erakusten duenez, konfinamendua amaitutakoan datuak aurreko urteetako batezbestekora itzuli ziren udan, baina udazkenean zehar ekintzaitza-jarduera ez zen guztiz suspertu, pandemiaren ondoren ondoko olatuen ondorioz, eta pandemiatik irteteko agertokien gaineko ziurgabetasunagatik.

**Euskadin altan emandako autonomoak (hileko batezbestekoa)**

Autonomoen alta-kopurua Gizarte Segurantzari; 2012-2020 aldia



Iturria: EIN

2020aren amaieran 169.618 autonomo zeuden guztira, 2019aren itxieran baino 1.348 gutxiago; hau da, urte arteko **-% 0,8ko beherakada** izan zen. **Martxoan eta apirilean galdutako autonomoen % 56 berreskuratu zen abendurako.**

b) Enpresa berriak


Finantza-krisiaren ondoren, **urtean 3.000-3.100 enpresa** sortzeko gaitasuna berreskuratu eta egonkortu zuten Euskadik. Hala, 2013-2019 aldian ia 25.000 enpresa berri sortu ziren.

Nolanahi ere, zifra horiek urrun zeuden oraindik 2008aren aurreko zifretatik, non urtean **5.000 enpresa berri** baino gehiago sortzen ziren.

**2020an** 2.506 enpresa sortu zituzten guztira, 2019an baino **% 15.7 gutxiago**.

**Euskadin sortutako enpresak**

Enpresa-kopurua; 2006-2020




\*UHTK: urtez urteko hazkunde-tasa konposatua. Oharra: sortutako enpresen kopuruaren barnean daude sozietate anonimoak, mugatuak, kolektiboak eta komanditarioak. Iturria: EIN

Adierazlearen hileroko joera aztertuz gero, **udaberriaren ondoren aurreko urteetako sortze-erritmoa berreskuratu zela** ikus daiteke, eta gaintitu ere egin zen (irailean eta abenduan).

**Euskadin sortutako enpresak (hileko batezbestekoa)**

Enpresa-kopurua 2012-2020



Oharra: sortutako enpresen kopuruaren barnean daude sozietate anonimoak, mugatuak, kolektiboak eta komanditarioak. Iturria: EIN

**Gizarte Segurantzaren inskribatutako euskal enpresei** dagokienez, 2008ko krisialdia eta haren eragin negatiboak 2014ra arte luzatu ziren, eta 7.671 enpresa galdu ziren guztira (% 12).

2020ko otsailera bitarte, ehun horren % 25 berreskuratu zen (1.929). Dena den, **6 urtetan berreskuratutakoaren adinako bolumena galdu zen** konfinamenduan zehar (martxo-apirila) (>2.000 enpresa garbi).

2020ko ondorengo hilabeteetan hazi egin zen enpresen sortzea eta dagoeneko berreskuratu da martxoan eta apirilean galdutakoaren % 35. Hala ere, oraindik 1.436 enpresakoa da metatutako saldo negatiboa, 2012az geroztiko zifrarik okerreana.


Urtea amaitzean 57.522 enpresa zeuden Gizarte Segurantzaren inskribatuta, 2019aren amaieran baino % 2,4 gutxiago, baina **2014ko urtarrilean baino ia 2.000 enpresa gehiago**. 2014ko urtarrilean izan ziren 2008az geroztiko zifrarik okerrean.

Beheko grafikoaren beheko ezkerreko aldean ikus daitekeen moduan, **2014aren eta 2018aren artean saldo garbia positiboa izan zen ondoz ondoko bost urtetan zehar** (suntsi baino gehiago sortzen ziren), baina 2019an eta 2020an saldo negatiboak izatera itzuli ginen.

**Urtean 3.000-3.100 enpresa inguru sortzeko gaitasuna berreskuratzea eta egonkortzea** lortu zen. Hala, 2013-2019 aldian ia 25.000 enpresa berri sortu ziren.

## Gizarte Segurantzaren inskribatutako enpresak

Enpresa-kopurua; 2008-2020



Iturria: Confebask, Gizarte Segurantzaren datuetatik abiatuta

Confebaskek 2020ko laburpen-txostenean baieztatzen duen moduan, **pandemiak eragin nabarmena izan du Euskadiko enpresa-ehunean, baina Estatuan baino eragin txikiagoa**. Eragina bistakoa izan da, baina, bizi izandako atzerakadaren intentsitatea kontuan izanda, inpaktua neurritzkoa izan da. Inpaktua handiagoa izan da zerbitzuen sektorean, hari eragin baitiote gehien neurri murriztaileek.

Sektoreka, 2020an zerbitzuen sektorean murriztu zen, batez ere, enpresa-kopurua (-% 3,5 eta 1.342 enpresa gutxiago); industria izan zen hurrengoa (-% 1,5 eta 97 enpresa gutxiago), eta eraikuntza-sektoreak 2 enpresa baino ez zituen galdu urteko balantzean.

Lurralde Historikoen arabera, arazoan jaitsi egin zen Gipuzkoako enpresa-kopurua, eta igo egin zen Arabakoa eta Bizkaikoa. Urte osoa kontuan izanda, enpresa-kopuruaren jaitsierarik handiena Arabak (-% 2,8) izan zuen, Gipuzkoak -% 2,3koa eta Bizkaiak -% 2,2koa.

Euskadiko enpresa-kopuruaren bilakaera Estatukoarekin alderatuta, 2020an enpresa-kopuruaren urte arteko jaitsiera apalagoa izan zen Euskadin (-% 2,4) Estatuan baino (-% 3,3). Pandemiaren aurreko mailari dagokionez (2020ko otsaila), enpresa-kopurua antzeko erritmoan murriztu da Estatuan (-% 2,2) eta Euskadin (-% 2,3).


### c) Ekintzailetzaren ezaugarriak GEM EAE 2019 txostenaren arabera

Enpresa berrien eta autonomoen gainean aurrez emandako datuak osatzeko, ekintzailetzaren hainbat ezaugarri neurtzen ditu GEM EAE 2019 txostenak.

Lehenik eta behin, **Ekintzailetza Tasa Totalaren (TEA indizea)** arabera, Euskadiko biztanleen % 4,7 negozio berri bat martxan jartzen edo kudeatzen ari zen 2019an. Berriro ere berretsi da 2008ko krisiaren aurreko ekintzailetza-jardueren mailak urruti daudela oraindik, baina gaur egun, zenbait herrialde garaturen (Japonian % 5,4; Alemanian % 7,6) edo erkidegoren (Nafarroan % 5,2; Valentzian % 4,3) mailan dago.

GEM txostenak baieztatzen duen moduan (NDFren datuetatik abiatuta), korrelazio negatiboa dago TEA indizearen eta per capita errentaren artean. Hau da, garapen ekonomiko eta ongizate maila altua duten gizarteek ekintzailetza-tasa baxuagoa izan ohi dute.

### TEA indizearen eta garapen ekonomikoaren arteko erlazio koadratikoa



Iturria: GEM EAE 2019

### Barne-ekintzailetzaren tasari dagokionez (EEA<sup>8</sup>) EAEko datua % 2koa izan zen 2019an (Europako batezbestekoa: % 4,8; Estatuko batezbestekoa: % 6,1).

Datu horrek berretsi egiten du barne-ekintzailetzaren aldeko pizgarri sozialak eta korporatiboak sustatzen jarraitzeko beharra. Era berean, berrikuntzan oinarritutako ekonomietan, (adibidez, Euskadin) ekintzailetzaren (TEA) eta barne-ekintzailetzaren (EEA) artean dagoen korrelazio positiboa erakusten du.

<sup>8</sup>Barne-ekintzailetzako proiekturen batean parte hartu izana aipatzen duten langileen ehunekoa.



## A2.2. Ekintzailearen profila

GEM EAE 2019 txostenaren arabera, **ekiteko gaitasun duten ekintzaile helduak eta prestatuak ditu Euskadik, merkatuan aukerak daudela sinesten dutenak**. Giza kapital kualifikatua, enpresa munduko kultura eta pentsamoldearekin, batez ere, aukera zutelako ekin zutenak, eta egiteko gaitasuna dutela adierazten dutenak.

Txostenaren arabera, ekintzailetza etorkizuneko aukera bat izan daitekeen ustea mugatua da; ekintzailetzaren kultura eta balioak ez daude guztiz hedatuta euskal gizartean, eta ekintzaileek eta enpresariak garapen sozioekonomikoari egiten dioten ekarpena ez da behar adina aitortzen eta duin egiten.

Jarraian, EAEko **ekintzaileen ezaugarri nagusiak** laburtzen dira, azken GEM EAE 2019 txosteneko datuetatik eta azken urteetako batezbestekoarekiko konparaketatik abiatuta.


### Ekintzailearen profila Euskadi. Konparaketa denboran zehar

#### Ekintzailearen profila EAEn

##### Batezbest. 2007-2018

Nolakoa da?  
Bataz besteko adina

40 urte



Hezkuntza maila.  
Ikasketak


Lehen  
Hezkuntza edo  
baxuagoa %18

Bigarren  
Hezkuntza edo  
altuagoa % 82

##### 2019

Nolakoa da?  
Bataz besteko adina

38 urte



Hezkuntza maila.  
Ikasketak

Lehen  
Hezkuntza edo  
baxuagoa  
% 12

Bigarren  
Hezkuntza edo  
altuagoa  
% 88

Iturria: GEM EAE

- Euskadiko batez besteko ekintzaileak 38 urte ditu, heldua da, prestakuntza maila altua edo oso altua du, eta errenta maila ertain-altua.

- Aberastasuna edo errenta altua sortzea dira ekiteko arrazoi nagusiak (% 62,29, eta, jarraian, mundu mailan ezberdintasuna markatzeko asmoa (% 41,7).

- Ekiteko aukerak dauden pertzepzioa hazi egin da (2019an % 40,1ek uste zuten bazeudela aukerak, eta 2018an % 28,5ek).

- Ekiteko ezagutza eta gaitasunak dituztela uste duten herritarren kopuruak ere gora egin du (% 44,8tik % 50,3ra 2018tik 2019ra).

- Porrot egiteko beldurra dutenen kopurua igo egin da, aurreko urteetan behera egin arren. 2019an % 55,9koa zen tasa.

- Inguruan jende ekintzailea ezagutzen duten pertsonen tasa igo egin da. 2018an % 29,9 ziren, eta 2019an % 42.

- Bigarren Hezkuntzako edo goi mailako ikasketak dituzten ekintzaileen ehunekoa igo egin da (2007-2018 arteko batezbestekoa % 87,1ekoa zen, eta 2019koa % 87,1ekoa).


Azkenik, emakume ekintzaileen pisua apur bat igo da aurreko bi urteetako batezbestekoarekin alderatuta. 2019an ekintzaileen % 44,2 ziren emakumeak, eta aurreko bi urteetan, batez beste, % 42.

Ekiteko arrazoiei dagokienez, GEM txostenak aukera eta beharra bereizi izan ditu enpresa-jarduera hasteko arrazoi nagusi gisa. 2019 txostenean, ordea, aldaketa nabarmenak txertatu dituzte, eta arrazoi gehiago gehitu dituzte:

- Munduan ezberdintasuna markatzea
- Aberastasuna edo errenta oso altua sortzea
- Familiako tradizioarekin jarraitzeko nahia
- Lan-aukera alternatiborik eza

2019an aberastasuna edo errenta oso altua sortzea izan zen negozio bat sortzeko arrazoirik ohikoena EAEn (jendearen % 69,2). Pertsonen % 41,7k munduan ezberdintasuna markatzeko sortu zuten negozio bat, eta % 33k adierazi zuten lan-aukera alternatibo oso gutxi zituztela. Azkenik, gutxiengoa izan ziren familiako tradizioarekin jarraitzeko negozio bat sortu zutenak.

## Ekintzailearen arrazoiak ekiteko.



Iturria: GEM EAE 2019

### A2.3. Erakundearteko Mahaiaren adierazleen taula

Jardueraren adierazleei dagokienez, 2020ko neurketaren zain, azken urteetan bilakaera positiboa izan dute ardatz hauetako adierazleek: 1 (Kultura), 2 (Giza Kapitala), 4 (Finantzaketa eta inbertsioa) eta 5 (Merkaturako sarbidea).

JARDUERAREN adierazleak		2013ko neurketa	2014ko neurketa	2015eko neurketa	2016ko neurketa	2017ko neurketa	2018ko neurketa	2019ko neurketa
1. ardatza	Eusko Jaurlaritzak edo Foru Aldundiek finantzaturako ekintzailtza-sarie mobilizatutako proiektu-kopurua.	383	328	372	406	583	336	<b>405</b>
	Eusko Jaurlaritzak edo Foru Aldundiek finantzaturako enpresa-senaren aitorpenerako sari-kopurua	15	15	21	25	44	66	<b>54</b>
2. ardatza	Eragile publikoen bidez ekintzailtzaren gaineko oinarritzko prestakuntza jaso duen pertsona-kopurua, generoaren arabera	<i>2017an definitutako adierazle berria</i>				2.474	2.788	<b>3.026</b>
	Eragile publikoen bidez ekintzailtzaren gaineko prestakuntza aurreratua jaso duen pertsona-kopurua, generoaren arabera.	<i>2017an definitutako adierazle berria</i>				2.785*	2.962*	<b>2.975</b>
	Enpresen transmisioa bultzatzen duten jardueren kopurua	4	4	4	5	6	4*	<b>5</b>
3. ardatza	Dekretuen laguntzaz sortutako enpresa eta enpresari indibidualen kopurua	2.500	2.639	2.947	3.736	2.745	2.799	<b>2.592</b>
	Barneko ekintzailtzarako programetan parte hartzen duten enpresen kopurua	50	47	48	57	86	93	<b>48</b>
4. ardatza	Finantzaketarako eta inbertsiorako tresna publiko nagusiek enpresa ekintzaileei laguntzeko bideratutako ondarearen eta zorroaren zenbatekoa (€)	<i>2017an definitutako adierazle berria</i>				18.241.414	22.937.142	<b>24.606.079</b>
	Finantzaketarako eta inbertsiorako tresna publiko nagusiek partaidetzak dituzten enpresen kopurua	<i>2017an definitutako adierazle berria</i>				183	196	<b>229</b>
5. ardatza	BID4.0 programaren bidez Euskadin proiektu ekintzaileek egindako kontratuen eta sortutako enpresen kopurua.	<i>2017an definitutako adierazle berria</i>				40	44	<b>53</b>
6. ardatza	Eragile publikoen bidez egindako kontsulten kopurua.	8.330	8.141	8.069	7.990	8.549	7.459*	<b>7.092</b>
	Eragile publikoen aholkularitza jaso duten proiektuen kopurua.	4.224	4.404	4.048	4.891	4.588	4.391*	<b>4.473</b>
	Eragile publikoen laguntzaz egindako bideragarritasun-planen kopurua.	2.836	3.010	2.867	3.817	3.097	3.180	<b>2.909</b>
	Hazkundera eta lehiakortasuna bultzatzen duten jardueren kopurua	26	28	33	33	26	28	<b>29</b>
	Espanian enpresa bat modu indibidualen altan emateko behar diren egunen kopurua (Munduko Bankua)	23	13	14	14	13	13	<b>13</b>
7. ardatza	EAEn ekintzailtzari laguntzeko eguneratutako arauen edo arau berrien kopurua (fiskalak edo ekintzailtzaren ekosistemari laguntzen dioten beste arlo batzuetakoak)	<i>2017an definitutako adierazle berria</i>				3	3	<b>1</b>
8. ardatza	Inkubazioari laguntzeko azpiegitura publiko nagusiek inkubatutako enpresen kopurua.	<i>2017an definitutako adierazle berria</i>				151	123	<b>120</b>
	Urtean zehar inkubazioari laguntzeko azpiegitura publiko nagusiek hartutako enpresa berrien kopurua.	<i>2017an definitutako adierazle berria</i>				35	32*	<b>38</b>
	Urtean zehar inkubazioari laguntzeko azpiegitura publiko nagusietan haien egonaldia amaitu duten enpresen kopurua.	<i>2017an definitutako adierazle berria</i>				33	24*	<b>20</b>
9. ardatza	Euskadiko Ekintzailtzaren Erakundearteko Planaren testuinguruan egindako erakundearteko bileren kopurua.	2	45	10	10	34	14*	<b>16</b>

Inpaktuaren adierazleei dagozkien ondorio nagusiak lehenago aztertu ditugu.

INPAKTUAREN adierazleak		2013ko neurket a	2014ko neurket a	2015eko neurket a	2016ko neurket a	2017ko neurket a	2018ko neurket a	2019ko neurket a
1. ardatza	Datozen 6 hilabeteetan ekiteko aukerak jasoko dituzten pertsona ez-ekintzaileen %, generoaren arabera (GEM)	% 13,7 (Emakumeak: % 12,9, Gizonak: % 14,5)	% 22,2 (Emakumeak: % 20,5, Gizonak: % 24)	% 25,2 (Emakumeak: % 23,7, Gizonak: % 26,6)	% 22,5 (Emakumeak: % 21,5, Gizonak: % 26,6)	% 28,3 (Emakumeak: % 25,1, Gizonak: % 31,5)	% 27 (Emakumeak: % 24,6, Gizonak: % 29,4)	% 39,6 (Emakumeak: % 36,8, Gizonak: % 42,3)
	Porrot egiteko beldurra ekintzaitza hasteko oztopoa dela uste duten pertsonen %, generoaren arabera (GEM)	% 50,2 (Emakumeak: % 53,8, Gizonak: % 47,9)	% 45,4 (Emakumeak: % 49,5, Gizonak: % 43,6)	% 42,7 (banakatu gabe GEM 2015en)	% 48,4* (banakatu gabe GEM 2016en)	% 42,4 (banakatu gabe GEM 2017n)	% 42,7 (banakatu gabe GEM 2018n)	% 55,9 (banakatu gabe GEM 2019n)
2. ardatza	5 langiletik gorako negozio ekintzaileen % (GEM)	% 7,1	% 6,2	-	% 7,6	% 6,9	% 1,4	% 1,1
	Ekintzaitza-proiektu bat martxan jartzeko beharrezko gaitasunak dituztela uste duten pertsonen %, generoaren arabera (GEM)	% 43,2	% 44	% 40,5	% 42,1*	% 40,7	% 44,8	% 50
3. ardatza	Ekintzaitza-tasa guztira, generoaren arabera (GEM)	Guztira: % 3 (Emakumeak: % 2,6, Gizonak: % 3,3)	Guztira: % 3,7 (Emakumeak: % 2,7, Gizonak: % 4,6)	Guztira: % 3,4 (Emakumeak: % 3,1, Gizonak: % 3,6)	Guztira: % 3,3 (Emakumeak: % 3,2, Gizonak: % 3,4)	Guztira: % 5,8 (Emakumeak: % 4,7, Gizonak: % 6,8)	Guztira: % 5,1 (Emakumeak: % 4,6, Gizonak: % 5,6)	Guztira: % 4,7 (Emakumeak: % 4,1, Gizonak: % 5,2)
	Aukerak eta beharrak bultzatutako ekintzaitza-proiektuen % (GEM)	Aukera: % 74,1 Beharra: % 25,9	Aukera: % 65,6 Beharra: % 30,7 Beste batzuk: % 3,6	Aukera: % 73,1 Beharra: % 25,4 Beste batzuk: % 1,5	Aukera: % 74,3 Beharra: % 24,2 Beste batzuk: % 1,5	Aukera: % 76,5 Beharra: % 21,7 Beste batzuk: % 1,7	Aukera: % 72,7 Beharra: % 23,2 Beste batzuk: % 4,1	<i>Aldaketa adierazlean</i>
	Euskadin altan emandako autonomoen kopuruaren bilakaera (aurreko urtearekiko %) (Gizarte Segurantza)	+% 17,3	+% 11,6	-% 3,8	-% 3,4	-% 8,9	+% 8,0	-% 6
	Euskadin sortutako merkataritzako enpresen (anonimoak eta mugatuak) kopuruaren bilakaera (aurreko urtearekiko %) (EIN)	+% 6,7	+% 7,5	-% 8,9	-% 1,4	-% 4,2	+% 3,9	+% 0,6
	Azken hiru urteetan barne-ekintzaitzako jardueraren bat egin duten langileen % (GEM)	% 2,7	% 1,8	% 1,4	% 3,0	% 1,5	% 1	% 2
	Barne-ekintzaitzako proiekturen batean parte hartzen duten langileen % (GEM)	% 4,9	Neurtu gabeko datua GEM 2014en	Neurtu gabeko datua GEM 2015en	Neurtu gabeko datua GEM 2016en	Neurtu gabeko datua GEM 2017n	Neurtu gabeko datua GEM 2018n	Neurtu gabeko datua GEM 2019n
4. ardatza	Ekintzaileak berak jartzen duen hazi-kapitalaren % (GEM)	% 76	% 53,3	% 64,2	Neurtu gabeko datua GEM 2016en	% 45,8	% 58	% 58,7
5. ardatza	Nazioarteko orientazioa duten enpresen % (GEM)	% 13	% 21,6	% 25,5	% 24,2	% 25,2	% 24,2	% 21,5
	Bezero batzuentzat edo guztientzat berria den produktua edo zerbitzua eskaintzen duten negozio ekintzaileen % (GEM)	% 30,5	% 28,6	% 28,3	% 45,4	% 44,3	% 35	% 29
	Lehiakiderik gabeko edo lehiakide gutxiko negozio ekintzaileen % (GEM)	% 40,5	% 48,3	% 40,3	% 39,4	% 44,3	% 55,3	<i>Aldaketa adierazlean</i>
6. ardatza	Duela urtebete aholkularitza jaso ondoren sortutako enpresen kopurua eta urtebeteren buruan martxan jarraitzen duten enpresen kopurua, enpresak eta autonomoak berezita.	Enpresak: % 86,3 Autonomoak: % 90,1	Enpresak: % 89,7 Autonomoak: % 84,5	Enpresak: % 91,6 Autonomoak: % 83,8	Enpresak: % 96 Autonomoak: % 86,06	Enpresak: % 93 Autonomoak: % 89	Enpresak: % 96 Autonomoak: % 87,6	*Enpresak: % 98,4 Autonomoak: % 84,9
	Duela 3 urte aholkularitza jaso ondoren sortutako enpresen kopurua eta 3 urteren buruan martxan jarraitzen duten enpresen kopurua, enpresak eta autonomoak berezita.	Enpresak: % 86,7 Autonomoak: % 73,4	Enpresak: % 84,7 Autonomoak: % 74,3	Enpresak: % 86,6 Autonomoak: % 79	Enpresak: % 82 Autonomoak: % 71,5	Enpresak: % 78 Autonomoak: % 80	Enpresak: % 88,4 Autonomoak: % 79	*Enpresak: % 88,6 Autonomoak: % 71,2
	Finkatutako enpresen jabeak diren herritarren % (soldaten ordainketa 42 hilabetetik gorako tartean) (GEM)	% 7,9	% 8	% 7,1	% 4,9	% 5,6	% 5,8	% 7,6

### A3. Erakundeen eta araudiaren testuingurua

EEP 2024 nazioarteko, Estatuko eta tokiko instituzioen eta arauen testuinguruan kokatzen da, eta horrek baldintzatu egiten ditu lehentasunak eta ekintzailetzari laguntzeko tresnak.

#### Ekintzailetzaren Erakundearteko 2024ko Planaren erakundeen eta araudiaren esparrua

##### Nazioartekoa

<b>NBEren Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda</b> <i>People, Planet, Prosperity, Peace and Partnership</i>		
<b>Small Business Act</b>		
Ikerketarako eta Berrikuntzarako "Horizonte Europa" programa 2021- 2027	Europako finantzaketa 2021-2027 aldian	Europa jasangarriaren eta digitalaren alde egiteko estrategia ETE-entzat

##### Estatua

<b>Ekintzaileei eta haien nazioartekotzeari laguntzeko legea</b>	<b>Enpresa sortuberrien ekosistema sustatzeko legea (onarpen-prozesuan)</b>
Estatuaren Errekuperazio eta Erresilientzia Plan Nazionala	
<b>España Nación Emprendedora estrategia</b>	
España Digital 2025 plana	
ETE-en Politikaren Esparru Estrategikoa 2030	Gazteen Enplegurako Talka Plana 2019-2021

##### EAE

<b>Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiei Laguntzeko 16/2012 Legea</b>		
<b>Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuaren Legea (izapidetze-prozesuan)</b>		
<b>Kooperatiben Euskal Legea</b>		
<b>Lanbide Heziketako Legea</b>		
<b>Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legea, apirilaren 7koa</b>		
<b>Euskadiko Landa Garapenaren Legea eta Estrategia (izapidetze-prozesuan)</b>		
<b>XII Legealdiko Gobernu Programa 2020-2024</b> <b>"Euskadi martxan"</b>		
<b>Berpiztu - Euskadiko ekonomia eta enplegua suspertzeko programa 2020-2024</b>		
Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana - ZTBP Euskadi 2030	Hezkuntza Sistemako oinarriko kompetentzien dekretu arauemailea	<b>Euskadiko Elikaduraren eta Egurraren Balio Kateko Ekintzailetza Estrategia</b>
Ekonomia Sozialerako Sailarteko Plana (egiteko)	Lanbide Heziketaren Euskal Plana 2018-2021	IV. Unibertsitate Sistemaren Plana 2019-2022
Arabako Foru Aldundia: - Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Sailaren helburu estrategikoa - Arabako Ekonomia Suspertzeko Plana (PlanÁ)	Bizkaiko Foru Aldundia: Bizkaiko Foru Aldundiaren Bizkaia Goazen 2030 estrategia <b>- Bizkaia Startup Bay estrategia</b>	Gipuzkoako Foru Aldundia: - Plan Estrategikoa 2020-2030 - Gipuzkoako Ekonomia Suspertzeko eta Biziberritzeko Plan berria (egiten)

Lege mailan, indarrean jarraitzen du orain dela urte batzuk onartutako ekintzailetzarako laguntza-esparruak, baina lege esanguratsu batzuk izapidetze prozesuan daude (adb., Enpresa Sortu Berrien

Ekosistema Sustatzeko Estatu Legea). Euskadiri dagokionez, Kooperatiben Legea (2019) eta Lanbide Heziketako Legea (2018) dira berritasun esanguratsuenak.

Instituzio mailan, Nazio Batuen Erakundearen (Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda) eta Europar Batasunaren (Horizonte Europa 2021-2027 programa) lehentasunetako bat da ekintzaitza. Estatu mailan ere lehentasuna da, España Nación Emprendedora estrategiarekin eta España Digital 2025 planarekin. Erkidego mailan, ekintzaitza lehentasunezko jarduera-ardatza da Eusko Jaurlaritzaren XII. legegintzaldiko programan, baina Eusko Jaurlaritzako, foru-aldundietako eta udaletako hainbat sailtako estrategia eta planetan ere.

Jarraian, lehentasunen artean ekintzaitzari laguntzea duten eta EEP 2024ren jardute-testuingurua osatzen duten lege, plan eta estrategia nagusiak errebasatuko ditugu.

### A3.1. Nazioarteko testuingurua

#### **NBEren Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda**

2030 Agendaren helburua **munduko bakea sendotzea** eta **pobrezia desagerraraztearen** erronkari aurre egitea da, **garapen jasangarria** bermatzeko bete beharreko funtsezko baldintza baita hori. Horretarako, **17 helburu** zehazten ditu, garapen jasangarriaren hiru dimentsioak hartzen dituztenak: ekonomikoa, soziala eta ingurumenarena.

#### **Europako finantzaketa 2021-2027 aldian**

Europar Batasunak bi mekanismo sortu ditu COVID-19aren krisia eta krisi horrek Europari ekarritako erronkak gainditzeko, eta 2021-2027 aldirako 1,8 bilioi eurotik gorako finantzaketa-bolumena aurreikusi du:

Next Generation EU 750 mila M€		Hainbat Urtetarako Finantza Esparrua 1.074,3 mila M€	
Recovery and Resilience Facility (RRF)	672,5	Merkatu bakarra, berrikuntza eta ekonomia digitala	132,8
• Dirulaguntzak	360	Kohesioa eta balioak	377,8
• Maileguak	312,5	Baliabide naturalak eta ingurumena	356,4
ReactEU	47,5	Migrazioa eta mugak	22,7
Hainbat Urtetarako Finantza Esparruaren baitako programak (Beste programa batzuetako 30 mila M€-ak Hainbat Urtetarako Finantza Esparruaren barruan daude)	30	Segurtasuna eta Defentsa	13,2
		Auzotasuna eta munduko gainerakoak	98,4
		Europako Administrazio Publikoa	73,1

Zehazki, **Next Generation EU**k bi tresna berri ditu:

- **Recovery and Resilience Facility**. Tresna hau gauzatzea estatu-kide bakoitzaren Errekuperazio eta Erresilientzia Plan Nazionala prestatzeari eta onartzeari dago lotuta, hala, egiturazko erreformak sustatzeko. 672.500 milioi euro ditu esleituta, eta helburua estatuen inbertsioa eta erreformak babestea da, hala, suspertze jasangarria eta erresilientea lor dezaten, eta aldi berean, EBren lehentasun ekologiko eta digitalak susta daitezten.
- **ReactEU (Europako Lurraldeak eta Kohesioa Berreskuratze Laguntza)**: Egiturazko Funtzak gauzatzeari lotutako programa honek lehenik, 2014-2020 aldirako EGEF eta EGIF programa operatiboetan dagoen finantzaketa osatuko du.

Urte anitzeko Finantza Esparruak zazpi inbertsio-lehentasun hartzen ditu ardatz, enpresek nahiz erakundeek eskura ditzaketan laguntza-programekin. Enpresentzako, 1. lehentasunari lotutako programak dira intereseko programa nagusiak. Honako hau da 1. Lehentasuna: “Merkatu bakarra, Berrikuntza eta Ekonomia digitala”: Horizonte Europa, InvestEU funtsa, “Konektatu Europa” mekanismoa.

## **HORIZONTE EUROPA 2021-2027 programa**

2021-2027 aldirako Ikerketa eta Berrikuntzako Esparru Programa berriak 100.000 milioi euroko aurrekontua du, eta orain artekoetatik anbizio handienekoa da. Europar Batasunari I+G+b arloan munduko abangoardian eustea du helburua. Honako hauek ditu helburu aipagarrienak:

- Europar Batasuneko oinarri zientifiko eta teknologikoak eta Europako ikerketa-esparrua sendotzea.
- Europan dagoen berrikuntzarako gaitasuna, lehiakortasuna eta enpleguak sustatzea.
- Herritarren lehentasuna betetzea eta EBren eredu sozioekonomikoa eta balioak babestea.

Horizonte 2020 programak bezala, Horizonte Europa Programak ere hiru oinarri ditu:

1. Zientzia bikaina: Europar Batasuneko oinarri zientifikoaren bikaintasuna indartzea eta hedatzea.
2. Mundu mailako erronkak eta Europako industriaren lehiakortasuna: EBren politiken eta Garapen Jasangarrirako Helburuen euskarri izango diren funtsezko teknologiak eta irtenbideak sustatzea.
3. Europa berritzailea: abangoardiako berrikuntzak, eta merkatuak sortzen dituzten berrikuntzak sustatzea; baita berrikuntza sustatzen duten ekosistemak ere.

Berrikuntzen artean, aipagarria da Berrikuntzaren Europako Kontseiluaren sorrera. Helburua da inbertitzaile pribatuentzako arrisku handiegia duten abangoardiako berrikuntzak edo berrikuntza disruptiboak eta hedatzeko gaitasuna dutenak babestea. Zehazki, bi tresna osagarri jarriko dira abian ideiarene eta proiektu inbertigarriaren arteko distantzia laburtzeko:

- Esploratzailea: dirulaguntzak (teknologiaren fase goiztiarretik merkaturatzearen aurreko faseraino).
- Bizkorgarria: dirulaguntzak eta finantzaketa konbinatua (merkaturatzearen aurreko fasetik merkatuko eta hedatzeko faseraino).

## **Europa jasangarriaren eta digitalaren alde egiteko estrategia**

2020ko martxoaren 10ean onartu zuten, eta helburua Europako enpresa txiki eta ertainek (ETE) jasangarritasunerako eta digitalizaziorako trantsizio bikoitz hori gidatzeko duten gaitasuna babestea da, hala, enpresa-praktika jasangarrietan parte hartzen duten ETE-en kopurua eta teknologia digitalak erabiltzen dituzten ETE-en kopurua handitzeko. Azken finean, Europa leku erakargarri bihurtu nahi da enpresa txiki bat abian jarri, hazi, eta merkatu bakarrean zabaltzea lortzeko.

Estrategiak hiru ardatzen inguruko neurriak planteatzen ditu:

- Gaitasunak garatzea eta laguntza ematea jasangarritasuna eta digitalizazioa lortzeko trantsiziorako;
- Araudi-zama murriztea eta merkaturako sarrera hobetzea; eta
- Finantzaketarako sarbidea hobetzea.

Neurri nagusien artean ekintzaitzari modu espezifikoan lotutako jarduerak nabarmentzen dira; adibidez, hauek:

- Genero-ikuspegia aintzat hartzen duen finantzaketa-ekimen bat abian jartzea enpresen finantzaketa eta emakumeek zuzendutako funtsak sustatzeko, eta emakumeen ekintzaitza indartzea.
- Europako Erkidegoak Ekintzaitza Estrategikorako Enbaxadoreen talde bat abian jartzea.

## **Small Business Act**

2008tik, *Small Business Act* delakoak ETE-*ei* laguntzeko esparrua definitzen du Europako ekonomian, eta enpresa berriak sortzea sustatzen du *Think Small First* printzipioa aplikatuz. Helburuen artean ditu ekintzaitza sustatzea, araudiei lotutako oztopoak murriztea, eta ETE-ek finantzaketa eskuratzea eta nazioarteko merkatuetara sartzea. Zenbait neurri planteatzen ditu; besteak beste, irakasleen eta gazteen artean espirtu berritzailea eta enpresa-espirtua sustatzea eta gizartearen jarduerari bati berrekin nahi dioten enpresaburuei buruz jarrera positiboa sustatzea.

### A3.2. Estatuko testuingurua

#### **Ekintzaileei eta haien nazioartekotzeari laguntzeko legea**

2013ko irailaren 27an, Europako arauen esparruan, 14/2013 Legea onartu zuten, ekintzaileei eta haien nazioartekotzeari laguntzeko legea, eta zenbait aldaketa ekarri zituen ekintzailetza-jarduera garatzeko esparruan. Indarrean jarraitzen dute aldaketa horiek:

- Enpresa bat sortzeko ezarritako epeak eta zenbatekoak murriztea.
- Banakako enpresariak zorretik liberatuko dituen kaudimengabezia-prozedura bat sortzea.
- Erantzukizun mugatuko bi forma juridiko berri sortzea: “erantzukizun mugatuko ekintzailea” eta “Jarraikako prestakuntzako sozietate mugatua”.
- Interes orokorreko proiektuak lantzen dituzten ekintzaile guztiei Espainian bizilekua izateko baimena ematea.
- Ekintzaileentzat errenta finkoko merkatu alternatiboak sortzea.
- “Kutxako BEZa” irizpidea praktikan jartzea.
- Inbertsio partikularretarako kenkari fiskalak ezartzea.
- Sozietateen gaineko Zergaren tributazioa % 10 jaitea eta % 15ean ezartzea.

#### **Enpresa sortuberrien ekosistema sustatzeko legea (onarpen-prozesuan)**

“España Nación Emprendedora” estrategian kokatuta dagoen Lege hau izapidetza-prozesuaren hasieran dago, eta besteak beste, honako helburu hauek lortzeko lege-esparru espezifikoa izango dela dago aurreikusita:

- Enplegua sortzeko eta hazteko, berrikuntza eta aberastasuna sortzeko potentzial handia duten enpresa hasiberrien espezifikotasuna aitortzea.
- *Startup* berriak sortzen eta horiei hazten laguntzea.
- Zientziaren arloan ekintzailetza sustatzea, dituzten behar espezifikoari arreta jarrita; adibidez, ingurune akademikoari edo ikerketakoari lotutako enpresetako ikertzaileen lanarekin lotutakoak, edo horietan sortutako jabetza intelektualeko eskubideak besterentzea.
- Ekintzailetza digitalaren ekosistema indartsua sustatzea, berrikuntzako eduki askorekin eta kalitatezko enplegu egonkorra sortuko duena.
- Espainia lehentasunezko leku bihurtzea, Europako entitate inbertitzaileek eta *startupek* haien negozioak ezartzeko leku gisa aukera dezaten.

Aurretiaz, Legeak neurri fiskalak (*stock options*) eta Gizarte Segurantzakoak izango lituzke, *startupe*ei eta inbertitzaileei zuzendutakoak; baita arrisku-kapitaleko funtsak (Venture Capital eta Private Equity) eta *business angels* direlakoak garatzeko neurriak ere. Atzerriko talentua erakartzea, Startupen bisa bat sortzetik hasi eta atzerriko entitate inbertitzaileak identifikatzeari lotutako prozedura jakin batzuk digitalizatzeraino, eta inbertsioak formalizatzea. Horiek dira Lege honek ekarriko dituela aurreikusten diren beste neurri batzuk.

#### **Estatuaren Errekuperazio eta Erresilientzia Plan Nazionala**

Plan Nazionala Europar Batasunak Covid-19aren eraginez sortutako egoera ekonomiko eta sozial berriari aurre egiteko sustatuko zenbait urterako finantzaketa-mekanismoen baitakoa da, eta zehazki Next Generation EU Errekuperazio Funtsaren baitakoa. Herrialdeko proiektu bat da plana hau, eta ekonomia modernizatzeke, hazkunde ekonomikoa suspertzeke eta enplegua sortzeko ibilbide-orria ezartzen du, hala, COVIDaren krisiaren ondoren, ekonomia sendo, inklusibo eta erresilientea berreraikitzeke eta datorren hamarkadako erronkei erantzuteke.



Lau ardatzen inguruan dago eratu, eta hazkunde jasangarri eta inklusiboa lortzeko egiturazko erreformetarako 10 politika ezartzen ditu; horien artean, aipagarria da “Industria ehunaren eta ETE-en modernizazioa eta digitalizazioa, turismoa berreskuratzea eta nazio ekintzaile izango den Espainiari bultzada bat ematea”. Horren helburua, besteak beste, industria-politika berri bat bultzatzea da, eta politika horrek negozioetako giroa hobetzea, inbertsioen alde egitea eta enpresak sortzea eta haztea sustatzea, ETE-en neurria eta produktibitatea handituz, eta estatua ekintzailetzari eta, bereziki, *startup* teknologikoei babesa emateari begira, erreferentzia bihurtzea.

## **España Nación Emprendedora estrategia**

España Nación Emprendedora delakorako goi-komisarioak zuzentzen du (Gobernuko Presidentetzaren mendekoa da) estrategia hau, eta helburua Espainia, 2030ean, herrialde ekintzaile nagusien artean egoteko beharrezkoak diren neurri guztiak hartzea da. Gobernuko presidentek Web Summit kongresuan eginiko adierazpenen arabera, estrategia lau helburu nagusiren inguruan dago egituratuta:

- Startupetan inbertsioen igoera bizkortzea Espainia lider diren herrialdeen parean (adibidez, Alemania eta Frantzia) kokatzeko.
- Espainia talentuarentzako paradisu bihurtzea, profesional onenak erakartzeko, bertan edukitzeko eta garatzeko baldintza egokiak ezarri.
- Enpresen eskalabilitatea sustatzea, ekintzaileek saltzera jo beharrean, haztera jo dezaten.
- Berrikuntza, produktibitatea eta gizarte-inklusioa sustatuko dituen “Sektore Publiko Ekintzailea” lortzeko inbertitzea.

Planak ekonomiari tiratuko dioten sektore giltzarriak zein diren zehazten du: industria, turismoa, kultura, kirola, mugikortasuna, osasuna, berrikuntza jasangarria, energia eta trantsizio ekologikoa, finantzen sektorea, bioteknologia, digitalizazioa eta telekomunikazioak eta nekazaritzako elikagaiak.

Eta 50 neurri jasotzen ditu:

### **Lehentasunezko neurriak**

- 1 Espainiarentzako nazio ekintzaile izatearen marka
- 2 Oficina Nacional de Emprendimiento (Ekintzailetzaren Bulego Nazionala) (ONE) sortzea
- 3 Enpresa Sortuberrien Ekosistema Sustatzeko Legea
- 4 RENACE, Ekintzailetza-zentroen Espainiako Sarea
- 5 *Scaleup Spain*: eskalagarritasunerako laguntza
- 6 Emakumeen talentua erakartzeko nazioarteko programa
- 7 Bisen programa
- 8 Bandera programa
- 9 Erosketa publikoa berrikuntzaren motor gisa

### **Inbertsioa**

- 10 Ekintzailetza Sozialerako Plan Nazionala
- 11 AIZ (Atzerritarren identifikazio-zenbakia) arin izapidetzea atzerriko inbertitzaileentzat
- 12 Enpresen egoitzak Espainiara erakartzea
- 13 *Stock options*
- 14 Inbertsio pribatua hazi-fasean
- 15 Emakumeak inbertsioan
- 16 Pentsio-funtsak
- 17 Inbertsioa zorrean
- 18 Inbertsioa familiako ondareetan (*family offices*)
- 19 Merkatu alternatiboak
- 20 Ezagutzaren transferentzia sustatzea
- 21 Enisa eta CDTIren balibideak
- 22 Bultzada berrikuntza irekiari
- 23 Jatorri pribatuko I+G+b

### **Sektore publiko ekintzailea**

- 24 *Sandbox*: testatzeko ingurune publikoak
- 25 Arautze intelijentea
- 26 Datu publiko irekiak
- 27 Erabiltzaile-esperientziaren diseinua herritar eta enpresentzat
- 28 Funtzio publiko ekintzailea
- 29 Langile Autonomoen Araubide Berezia
- 30 Nomada digitalentzako bisa
- 31 ETE berritzailea lizitazio publikoetan
- 32 Gizarteko eta ingurumeneko inpaktua ekimen publikoak balioztatze irizpide gisa
- 33 Presentzia parekidea ekitaldietan
- 34 Genero-berdintasunaren irizpidea kontratazio publikoan

### **Eskalagarritasuna**

- 35 Nazioarteko aliantzen estrategia
- 36 Ezagutzaren Transferentziarako Bulegoak (OTC)
- 37 Malgutzea irakasleentzat eta ikertzaileentzat
- 38 Ikertzaileen merezimenduak aitortzea
- 39 Teknologia-zentroak eta zientzia- eta teknologia-parkeak
- 40 Nazioaren defentsa ekintzailetza berritzailearen motor gisa
- 41 Hiri-garapen ekonomiko berritzailea
- 42 Ekintzailetza berritzailearen lurralde-garapena

### **Talentua**

- 43 Hezkuntza eta ekintzailetza
- 44 Unibertsitatea eta ekintzailetza
- 45 Lanbide-heziketa berritzailea
- 46 Bizitza osoan ikastea
- 47 Genero-arrakalari jarraipena ekintzailetza berritzailean, EINen bidez
- 48 STEAM bokazioak emakumeetan
- 49 Amabitxigoa eta mentoretza emakumeentzat
- 50 Senior talentua

## **España Digital 2025 plana**

España Digital 2025 plana eraldaketa digitala sustatzeko agenda bat da, honako hauek indartzeko bidean bultzatzaile izan dadin: hazkunde ekonomikoa, berdintasun-faltaren murrizketa, produktibitatearen igoera eta teknologia berriek ematen dituzten aukeren aprobetxamendua.

Planak zenbait neurri, erreforma eta inbertsio dakartza, Europako Batzordeak aro berrirako dituen politika digitalekin bat datozen hamar ardatz estrategikotan egituratuta. Zehazki, 6. ardatzak, Enpresaren eraldaketa digitala eta ekintzaitza digitala, honako hau du helburua: “*Enpresen digitalizazioa bizkortzea, arreta berezia eskainita mikroETE-*ei eta startupe* (2025erako xedea: merkataritza elektronikoa % 25eko ekarpena ETE-en negozio-bolumenari)*”. Zenbait neurri ezartzen ditu, helburu hauekin:

- ETE-en eraldaketa digitala bizkortzea
- Estatuko bertako eta nazioarteko ekintzaitza digitala sustatzea
- Estatuko ekintzaitza digitala nazioartekotzea sustatzea
- Estatuan *startup*entzako kapital pribatuaren sektorea indartzea
- Munduko gainerako lekuetako telelangileak erakartzea

Hona hemen zehaztutako neurri nagusiak:

- ETEak digitalizatzea sustatzeko plana: ETE-en digitalizazio-prozesuak bizkortzea, haien ekoizpen-prozesuetan teknologia berriak erabiltzea eta datuen erabilera intentsiboa sustatuz.
- Acelera pyme programa: arlo publiko-pribatuarekin elkarlanean sortutako neurri multzoa, sektore ekonomiko guztietako ETE-en digitalizazio- eta modernizazio-prozesua babesteko, epe laburrean haien jarduera ekonomikoari eusten laguntzeko eta epe ertainean produktibitatea hobetzeko.
- Oficina Nacional de Emprendimiento (Ekintzaitzaren Bulego Nazionala) (ONE): plataforma birtual hau topaleku bat da, ahaleginak biltzeko leku bat eta ETE, autonomo eta enpresa sortu berrientzako erreferentzia, ekintzaitza digitalari lotutako gaietan. Ekintzaitza babesteko lehendik dauden babes-sareentzako “aterki” bihurtzea du helburua, Ekintzaileei Arreta emateko Guneen sarearekin koordinatuta eta elkarlanean.
- España Nación Emprendedora programa, ekintzaitza digitalari eta *startupe* laguntzeko: España Nación Emprendedora estrategiarekin bat datozen ekintzak, helburu hauek lortzeko: ekintzaitza digitala sustatzea, ekintzaitza digitalari buruzko web-atari bat sortzea hedapenerako eta ekintzaile digitalari lotutako eragileen arteko lankidetzarako mekanismo gisa, GJHeekin lotutako arloak sustatzea, eztabaida-foro bat sortzea *startupe*ekin eta ekintzaitza digitaleko ekosistemako eragileekin batera; eta arauak eta programa hobetzea *startupe*ak nazioartekotzeko eta kapitala nahiz atzerriko talentua erakartzeko.
- Ekintzaitzari laguntzeko finantza-arkitektura publikoa modernizatzea: Ekintzaitza digitalaren eta ETE-en finantzaketa publikorako tresnak indartzea, funts-publiko-pribatu bat sortuta, hala, funts horrek, funts pribatuekin batera, inbertsioak egin ditzan hazteko eta enplegua sortzeko potentzial handia duten ETE eta *startup* teknologikoetan.
- Ekintzaitzari lotutako zentroen arteko elkarlanerako programa: ONE eraldaketa digitala eta ekintzaitza sustatzen dituzten zentroekin konektatzeko estrategia.

### **ETE-en Politikaren Esparru Estrategikoa 2030**

Gobernuaren Aldaketaren Agendan kokatuta eta Garapen Jasangarrirako Helburuekin bat etorrira, beste plan eta estrategia batzuekin koordinatuta, dokumentu honek epe luzerako jarduera-esparru politikoa zehazten du estatuko administrazio publikoentzat enpresa txiki eta ertainen arloan.

Gomendio multzo bat da, zazpi palankatan antolatua, eta horien artean aipagarria da Ekintzaitza jarduera-esparru estrategiko gisa. Zenbait ildo estrategiko ere zehazten ditu hezkuntza-ereduan ekintzaitza txertatzeko, izaera ekintzailea sustatzeko eta enpresa-ekimenak abian jartzeko eta garatzeko ingurune egokia sortzeko. Honako hauek nabarmentzen dira:

- ETE kultura indartzea eta espiritu ekintzailea sustatzea.
- Ekintzaitzarako ekosistema sustatzeko neurriak ezartzea.
- ETE bat sortzea sinpletzeko bidean eta laguntza-zerbitzuen hobekuntzan eta garapenean aurrera egiten jarraitzea.

## **Gazteen Enplegurako Talka Plana 2019-2021**

Helburuen artean ditu konpetentzia estrategikoei lotutako prestakuntza, lanbide-heziketa duala, eskubidedun enplegua eta gazteen ekintzaitza babesteko ekimenak garatzea.

Ekintzaitzaren 5. ardatza ezartzen du bere jarduera-eremuen artean, eta 5. ardatz horretan sartzen dira enpresa-ekimena, lan autonomia eta ekonomia soziala sustatzera zuzendutako jarduerak; baita enplegua sortzera, enpresa-jarduerara eta tokiko garapen ekonomikoaren dinamizazio eta sustapenera bideratutakoak ere. Zehazki, honako helburuak ezartzen ditu:

- **1. helburua:** Gazteen artean enpresa-ekimena, lan autonomia eta ekonomia soziala sustatzea.
- **2. helburua:** Aktibiziorako eta lan-munduratzeko politiketan txertatzea ekintzaitza, lan autonomia eta ekonomia digitalak nahiz ekonomia sozialaren eta plataforma digitalen ekonomiaren formula berriek eskaintzen dituzten lan-aukera berriak.
- **3. helburua:** Prestakuntza eta aholkularitza ekintzaileei negozioaren xedeari eta mikroenpresak kudeatzeko teknikei buruz.
- **4. helburua:** Enplegua sortzera, enpresa-jarduerara eta tokiko ekonomiaren garapenaren dinamizazio eta sustapenera bideratutako neurriak sustatzea.
- **5. helburua:** Ekoizpen-sektoreekin eta lurraldeko entitateekin elkarlanerako esparruak ezartzea enplegu-eta prestakuntza-politiken ikuspegi integrala ezartzea errazagoa izan dadin; baita lan autonomoaren eta ekonomia sozialaren ordezkari diren erakundeekin ere.

### A3.3. Euskadiko testuingurua

#### **Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiei Laguntzeko 16/2012 Legea**

2012ko ekainaren 28an onartutako legeak, ekintzaileen gaitasunak garatzeko esparru egokia sustatzen du hiru aldetatik begiratuta jasangarria den ekintzailetza-jardueraren bidez.

Europako araudiaren «*think small first*» printzipioa oinarri hartuta, Lege honen helburua ekintzailetza-espirtua haren zentzurik sakonenean sustatzea da (pertsonaren jarrerena, lehentasunena eta gaitasunena). Faktore horiek espirtu hori babesten duten balioak indartzea eskatzen du, gizarte osoaren aurrerabide sozialaren eta ekonomikoaren alde eginez; bereziki baliabide eta aukera gutxien duten sektorearen aurrerabidearen alde eginez. Legearen beste helburu bat pizgarri-sistema egoki bat sortzea da, ideiak eta ekintzailetzarako trebetasunak balioa sortuko duten jarduera izatera bideratzeko.

Xede horretarako, lau oinarri ditu Legeak:

- **Hezkuntza**: enpresa-etika, erantzukizun soziala eta ekintzailetza-jarduerari dagozkion beste balio batzuk (ahalegina, pertsona gisa errealizatzea, lidergoa, taldeen kudeaketa, gatazkak konpontzea, ikaskuntza, lankidetzeta, arriskuak hartzeko gaitasuna...) nabarmentzea eta Bigarren Hezkuntzan enpresaren eta hezkuntzaren munduak lotzea sustatzea. Lanbide Heziketaren arloan, eskaintza enpresen prestakuntza-beharretara etengabe egokitzearen alde egiten du, eta prestakuntza sustatzen du ekintzailetzari lotutako berrikuntzan eta ekimenean. Era berean, unibertsitateko prestakuntzak ekintzailetza-jarduerari ekarpena egiten diola bermatzeko helburuak ezartzen ditu.
- **Sinpletze administratiboa**: ekintzailetza-jarduerari kostua handitzen dioten karga administratiboak, pixkanaka murriztearen eta kentzearen alde egitea, epeak murriztea, prozedurak bateratzea eta erabiltzen den hizkuntza sinpletzea.
- **Ekintzailetza-jarduerari laguntza**, eta horretarako, leihatila bakarra, ekintzaileei eta enpresa txikiei laguntzeko politika guztiak Ekintzailetzako Sail arteko Mahaitik koordinatzea, langabeziagatiko prestazioa osorik kapitalizatzea, jarduera hastean udal-tasak konpentsatzea, enpresa berritzaileei laguntzea, Hazi Kapital Misto Publiko-Pribatuko Funtsa sortzea eta mikrokredituak.
- **Business angels (BBAA) direlakoak sustatzea**, sare horiei dirulaguntzak emanda, arlo publikoak eta pribatuak inbertsioak elkarrekin egiteko mekanismoak eta BBAAen direktorio bat sortuta.

#### **XII Legealdiko Gobernu Programa 2020-2024: “Euskadi martxan”**

Eusko Jaurlaritzaren XII. Legealdiaren gobernu-programak 2024rako erakunde-lehentasunak zehazten ditu eta COVID-19aren pandemiak sortutako osasun-krisiaren, krisi ekonomiko, sozial eta emozionalaren ondorio negatiboak murriztera bideratutako hiru oinarri ditu:

- **Osasuna bermatzea**, osasun arloko araudi-tresnak eta gobernu-tresnak eguneratuz, sortu diren mehatxu berriak ikusita.
- **Ekonomia eta enplegua berraktibatzea**, partekatutako helburu gisa jarrita enpleguei eustea eta prekarietate nahiz aldi baterakotasunaren aurkako borroka genero-ikuspegitik egitea, ekonomia suspertzearekin batera, hala, berriro hazkundearen bideari ekiteko eta langabezia-tasa % 10etik behera jaisteko. Azken hori, programan, herrialdearentzat zehaztutako helburu nagusietako bat da, industrian eta zerbitzu aurreratuetan BPGren % 40 gainditzeko helburuarekin batera.
- **Atzean inor ez uztea** eta gizartearen kohesioari eustea, zerbitzu publikoak bermatuz, gizarte politiken aldeko apustu irmoa eginez eta zaurgarritasun handieneko egoeran dauden pertsona eta taldeekiko elkartzasunez jokatzu.

Programak ekintzailetzaren aldeko apustua ere jasotzen du zenbait konpromisoren bidez. Konpromiso horiek I. ardatzaren (Oparotasuna. Enplegua eta berraktibatze ekonomikoa) eta II.aren (Pertsonak. Osasuna, hezkuntza, zerbitzu publikoak, berdintasuna, politika sozial eta kulturalak, bizikidetzeta eta giza eskubideak) esparrukoak dira, eta horiei erantzuten die EEP 2024k bere ardatz eta ekintzetan. Bereziki, konpromiso hauek nabarmentzen dira:

ARDATZA	Jarduera- eremua	Konpromisoa	Egitasmo espezifikoak
I. Oparotasun a	1. Lehenasun bat: enplegua	5. konpromisoa. Mikroekintzaitza bultzatzea eta autonomoei eta mikroETE- <b>ei laguntzea</b> (Lan eta Enplegu Saila)	<p><u>1. egitasmoa.</u> 4.000 mikroenpresa berri eta autonomoen 5.500 enplegu berri sortzen laguntzea. Horretarako, ekintzaitzarako prestakuntza-programa berriak jarriko dira abian ikastetxeetan, beste eragile sozial batzuekin elkarlanean; baita lan-munduratzeko zailtasunak dituzten kolektiboetako pertsoneri lagun egiteko eta laguntzeko jarduerak ere, mikroenpresak sortzen edo autoenplegua abian jartzen laguntzeko.</p> <p><u>2. egitasmoa.</u> Ekintzaitza eta intraekintzaitza sustatzeari lehenasuna ematea, batez ere, digitalizazioari, <i>green economy</i> bidezko trantsizio ekologikoari, <i>silver economy</i> zahartze aktiboari eta zaintzaren ekonomiarri lotutako enpleguen harrobi berrietan.</p> <p><u>3. egitasmoa.</u> Ekintzaitzaren arloan erakundeen arteko lankidetzaren indartzea foru-aldundiekin, udalekin, eskualdeetako garapen-agentziekin eta arlo honetako beste eragile batzuekin lankidetzak akordioak sinatuta.</p>
	3. Ikerketa eta berrikuntza	26. konpromisoa. Ekintzaitza berritzailea babestea (Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila)	<p><u>1. egitasmoa.</u> Ekintzaitzaren arloko erakundearteko plan berria onartzea foru-aldundiekin, udalekin eta ekintzaitzaren euskal ekosistemako eragile garrantzitsuenekin elkarlanean.</p> <p><u>2. egitasmoa.</u> Ekintzaileei eta ekintzaileek gizarteari egiten dioten ekarpenari aitortpen publikoa egiteko ekintzak garatzea.</p> <p><u>3. egitasmoa.</u> Hezkuntzan, zientzia-teknologian eta enpresa arloan ekintzaile-izaera eta kultura sustatzeko programa bat abian jartzea.</p> <p><u>4. egitasmoa.</u> BIND 4.0 ekimena indartzea eta enpresa berri berritzaileak eta oinarri teknologikoa dutenak sortzen laguntzeko azpiegiturak eta zerbitzuak hobetzea, leihatila bakarraren funtzioa beteko duen atari zentralizatu bat garatuta.</p>
	4. Elikadura eta landa- ingurunearen eta itsasertzen garapena	30. konpromisoa. Nekazaritzako elikagaien euskal sektorea indartzea ekintzaitzaren, berrikuntzaren eta klima aldaketaren arloko erreferentzia gisa (Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila)	<p><u>3. egitasmoa.</u> Elikaduraren arloan ekintzaitza sustatzea BIND 4.0 programa indartuta eta EIT Food (European Innovation Technology) delakoaren euskal egoitzan sortutako <i>startup</i>ak Euskadin ezarrita.</p>
II. Pertsonak	10. Hezkuntza- sistema	60. konpromisoa. Talentua sustatzea, emakumea integratzea eta lanbide- heziketaren ingurunean enpresa berrien sorrera sustatzea (Hezkuntza Saila)	<p><u>3. egitasmoa.</u> Lanbide-heziketaren arloan enpresen sorrera sustatzea Urratsbat programa garatuz, tokiko garapen-agentziekin elkarlanean.</p>

Era berean, Eusko Jaurlaritzak legealdirako dituen plan estrategikoak ezartzen ditu programak, eta horien artean aipagarriak dira, ekintzaitzarekin duten loturagatik, Enplegurako Plan Estrategikoa 2030, Industriaren Garapenerako Plan estrategikoa 2030, Enpresak Nazioartekotzeko Plana 2021-2024, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Plan Estrategikoa –ZTBP Euskadi 2030–, Lanbide Heziketako Euskal Plana eta Unibertsitate Sistemaren Plana.

### **Berpiztu - Euskadiko ekonomia eta enplegua suspertzeko programa 2020-2024**

“Berpiztu” COVID-19aren pandemiak sortutako ekonomiaren eta enpleguaren krisia gainditzeko euskal erakundeek emandako erantzuna da, hala, Eusko Jaurlaritzak eta hiru foru-aldundiek aurkeztutako lehenetsuneko konpromiso politikoan jasotako helburu komuna lortzeko: galdutako enplegu guztia berreskuratzea eta langabezia-tasa % 10etik jaitea.

Programak enplegua sortzea eta ekonomia berraktibatzea nahiz eraldatzea du ardatza, eta Euskadiko eragile ekonomiko eta sozialei ziurtasuneko aurrekontu-horizontea planteatzen die, eta konektatu egiten du euskal erakundeen elkarlana, Eusko Jaurlaritzaren eta hiru foru-aldundien artean adostutako konpromisoen dekalogoan jasotakoa. Honako hauek dira konpromiso aipagarriak: Konpromisoa inbertsioa publikoarekin (*13.250 milioi euroko ahalgin publikoa ekonomia berraktibatze eta enplegua dinamizatze*), konpromisoa enpleguarekin (*langabezia-tasa % 10etik jaitea eta 130.000 enplegu dinamizatzea*) eta konpromisoa gazteekin (*lehen lan-esperientzia 25.000 gazte baino gehiagorentzat, hezkuntza-mundutik lan-munduratzeko trantsizio-programetan, kontratazioarako konpromisoa duen prestakuntza, prestakuntza duala enplegurako, gazteen ekintzaitza eta nazioarteko espezializazioa*).

Zehazki, II. ardatzak, enplegua sortzeari buruzkoak, ekintzaitzari lotutako politikak barne hartzen ditu:

- **7. politika: Ekintzaitza. Enpresa berriak:** ekintzaitza osotasunean bideratzeko helburua du, gizartearentzako duen garrantzi estrategikoari balioa emanda. Hori horrela, beharrezkoa da Euskadiko ekintzaitzaren kultura biziberritzea, lurralde ekintzaile gisa duen posizioa indartuz eta ekintzaileak garapen ekonomikorako, kalitatezko enplegua eta kohesio soziala lortzeko duen ahalmena aprobetxatuz. “Ekintzaitza-Enpresa berriak” arloak 128 M €-ko aurrekontu-inbertsioa du, eta egindako kalkuluen arabera, 10.790 enplegu sorrarazteko inpaktua, 5 jarduera-ildotan garatuta.

ARDATZ A	Politika	Lehenetsuneko jarduera-lerroak
II. Enplegua sortzea	<b>7. Ekintzaitza-Enpresa berriak</b>	<p>1) <b>Sortu berri diren MikroETEak eta autonomoak:</b> Ekintzaileei ideia garatzen eta enpresa-proiektua abian jartzen laguntzea, enpresa sortu arteko prozesuaren fase guztietan lagun eginez.</p> <p>2) <b>Enpresa berritzaile berriak:</b> Kalitatezko enplegua sortzen lagunduko duten ETE teknologiko eta berritzaile berriak sortzen laguntzea.</p> <p>3) <b>Nazioarteko startupak erakartzea:</b> Euskal enpresa handiak mundu osoko <i>startupekin</i> konektatzea eta Euskadin hazteko ahalmen handiko enpresa berritzaileak finkatzeko sustapen-lana egitea.</p> <p>4) <b>ETE berriak lehen sektorean, ekonomia soziala, merkataritza eta turismoa:</b> Programa espezifikoaren bidez, sektore horietan enpleguak sortzeko ahalmena duten enpresa berriak sortzen laguntzea.</p> <p>5) <b>Enpresa-proiektu berriak:</b> Enpresa baten baitan sortutako proiektu berriei intraekintzaitzaren bidez laguntzea. Euskal enpresen barneko potentziala aprobetxatzeko aukera ematen duten proiektuak izango dira. Horrez gain, inbertsio berritzaileak egitea, lehendik dauden enpresetan enplegua sortzeko edo enpleguari eusteko.</p>

- **12. politika: Talka-plana. Gazteen enplegua:** gazteak lan-munduratzeko sustatzeko, zeharkako politika koordinatu baten bidez, garapen pertsonala eta profesionala erdiesteko beharrezkoak diren prestakuntza, kompetentziak eta esperientzia eskura ditzaten.

“Konpromisoa gazteen enpleguarekin” arloak 162 M €-ko aurrekontu-inbertsioa du, eta egindako kalkuluen arabera, 25.800 enplegu sorrarazteko inpaktua. Zenbait jarduera-ildotan garatuko dira, eta ekintzaitza sustatzeari dagokionez, lehentasunezko hiru jarduera ildo nabarmentzen dira:

ARDATZA	Politika	Lehentasunezko jarduera-lerroak
II. Enplegua sortzea	<b>12. Talka-plana. Gazteen enplegua</b>	<p>1) <u>Gazteen itzulera</u>: Enpresek Euskadirekin lotura duten pertsonak kontratatzekeo sustapen-lana egitea: prestakuntza Euskaditik kanpo jaso ondoren, bertara itzuli nahi dutenak edo azken 6 hilabeteetan itzuli direnak.</p> <p>2) <u>Gazteen ekintzaitza</u>: Unibertsitateko eta lanbide heziketako ikasleen artean ekintzaitzaren kultura sustatzea, bertako unitate espezializatuetatik enpresa berrien sorrera sustatuz eta babestuz, ekintzaileari hasierako ideiatik hasi eta enpresa berria sortzen duen arte lagun egiteko.</p> <p>3) <u>Gazteak lan-munduratzeko ekintza berritzaileak</u>: Lehen lan-aukeraren bila dabilzan gazte tituludunen enplegarritasuna hobetzera zuzendutako jarduerak.</p>

### **Erkidego mailako baste plan eta/edo lege batzuk, EEP 2024rentzat esanguratsuak direnak**

Eremua	Estrategia	Deskribapena
Eusko Jaurlaritza	<b>Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana - ZTBP Euskadi 2030</b>	ZTBP Euskadi 2030en helburua euskal gizartearen bizi maila eta enpleguaren kalitatea hobetzea da, horretarako, Euskadi, 2030ean Europako eskualde aurreratuenetako bat bihurtuko duen berrikuntza-politika erabilita.
	<b>Lege berria (izapidetze-prozesuan) eta Euskadiko Landa Garapenerako Estrategia</b>	Etorkizuneko ikuspegi bat planteatzen du, eta ikuspegi horretan, euskal landa-ingurunea funtsezko faktorea da bertako garapen eta kohesio ekonomiko, soziala eta lurraldekoa lortzeko. Berrikuntzaren, modernitatearen, ekintzaitzaren eta abarren arloan lurraldeko gainerako arloen parean egongo den landa-ingurunea, herrialdearen ikuspegi berri bat, integratzaileagoa, lortzen lagunduko duena.
	<b>Euskadiko Elikaduraren eta Egurraren Kateko Ekintzaitza Estrategia</b>	EAEko landa-inguruneetan jarduera ekonomikoa sustatzearen eta dibertsifikatzearen arloan, euskal landa-ingurunean ekintzaitza eta intraekintzaitza sustatzea da helburua, bertako enpresa-dinamismoa indartzea bultzatuz eta berrikuntzari lotutako ekintzaitza-agertoki berriak aintzat hartuz, batez ere testuinguru digitaletan, <i>Smart Territory</i> ikuspegiarekin; baita landa-ingurunekeo balio-kate berriei lotutakoak ere; izan ere, bioteknologiaren, ekonomia sozialaren eta ekonomia zirkularraren eremutik onura sozial argiak ekartzen dituzte.
Lana eta Enplegua	<b>Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuaren Lege berria (izapidetze-prozesuan)</b>	Helburua Euskal Enplegu Zerbitzua arautzea eta ordenatzea du; hau da, enplegurako politika aktiboak planifikatzeko eta garatzeko egiturak eta tresnak. Hori horrela, enplegurako gobernantza integraleko eredu berri bat sustatuko du eta Lanbide izango da eredu horren ardatz. Enplegu-zerbitzu publikoa, Lanbide, eredu berriaren bizkarrezur izango da eta lan-merkaturatzea indartuko du. Horrez gain, enpresak eta pertsonak izango ditu ardatz, Euskadin enplegarritasuna hobetzeari eta enpleguaren sorrerari ekarpen handiagoa egiteko.

Eremua	Estrategia	Deskribapena
	<b>Kooperatiben Euskal Lege berria</b>	Euskal Autonomia Erkidegoko botere publikoek, dagozkien eskumenen eremuan, (...) jarduera ekonomikoak garatzea sustatuko duten ingurune sozial eta ekonomikoen alde egingo dute kooperatiben bidez, eta lagundu egingo diete berrikuntza teknologikoak eta antolaketakoak lortzen, eta sustatu egingo dituzte kooperatiba-sozietateetatik sortutako ekimenak.
	<b>Gizarte Ekonomiarako Sailarteko Plana</b> (izapidetze prozesuan)	Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatu dio, ekimen hau onartzen denean, has ditzala sailen arteko ekonomia sozialaren plan estrategiko bat prestatzeko lanak, plan hori garatzeko beharrezkoak diren baliabide ekonomikoak ezarriz, hala, Euskadiko ekonomia sozialari bultzada bat emateko.
<b>Hezkuntza</b>	<b>Hezkuntza Sistemako oinarrizko kompetentzien dekretu arauemailea</b>	2015ean, berrikuntza gisa, ekintzaitza txertatu zuen hezkuntzako zenbait eremutan: Zeharkako kompetentziak: "ekimenerako eta espiritu ekintzailerako kompetentzia"; Ekintzaitza aukera ikasgai gisa bigarren hezkuntzan; eta Irakasleentzako prestakuntza eta ebaluazioa ekintzaitzaren inguruan.
	<b>Lanbide Heziketako Legea 2018</b>	Lanbide Heziketako Euskal Legeak lanbide heziketako eredu konbinatu bat dakar berritasun gisa, eta eredu horretan txertatuta daude, hezkuntza-sistemako lanbide heziketaz eta enplegurako prestakuntzaz gain, berrikuntza aplikatuko eta ekintzaitzako ikaskuntzak. Legeak, zehazki, "berrikuntza, sormena eta ekintzaitzarako gaitasuna eta informazio eta komunikazio teknologien (IKT) erabilera sustatzen ditu, bai hasierako lanbide heziketan, bai enplegurako lanbide heziketan".
	<b>Lanbide Heziketaren Euskal Plana 2018-2021</b>	Planaren helburu nagusia "Giza garapen jasangarria lortzeko bidean aurrera egitea da, pertsonen talentua sustatzeko, ekoizpen-ingurune berri batek ekarritako erronkei aurre egiteko kompetentziak eta prestakuntzak txertatuta, eta lanbide heziketa 4. industrial-iraultzan, digitalizazioan, konektagarritasunean, garapen jasangarrian, ezagutzaren kudeaketan eta 4.0 balioetan oinarrituta sendotzen dela ziurtatuz, hala, gure gizarteko lan, ekonomia, zientzia eta kultura arloko eraldaketei behar bezala erantzuteko. Lehentasunezko esparru estrategikoen artean ditu ekintzaitzari lotutako zenbait jarduera-ildo.



Eremua	Estrategia	Deskribapena
	<b>Unibertsitate Sistemaren IV. Plana 2019-2022</b>	<p>Planaren garapen-ardatzen artean dago Unibertsitatea + enpresa Ardatza, eta ardatz horretan enplegagarritausnarekin eta ekintzaitzarekin lotutako ekintzak hitzartu dira Euskal Unibertsitate Sistema osatzen duten hiru unibertsitateekin.</p> <p>Era berean, EHUren Unibertsitatea-Enpresa-Gizartea programa-kontratuaren baitan, Plan honen lehentasunezko ekintzen artean dago hiru campusetako ekintzaitza-programak garatzea; DUren Unibertsitatea-Enpresa-Gizartea programa-kontratuan, jasota dago Ekintzaitza-jardueraren garapena indartzeko programak indartzea eta hedatzea; eta MUren Unibertsitatea-Enpresa-Gizartea programa-kontratuak jasoa du Enpresa eta erakundeentzat ekintzaitzarako, intraekintzaitzarako ekosistema bat eta zerbitzu aurreratuak garatzen laguntzea.</p>
<b>Foru-aldundiak</b>	<b>Ekonomia leheneratzearen eta kalitatezko enplegua sustatzearen aldeko apustua</b>	<p>Bizkaiko Foru Aldundiaren Bizkaia Goazen 2030 Estrategiaren esparruan, 1. ardatzak, "Bizkaian jarduera ekonomikoa eta enplegua" izenekoak, helburu estrategiko gisa planteatzen du ekintzaitzari alderdi guztietatik ematea babesa, Bizkaian ekintzaitzaren kultura sustatuz eta ekintzaitzako ekimenei balio erantsi handiko zerbitzu eta laguntzak eskainiz.</p>
	<b>Ekonomia sustatzeko esparrua</b>	<p>Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Sailaren helburua da kalitatezko enplegua sortzeko eta horri eusteko gaitasun handia biharko Bizkaiaren nortasun-ikurra izango dela bermatzea, eta Bizkaiak Europako abangoardia ekonomiko eta sozialean jarraituko duela bermatzea.</p>
	<b>Bizkaia Startup Bay estrategia</b>	<p>Biscay Startup Bay strategiaren helburua Bizkaiak nazioarteko ekintzaitzako erreferentzia gisa duen posizionamendua indartzea da, hala, Bizkaian enpresen sortze-tasa eta sortutakoen neurria nabarmen handitzeko; baita tokiko eta nazioarteko enpresak eta korporazioak berritzen laguntzeko ere, berrikuntza irekiko dinamiken bidez, <i>startupekin</i> eta ekintzaitza eta berrikuntzaren ekosistemako gainerako eragileekin interakzioan. Gainera, proiektu eta pertsona ekintzaileak erakartzeko eta trukatzeko ekimenak sustatuko dira; batez ere, lurraldearentzat estrategikoak diren esparruetan, hala, "industria-teknologia arloko ekintzaitza-ekosistema erakargarriaren" irudia sortzeko.</p>

Eremua	Estrategia	Deskribapena
Gipuzkoa: Ekonomia Sustapena, Turismoa eta Landa Ingurunea	Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2020-2023 Plan Estrategikoa	<p>2020-2023 Plan Estrategikoak lehiakortasuna dakar, ekimena, erantzukizuna eta norbanakoen nahiz kolektiboen konpromisoa eragin ekonomikoa eta soziala duten proiektuekin sustatzen dituen komunitate baten motor gisa. Komunitate horrek babestu egingo du gizartean balioa sortzeko konpromisoa duen enpresa; komunitate horretan bultzatu egingo dira ikaskuntza, ekintzaitzeta eta berrikuntza, jarduera berriak eta kalitatezko eta berdintasunezko enplegua sortzeko; komunitate horretan, aniztasuna eta kulturantzatasuna, arazo izan beharrean, beti aberastu eta gehitu egiten duten aukera izango dira.</p> <p>Planak ekintzaitzari lotutako jarduera-ildoak ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ekintzaitzeta eta intraekintzaitzeta korporatiboaren aldeko ekosistemak sustatzea, lurraldearekin errotzea, enpresa-jarraitutasuna, lagun egite integrala -azpiegitura eta dinamika inteligenteak, eta azpiegitura fisiko eta digitaletarako irisgarritasuna-enpresa-eredu batzuei eta besteei, eta ekintzaitzeta soziala.</li> <li>• Ekintzaitzeta eta intraekintzaitzarako laguntza- eta finantzaketa-programak sustatzea lan-munduratzeko enpresentzat, aukera-sektoreei arreta berezia eskainita.</li> </ul>
Araba: Ekonomia Garapena, Berrikuntza eta Demografia Erronka	Arabako Foru Aldundiaren laguntza-esparrua ekintzaitzeta-jarduerarentzat	<p>Arabako Foru Aldundiko Ekonomia Garapena, Berrikuntza eta Demografia Erronkaren Sailak helburu estrategiko gisa aurkeztu du eduki berritzailea eta teknologikoa duten enpresa-proiektu sortu berriei laguntza ekonomikoa ematea, arreta berezia eskainita balio erantsi handia eta hazteko potentziala dutenei. Helburu estrategiko hori Arabako lurralde osora zabaldu nahi da. Gainera, enpresa-espirtua eta lehendik dauden enpresak ekintzaile berriei eskualdatzeko tresnak sustatu nahi dira.</p> <p>Jarduera-ildoan artean, apustu irmoa egin du “Arabako enpresa-lehiakortasuna hobetzeko”, eta zehazki, bertan dauden enpresen lehiakortasunean irabaziak sendotzeko, eta horretarako, babes eman berrikuntza eta kudeaketa aurreratuari, enpresen arteko elkarlanari, enpresaren gizarte-erantzukizunari eta teknologia berriak hedatzeari; baita enpresa-proiektu berriak garatzera bideratutako ekintzaitzari ere.</p>
Udalak	Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legea, apirilaren 7koa	<p>Lege honen helburua euskal udalek eta gainerako tokiko erakundeek haien tokiko autonomia erabat gauzatzen dutela babestea eta bermatzea da. Era berean, lege honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko gobernuaren tokiko mailari zenbait eskumen aitortzea eta ematea, botere politiko propioa izango duela berma dadin eta bideragarri gerta dakion herritarrei kalitatezko zerbitzuak ematea tokiko gobernu ireki, garden eta partaidetzazko baten bidez. Azkenik, euskal udalak Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde-sisteman duen lekua zehazten du; batetik, euskal politika publikoak diseinatu eta gauzatzeko erakundeen arteko koordinazio- eta elkarlan-sistema bat eratzei dagokionez, udalek edo gainerako toki-erakundeek politika horiek garatzen dituztenean edo haien parte-hartzea eskatzen denean, eta beste aldetik, udalen finantzaketa-sistema zehazteari eta Kontzertu Ekonomikoaren ondorio diren baliabide publikoak banatzeari dagokionez.</p> <p>17. artikuluan udalen kompetentzia propioak zein diren zehazten du. 25.a hauxe da: “Tokiko ekonomia- eta gizarte-garapena, eta tokiko enplegu-planak edo -politikak.”</p>

## A4. EEP 2020ren ebaluazioa


### a) Planaren aurrekontu-betearazpenaren aurrerapena

2020 Ekintzaitzako Erakunde Arteko Planaren aurrekontua, aurreko EJJLEP 2013-2016 bezalaxe, zuzenean dago Planean partaide diren Eusko Jaurlaritzako eta foru-aldundietako sailen ohiko aurrekontuei lotuta, eta zuzenean edo zeharka ekintzaitza sustatzera bideratutako kontu-sail eta funtsak batuta dago kalkulatuta.

Pandemiaren testuinguruan, 2020an, eragile publikoek ekintzaitzari laguntzeko EEPren baitako 300 programa eta ekimen baino gehiagori esleitzea planifikatutako **aurrekontuaren % 94 gauzatu** zen. Aurreko urteetan, onartutako aurrekontuaren eta esleitutakoaren arteko aldeak ekintzaitzaren izaerak eragindakoak izan ziren; adibidez, jarduera-bolumenaren eta finantzaketa-eskaeren edo eskatutako zenbatekoen aldakortasuna.

EEP 2020ren aurrerapenaren froga gisa, aurrekontu-betearazpenaren **% 90 ingurukoa** izan ohi da. Era berean, aipagarria da **2019rako onartutako aurrekontua azken zazpi urteetako altuena izan zela** ekintzaitzarako erakundeen arteko planen esparruan.

**11. irudia. Ekintzaitzari laguntzeko aurrekontu publikoaren urteko bilakaera**  
€; 2013-2020 (M€)



\*Datu doitua Iturria: EEP 2020an parte hartu duten eragileak

Jarduera-ardatzen arabera, behin baino gehiagotan aurrekontu handiena izan duten ardatzak hauek dira: 3. ardatza "Iturriak eta ideiak"; 6. ardatza "Laguntzarako zerbitzuak eta programak"; 4. ardatza "Finantzaketa"; eta 2. ardatza "Giza kapitala".

### b) Aurreikusitako ekintzak eta programak gauzatzea


EEP 2020aren hasieran **aurreikusitako 300 ekintza baino gehiagori** dagokionez, planifikatutako neurrian bete dira aurreikusitako ekintza eta programa gehien-gehienak, alde batera utzita 2020an pandemiak izandako ondorioak eta ekintza eta programa batzuen eduki, formatu, epe eta/edo aurrekontuan izandako aldaketak.

Aipagarria da, halaber, **etengabe jarri direla ekimen berriak abian**, eta azaldu direla eragile berriak ere, bai publikoak, bai pribatuak eta publiko-pribatuak, eta horrek erakusten du euskal ekosistemak zer dinamismo duen, eta ekintzaitzarako gero eta interes handiagoa dutela erakunde, ekonomia eta gizarte arloko eragile ugari.

Aldaketa horiek zehatz daude jasota EEP 2020aren **urteko balantzearen txostenetan**. Erakunde arteko Mahaia onartu, eta Eusko Legebiltzarrera bidaltzen dira txosten horiek.

### c) Planeko adierazleen aginte-koadroa

2. eranskinean xehe jasota dago, eta ikuspegi osoa eskaintzen du, batetik, laguntzarako ekosistemaren jardunari buruz, eta bestetik, ekintzaitzako jarduera eta jokabideak aintzat hartuta duen inpaktuari buruz. Sartuta daude laguntzarako euskal ekosistemaren jarduerari buruzko adierazleak eta inpaktuaren adierazleak.




## A5. “Babson Entrepreneurship Ecosystem Project” eredua egokitzea

“[Babson Entrepreneurship Ecosystem Project](#)” 2010ean garatu zuen Babson College delakoko Daniel Isenberg adituak, ekintzailtza sustatzeko ekosistema aurreratuak garatu nahi dituzten herrialde eta eskualdeentzako laguntza-eredu gisa.

Ekintzailtza ekoizpenaren eta gizartearen eraldaketarako motortzat hartzen hamarkadak daramatzaten herrialdeen (besteak beste, AEB, Kanada, Australia, Israel eta Erresuma Batua) esperientziak aztertuta, ereduak zenbait **funtsezko faktore** identifikatzen ditu errendimendu altuko ekintzailtza-ekosistema bat **arrakastatsua izan dadin**.

“Babson Entrepreneur Ecosystem Project” delakoak proposatutako eskemaren arabera, honako hauek dira funtsezko faktore horiek:

### Ekosistema ekintzaile bat garatzeko faktore kritikoak



Iturria: “The Babson Entrepreneurship Ecosystem Project”, Babson College-ek garatua

Orain, ekosistema bat errendimendu altukoa izatea dakarten faktore bakoitzaren osaera deskribatuko dugu labur.

- **Politika:** ekosistemaren lidergo publikoa, “aterki” estrategia bat izatea eta ekintzailtzarentzat mesedegarria izango den politika, lege, zerga eta finantza esparru bat sortzea; baita laguntza-programa batzuk ere. Horiek laguntzeko ekosistema baten faktore ukiezinak dira, baina funtsezkoak.
- **Finantzak:** ekosistemak finantzaketarako eta inbertsiorako behar adina tresna eta agente izan behar ditu ekintzailtzaren etapa batzuetan eta besteetan, hala, ahalmena eta beharra dutela erakusten duten enpresa berriek eta pertsonak finantzaketa eskuratzen dutela ziurtatzeko.
- **Kultura:** funtsezkoa da ekintzailtzaren balioak eta enpresa-espíritu sendo bat sentsibilizaziorako ekintzen eta arrakasta-kasuen bidez lantzea, ekosistema guztiek, epe luzera, bizirauteko eta garatzen jarraitzeko.

- **Euskarria:** azpiegitura egokiak eta espezializatuak ekintzaitzako jarduera mota bakoitzaren arabera, eta laguntza-zerbitzu espezializatuen sare osatua.
- **Giza kapitala:** ekintzaitzari lotutako konpetentzietan gaitzea, hezkuntza sistema (dituen maila guztietan) protagonista izanda, eta talentua erakartzeko eta hari eusteko mekanismoak.
- **Merkatua:** markatuari babesa emateak erabat baldintzatzen du eskualde bakoitzaren ekintzaitza; izan ere, enpresa sortu berriek “lehen bezeroak” behar dituzte; baita pixkanaka merkatuan sartzen lagunduko dieten enpresa-ehuna eta eragileak ere.

Faktore horiek modu batera edo bestera daude eratuta eta elkarrekin elkarreraginean lurralde bakoitzean. Horiek ikuspegi integraletik aztertuta, hobetu beharreko arloak eta erronkak identifika daitezke ekintzaitzari laguntzeko edozein ekosistematan.

EEP 2024ari begira, eremu hau EAEko errealitatera egokitu da zenbait aldagai sartzeko; adibidez, bizi-kalitatea eta ekosistemaren baldintza sozioekonomikoak (makro mailakoak). Egokitze hori egin ahal izan da Aspen Network of Development Entrepreneurs delakoak ekintzaitza-ekosistemak aztertzeko tresnei buruz eginiko azterketari esker, eta honako erakunde hauek diseinatutakoak aztertu dituzte: Babson College, Council on Competitiveness, George Mason University, Hwang, V.H., Koltai and Company, GSM Association, Organisation Economic Co-operation and Development, World Bank, World Economic Forum.

**EUSKADI**  
BASQUE COUNTRY



Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Diputación Foral  
de Gipuzkoa



**ETORKIZUNA ORAIN**  
Es futuro

